

**HIZKUNTZA-JOKAERAN ERAGITEKO
ESPERIENTZIAK LAN-MUNDUAN.
HIRU EGITASMOREN AZTERKETA KONPARATIBOA**

HIZNET HIZKUNTZA-PLANGINTZA GRADUONDOKOA
2015-2016 IKASTURTEA
Asmoz eta Euskal Herriko Unibertsitatea

Egilea: Aitziber S. Alberdi
Tutorea: Pello Jauregi Etxaniz

AURKIBIDEA

1	Laburpena	5
2	Sarrera	5
3	Egitasmoen aurkezpen deskriptiboa	7
3.1	<i>Aldahitz ikerketa 2014 (Soziolinguistika Klusterra)</i>	7
3.1.1	Informazio orokorra.....	7
3.1.2	Oinarri teorikoa.....	8
3.1.2.1	Oinarri teorikoaren muina.....	8
3.1.2.2	Jendarte-jokaerak eremu sistemikoan. Sistemen ezaugarriak eta funtzionamendua...9	
3.1.2.3	Jendarte eta hizkuntza-jokaeren funtzionamendua: bestelako mekanismoak.....10	
3.1.2.4	Esku-hartze metodologiaren diseinurako oinarriak.....15	
3.1.3	Metodologia.....	21
3.1.3.1	Helburua.....	21
3.1.3.2	Esku-hartze metodologia: eusle metodologia.....	21
3.1.3.3	Iraupena eta denbora-antolaketa.....	22
3.1.3.4	Esperientzia burutzeko baldintzak.....	22
3.1.3.5	Trebakuntza-saiorik ez.....	23
3.1.3.6	Jarraipen-berrespen sistema.....	23
3.1.3.7	Guneen hautaketa eta esperientzien abiatzea.....	23
3.1.3.8	Datuen neurketa.....	24
3.1.3.8.1	Hizkuntza-erabileraren neurketa.....	24
3.1.3.8.2	Bestelako datuen neurketa.....	26
3.1.4	Emaitzak eta egileen irakurketa.....	27
3.1.4.1	Datuen azterketarako aldagaiak.....	27
3.1.4.2	Emaitza nagusiak.....	28
3.1.4.2.1	Erabileraren bilakaeraren datuak.....	28
3.1.4.2.2	Gainerako aldagaien araberako emaitzak.....	29
3.1.5	Ikertzaileek proposatutako ondorioak.....	30
3.2	<i>Egin Salto! Hizkuntza portaerak aldatzeko interbentzioa (Emun aholkularitza)</i>	32
3.2.1	Informazio orokorra.....	32
3.2.2	Oinarri teorikoa.....	33
3.2.3	Metodologia.....	33
3.2.3.1	Helburuak.....	33

3.2.3.2	Esku-hartze metodologia.....	33
3.2.3.3	Iraupena.....	35
3.2.3.4	Arrakastarako baldintza bat: erakundearen babes.....	36
3.2.3.5	Hizkuntza-erabileraren neurketak.....	36
3.2.3.5.1	Bikoteen euskara-erabilera.....	36
3.2.3.5.2	Neurketa orokorrak lantoki osoan.....	37
3.2.4	Emaitzak.....	37
3.2.5	Egitasmoaren arduradunek proposatutako ondorioak.....	37
3.3	<i>eusLiderrak. Hizkuntza portaera berriak sortzeko tailerra (Ahize-AEK</i>	
	aholkularitza)	38
3.3.1	Informazio orokorra.....	38
3.3.2	Oinarri teorikoa.....	39
3.3.2.1	Ikuspegi orokorra.....	39
3.3.2.2	Terapia Labur Estrategikoa (TLE).....	39
3.3.2.3	PRECEDE metodoa.....	41
3.3.2.4	Pertsuasioaren arauak.....	42
3.3.2.5	<i>EraLan 2</i> proiektuko aldagaiak.....	46
3.3.3	Metodologia.....	46
3.3.3.1	Helburuak.....	46
3.3.3.2	Esku-hartze metodologia: <i>eusLiderrak</i> tailerra.....	47
3.3.3.3	Datuen neurketa.....	51
3.3.3.3.1	Hizkuntza-erabileraren neurketa.....	51
3.3.3.3.2	Parte-hartzaileen balorazioak.....	51
3.3.3.3.3	Hirugarren fasera pasatutakoen kopuruak.....	52
3.3.3.3.4	Bestelako informazio-iturriak.....	52
3.3.4	Emaitzak.....	52
3.3.4.1	Erabileraren datuak.....	52
3.3.4.2	Parte-hartzaileen balorazioak.....	53
3.3.4.3	Hirugarren fasera pasatutako kideak.....	53
3.3.4.4	Bestelako informazio-iturriek adierazitakoa.....	53
3.3.5	Arduradunen ondorioak.....	54
4	Egitasmoen azterketa konparatiboa	54
4.1	Egitasmoen izaera	54
4.2	Eskuratutako informazioa	55

4.3	Egitasmoen helburu nagusiak	56
4.4	Oinarri teoriko-metodologikoen alderaketa	58
4.4.1	Ikuspegi soziologikoa/psikologikoa oinarri teorikoan eta metodologian.....	58
4.4.1.1	Zein eremutan esku hartzen dute zuzenean: hautematea, jokabidea.....	58
4.4.1.2	Zuzeneko esku-hartzerako unitatea: norbanakoa, taldea.....	62
4.4.2	Oinarri teorikoen beste zenbait alderdi.....	64
4.4.2.1	Zutabeak.....	64
4.4.2.2	Ikuspegia.....	65
4.4.2.3	Bestelako alderdiak.....	65
4.4.3	Talde eta egoera motak.....	67
4.4.4	Zenbat aldagaitan esku hartu zuzenean.....	68
4.4.5	Hizkuntzaren ikasketa-prozesuaren ikuspegia.....	69
4.5	Metodologia	70
4.5.1	Esku-hartzerako bideak.....	70
4.5.1.1	Hizkuntza jokabide araua: <i>Aldahitz 2014</i> eta <i>Egin Salto!</i>	70
4.5.2	Esperientzien iraupena eta denbora-antolaketa.....	70
4.5.3	Jarraipen-sistemak.....	71
4.5.4	Datuen neurketa.....	72
4.5.4.1	Hizkuntza-erabileraren neurketa.....	72
4.5.4.1.1	Neurketa-uneak.....	72
4.5.4.1.2	Neurketa-moduak eta tresnak.....	72
4.5.4.2	Balorazioen bilketa.....	75
4.5.4.3	Bestelako informazio-iturriak.....	76
4.6	Emaitzak	76
4.6.1	Hizkuntza-erabileraren emaitzak.....	76
4.6.2	Balorazioen emaitzak.....	77
4.6.3	Bestelako emaitzak.....	78
4.7	Esku-hartzeak, nori begirakoak	78
5	Ondorioak	81
6	Bibliografia	88

1. LABURPENA

Lan honetan aztertzen eta alderatzen dira lan-munduko hiru esperientzia, hizkuntza-jokabideak edota ohiturak aldatzeari begirakoak: Soziolinguistika Klusterraren *Aldahitz ikerketa 2014*, Emun aholkularitzaren *Egin Salto!* eta Ahize-AEKren *eusLiderrak*. Aztertze-lanean, erreparatu zaie egitasmoon atal desberdinei: oinarri teorikoa, metodologia, emaitzak eta arduradunek proposatutako ondorioak. Lehenengo, proiektuon aurkezpen deskriptiboa egin da, aipatu ataletan agertzen dituzten edukiak deskribatuta. Ondoren, aztertu egin dira edukiok, egitasmoak elkarren artean alderatuz. Azterketa konparatibo horretan, ikusi dugu egitasmoak badituztela antzeko alderdiak, baina elkarrengandik urruntzen dituztenak ere bai: egitasmoen izaera bera, esku-hartzerako planteamenduak edota emaitzak neurtzeko bideak, besteak beste.

2. SARRERA

Badira urte batzuk, euskararen normalizazio eta indarberritzean dihardugunon artean, arreta-gune nagusi dugula erabileraren auzia. Ezagutzaren hedapenak ez du ekarri, askok espero genuenaren kontra, tamainako igoyerarik erabileran. Aitzitik, datuek erakusten digute geldialdia dagoela euskararen erabilera-indizean Euskal Herriko zonalde gehienetan.

Azken urteotan, bertako zein kanpoko adituek egindako lan itzelari esker, euskaltzaleok asko ikasi dugu soziolinguistikaz, eta orain badakigu euskara ezagutzeak ez dakarrela berarekin, berez, erabilera. Gauzak ez dira hain sinpleak, eta beste faktore batzuek ere esku hartzen dute zein hizkuntza baliatu ebatzi behar denean.

Testuinguru horretan, azken urteotan, ugaritu egin dira erabilera handitzea eta hizkuntza-jokabidean edota ohituretan eragitea helburu duten egitasmoak, hainbat esparrutan. Horiek horrela, lan honen helburua da aztertzea eta alderatzea lan-munduan burutu diren hiru esperientzia: Soziolinguistika Klusterraren *Aldahitz ikerketa 2014*, Emun aholkularitzaren *Egin Salto!* *Hizkuntza portaeretan eragiteko interbentzioa* eta Ahize-AEK hizkuntza-aholkularitzaren *eusLiderrak* egitasmoa.

Hainbat izan dira lan mundua aukeratzeko arrazoiak: batetik, azken hamarkadotan esperientzia handia metatu da euskara-planen bidean. Bestetik, arloaren ezaugarriak aproposak dira esku-hartze kontrolatuak abiatu ahal izateko, neurri handi baten, eremu arautua baita. Aldi berean, ordea, harreman informalak ere izaten dira lankideen artean; alde horretatik, beraz, harremanok

euskalduntzeko izan diren egitasmoen ondorioak baliagarri izan litezke beste alor informal batzuetan aintzat hartzeko ere (informazio jakingarria eman liezagukete, behinik behin). Bestalde, egitasmo zehatz horiek hautatu ditugu, bereziki, ondoko arrazoia dela eta: Interneten mota horretako esku-hartze esperientzien bila genbiltzala (hau da, helburu nagusi lankideen arteko ahozko erabilera handitzea zutenak), aukeratuak zirelako sarean informazio gehien eskaintzen zutenetakoak.

LANAREN HELBURUA ETA METODOLOGIA

Hortaz, esan bezala, ikerlan honen helburua da aztertzea eta alderatzea hizkuntza-jokaerak edota ohiturak aldatzeari begira lan munduan burutu diren hiru esperientzia horiek. Egitasmoon azterketan, hurrengo arreta-gune edo atalei erreparatuko diegu:

- Oinarri teorikoa: badute oinarri teorikorik? Zein da?
- Metodologia: zein da esku-hartzerako baliatu/baliatzen den metodologia?
- Emaitzak: jaso da esku-hartzearen emaitzen daturik? Zein dira emaitzok?
- Ondorioak: zein dira, emaitzak aintzat hartuta, egitasmoen arduradunek atera dituzten ondorioak?

Zeregin horretan, hurrengo antolaketari jarraituko dio lan honek: lehenengo eta behin, deskribatu egingo dira proiektuak, aipatutako atal edo arreta-guneen aurkezpen deskriptiboa eginda. Ondoren, egitasmoen azterketa konparatiboa egingo dugu. Azken atalean, ondorioak proposatuko ditugu.

Azkenik, esango dugu ez genukeela nahi, inondik inora, azterlan hau ulertzea egitasmo onena aurkitzeko saioltzat. Egon liteke arrisku hori; ez da, ordea, hori gure asmoa. Aitzitik, dagoena ezagutu eta aztertu nahi genuke, ekarpen positiboa egin nahian.

ESKERTZA

Sarrera honi amaiera emateko, eskerrik beroenak azterlan hau gauzatzen lagundu duzuen guztiei: Pello Jauregi Etxaniz tutoreari; etxekoei, pazientzia eta babesagatik; eta, bereziki, aztertutako egitasmoen arduradunei, emandako informazio nahiz laguntzagatik. Gainera, miresmena adierazi nahi nieke lan-guneetan egunerokoan dihardutenei, lokatzetan sartuta dabiltzanak eurak dira-eta. Paperean azterketak egitea garrantzitsua dela ukatu barik, errealitatea kudeatzen ere asmatu behar izaten baita.

3. EGITASMOEN AURKEZPEN DESKRIPTIBOA

Ondoko lerroetan deskribatu egingo ditugu aztergai ditugun proiektuak, aipatutako atal edo arretaguneei erreparatuta. Atalez atal azalduko ditugu edukiak: informazio orokorra, oinarri teorikoa, metodologia, bildutako emaitzak eta egitasmoen arduradunek proposatzen dituzten ondorioak. Aurrera egin baino lehen, hala ere, argitu dezagun atal honetan aurkeztuko diren eduki guztiak (datuak, teorizazioak, gogoetak, interpretazioak...) proiektu horien arduradunek adierazitakoak direla. Egitasmoak, bestalde, ordena alfabetikoan aurkeztuko ditugu.

3.1. ALDAHITZ IKERKETA 2014 (SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA)

3.1.1. INFORMAZIO OROKORRA

Aldahitz ikerketa 2014 Soziolinguistika Klusterrak burutu zuen 2013-2014 urteetan, eta ikertzaileek, Pello Jauregik eta Pablo Suberbiolak, izen bereko lanean ematen dituzte lanaren xehetasun guztiak ([Klusterraren webgunean](#) dago eskuragarri). Dokumentu hori izan dugu, hain zuzen, informazio-iturri nagusi.

Ikerlana esperientzia pilotu bidez gauzatu zen ondoko zazpi erakundeetako gune jakinetan: Fagor Arrasate enpresaren Markinako lantegia, Tolosako Udaleko Hirigintza saila, Tolosako Udaleko Zerbitzuen saila, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen saila, Eusko Jaurlaritzako Gazteria saila, JMA enpresaren Arrasateko lantegia eta Zarauzko Udaleko diruzaintza saila. Esku-hartze metodologia zehatz bat ezarri zuten (Eusle metodologia), laneko ohiko harremanetako hizkuntza-jokabide eta ohituretan eragiteko asmotan; eta aztergai izan zituzten, metodologia ezarri izanaren ondorioz gertatutako aldaketak.

Soziolinguistika Klusterrak urratuta zuen lehenagotik ere hizkuntza-ohituren aldaketaren azterketabidea. Hain zuzen, 2014koaren aurrekari dira bi azterlan hauek: 2009ko *Bikoteen artean hizkuntza-ohituren aldaketa: ikerketa-lana* eta, bereziki, 2011ko *Aldahitz ikerketa*. Bigarren horretan, aztertu zituzten heldutan euskara ikasi eta lankideren batekin euskaraz egiteko ohitura finkatu zuten zortzi langileren kasuak. Azterketa horretan ondorioztatutako gakoetan oinarritu zuten, gero, 2014ko *Aldahitz* ikerketako Eusle metodologia.

Parte hartzaileei dagokienez, EHUko Pello Jauregi eta Soziolinguistika Klusterreko Pablo Suberbiola ikertzaileekin batera, honako bost erakundeetako profesionalek jardun zuten

azterlanaren Garapen Taldean: Ahize-AEK, Elhuyar Aholkularitza, Emun, Hernaniko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Horiez gain, lankide izan ziren Gipuzkoako Foru Aldundia eta bere Udal<>ekin programa ere.

Azterlanaren datu orokorrak agertuta, aurkez ditzagun ikerketaren nondik norakoak, atalez atal.

3.1.2. OINARRI TEORIKOA

Aldahitz ikerketa 2014 lanean, luze eta zabal dago azalduta osatu duten marko edo oinarri teorikoa. Egileen hitzetan, bertan bildu dituzte 2009tik aurrera hizkuntza-ohituren aldaketa prozesuak ikertzeko baliatu dituzten iturri zein hausnarketa teorikoak (Jauregi eta Suberbiola, 2014).

Proposatzen duten markoaren muina da hizkuntza-jokaera gizarte-jokaera dela; ez du norbanakoak modu isolatuan burutzen, inguruko pertonekin, talde-elkarreraginean, baizik. Horrela, hizkuntza-jokaeraren funtzionamenduan arakutzen dute, gidatzen duten mekanismoak agertu nahian. Mekanismo horiek azaldu eta aintzat hartu ostean, proposatzen dituzte hizkuntza-jokabidea eraldatzeko esperientzia-marko edo marko metodologikorako oinarriak.

Ondoko lerroetara ekarri ditugu, beraz, *Aldahitz ikerketa 2014*ko ikertzaileek plazaratzen dituzten kontzeptu nahiz gogoeta teoriko nagusiak.

3.1.2.1. OINARRI TEORIKOAREN MUINA

Oinarri teorikoaren muina, esan bezala, honako ideia hau da: **hizkuntza-jokaera gizarte-jokaera da**. Egileek ideia nagusi horren inguruan mamitzen dute marko teorikoaren parterik handiena: ideia horretan sakondu eta xehatu egiten dituzte hizkuntza-portaera azaltzen duten mekanismoak, hainbat eta hainbat kontzepturen bitartez.

Beraz, proposatzen dute hizkuntza-jokaera (beste edozein jendarte-jokaera bezala) ez dela norbanakoari bakarrik dagokion gertakaria, baizik eta inguruko pertonekin, **talde-elkarreraginean** gauzatzen den jarduera sistemikoa.

“Hainbat jokalariren arteko joko arautu baten gisa ulertu beharko genuke hizkuntza-jokaera.

Halakoetan, jokalaria baten jokaerak beste jokalariaen jokaerak aintzat hartzen ditu ezinbestean, halako moldez non denon ekimenez sortzen baita elkarri ongi uztartutako eremu arautu, egonkor eta egituratua” (Jauregi eta Suberbiola, 2014: 10).

Horiek horrela, diote talde baten eremu sistemikoan kokatu beharra dagoela, baita zenbait hausnarketa teoriko ekarri ere, sistemetan kideen jokaerak osagarriak direla argitzeko (Watzlawick, Bavelas eta Jackson, batetik; Maturana eta Dávila, bestetik).

Hizkuntza-ohitura ere taldean sortzen da (talde txikiena bikotea da), elkarri egokitutako jokaera errepikatuaren ondorioz. Beraz, *Aldahitz*-en egileek ohartarazten gaituzte, hizkuntza-ohituraren aldaketa bultzatu nahi badugu, taldearen harreman sistemikoak irauli behar ditugula. Taldeko kide batzuek arau berriaren alde egitea beharrezkoa izango da, baina ez nahikoa, ezinbestekoa izango baita kide guztien jokabideak elkarri modu berrian egokitzea. Orduan, hizkuntza-ohituraren aldaketa lortu nahi badugu, proposatzen dute hiru alderdi hauek gogoan izatea (Jauregi eta Suberbiola, 2014): aldakuntza sustatzeko ekimena kokatzea talde egituratu baten testuinguruan; kontuz aukeratzea aldaketa sorraraziko duten ekintza urratzaileak; eta argi zehaztea jokalarien zeregin osagarriak.

3.1.2.2. JENDARTE-JOKAERAK EREMU SISTEMIKOAN. SISTEMEN EZAUGARRIAK ETA FUNTZIONAMENDUA

-Egileek baieztatzen dute sistema baten barruan osagaien **elkarrekintza etengabea** dela (baita sistema desberdinen artean ere). Bat datoz Gendlin-ekin elkarrekintza funtsezkoa dela esatean. Mugimenduak etenik ez duenez, sistemak sortu, garatu eta desegin egingo dira; bertan behera gelditzean, beste sistema bat sortuko da aurrekoaren lekuan. Gainera, eten bako elkarrekintzak behar du osagaiak elkarri egoki dakizkion: “**Elkarri egokitzeko beharra** eta **elkarri egokitzeko jokaera**¹, txanpon beraren bi aldeak bailiran, elkarri helduta ageri zaizkigu orduan, etengabeko elkarrekintzaren ondorio gisa” (Jauregi eta Suberbiola, 2014: 12).

-Era berean, ikertzaileek azpimarratzen dute, elkarrekintza eten bako horretan, sistemek **orekarako joera** dutela. Izan ere, irauteko, ezinbestekoa da osagaien elkarrekintzak osagarritasuna eta oreka lortzea. Beraz, talde bateko kideen jokaerek elkarri egokitzeko beharra eta joera izango dute. Jauregik eta Suberbiolak *Bertango mugimendua* izena ematen diote sistema ia egonkorretan (ikus hurrengo puntua) gertatzen den mugimendu biribilari (De Bonok proposatutako *Bucles de estabilidad* kontzeptuari jarraiki). Ondorioz, horrelako sistema baten, egokitzeko beharra minimoa da eta ia inertziaz egiten da; ohiturazko jokaerari jarraitzea da espero dena.

1 Letra lodia, kontzeptu bietan, gurea da.

-Alabaina, ikertzaileek gogorarazten digute **ezusteak beti gertatuko direla** eta oreka apurtuko dutela (aipatzen dute *ezustearen printzipioa*; alegia, sistemek ezin dituztela ezusteak saihestu). Hortaz, horretarako joera izan arren, sistemek ez dute inoiz lortzen erabateko egonkortasuna (diote hainbat egilek deskribatu dutela sistema egoera ia egonkor gisa, besteak beste, Lewin-ek). Testuinguru horretan, baieztatzen dute sistemek badutela, orekarako bezala, ezusterako (aldakortasunerako) joerarik ere. Adierazitakoari argi emateko, azaltzen dute sistema autoantolatuek badutela, egonkortasunerako patroiak sortzeko joerarekin batera, patroi zaharrak berregituratu edo berritzeko beharra ere (De Bonok proposatu zuen nerbio-sistemaren funtzionamendurako). Horixe bera gertatzen da, egileen esanetan, gizarte-sistemetan ere.

-Ezusteek, beraz, maila desberdineko ondorioak eragin litzakete, mutur batetik besterainokoak. *Bertango mugimenduak* osagai berria barneratzeko gaitasuna balu, ohiko egokitze txikien bitartez eutsiko litzaioke orekari. Ustekabeko osagai batzuek, ostera, aldaketa handia eragin dezakete sisteman (berregituratzea edo desegitea, kasu bortitzenetan); ohiko bidetik barneratu ezin bada, sorraraziko du *aurrerako mugimendu* deritzotena². Izan ere, sistemak lehenbailehen berreskuratu beharra dauka oreka, osagaiek elkarri egokitzeko joera eta beharra baitaude. Horren emaitza da **sistemaren eraldaketa eta berregituratzea**.

Diseinatu duten esku-hartze metodologiari (Eusle metodologia) dagokionez, horixe da lortu nahi dutena: sistema desorekatuko duen elementu berria sartuta, aurrerako mugimendua eragin eta sistema (eta, beraz, indarrean den hizkuntza-jokabidea zein araua) berregituratzera behartu; gero, halaber, oreka berria euskarazko jokaeraren inguruan lortzea.

3.1.2.3. JENDARTE ETA HIZKUNTZA-JOKAEREN FUNTZIONAMENDUA:

BESTELAKO MEKANISMOAK

Sistemek (baita taldeek ere, sistema direnez) dituzten bereizgarriak azaltzeaz gain, jendarte-jokaera izaerari lotutako bestelako mekanismo batzuen berri ere ematen digute. Hona batzuk:

-Lehenago aipatu dugun legez, talde batean, hizkuntza-ohitura sortzen da elkarri egokitutako kideen

² Ikerlanaren arduradunok oroitarazten digute literatura psikologikoak nahiz soziologikoak bereizi izan dituela bi mugimendu horiek (bertangoa eta aurrerakoa); horren erakusgarri aipatzen dituzte Parsons, Marx eta Engels zein Watzlawick, Weakland eta Fisch.

jokabide errepikatuaren ondorioz. Era berean, **hizkuntza-araua** inplizituki eratzen da, taldeak (sistemak) beharra baitu talde-mailako hautemate-eremu (edo eremu sinboliko) bateratua eraikitzeke (adibidez, talde-kultura edo arau inplizitu bateratuak) (Jauregi eta Suberbiola, 2014); horren adierazle litzateke hizkuntza-araua ere. Beraz, jokaeraren emaitza izaten da, eta, aldi berean, sortu ostean, gidatzen du kideen portaera.

-Bestalde, adierazten dute jendarte-sistemetak eraldaketa-prozesuetan aldaketak bultzatu ohi dituztenak **kide aktibo gutxi batzuk** izaten direla, eta horien jokabideari **egokitzen zaizkion kide pasiboak, gehiengoa**. Horrela, kideek elkarren osagarri diren funtzio desberdinak betetzen dituzte (Jauregi eta Suberbiola, 2014). Eusle metodologiaren gakoetakotzat dute, gertakari hori kontuan hartuta, euskarari eutsiko dioten eusle “aktiboan” jokaeraz gain, horienara egokituko diren kide “pasibo” moldagarrien papera (ikertzaileek espero dute, esan bezala, eusle gutxi batzuen hizkuntza-jokaerak eragingo duela gainerako kideen egokitzapena).

-Aurreko oinarriekin batera, egileek ohartarazten dute, taldekideen hizkuntza-jokaerak elkarri egokitzean, zein hizkuntza hautatu ebazteko, funtsezkoa dela kideen hizkuntza-gaitasuna. Izan ere, hizkuntza-hautua ebatziko da elebakarr(ar)en hizkuntzaren aldera, ezinbestean, komunikazioa posible izango bada, behintzat. Elebakarrek ez daukate-eta euren posizioa (hau da, hizkuntza) aldatzeko aukerarik; ez dute bestearenera egokitzekeko posibilitaterik, finean.

Ildo horretan, proposatzen dute, metodologian, “eusleei” euskara hutsean jarduteko araua ezartzea; horrela, ezin dutenez hizkuntza aukeratu, ez dute **egokitzekeo aukerarik**. Hartara, behartzen dituzte gainerako kideak eusleen hizkuntzara egokitzera (horretarako premia sentituko dute-eta, elkarrekintzan gure jokabideak elkarri egokitzekeo beharra eta joera dugunez gero; gainera, hizkuntza-harreman simetrikoak izatera jo ohi dugu -ikus aurrerago-). Beraz, ikus dezakegunez, proposatzen dute erabiltzea errealitatean gertatzen den mekanismo bera, alderantzizko norabidean sorrarazita.

-Era berean, azaltzen dute, Gigerenzer-en proposamenari jarraituz, hautatzeko egokiera dagoen egoeretan (adibidez, hizkuntza aukeratzeko), arauzko aukera ezarri ohi dela, defektuz, besterik eskatu ezean (“**eskatu ezean, arauzko aukera**” **mekanismoa** esaten diote) (Jauregi eta Suberbiola, 2014). Izan ere, erabakitzekeo eskubidea baliatzeak dakar ahalegin aktiboa egin beharra, eta,

dirudenez, erabaki behar ez izatearen erosotasuna gailendu ohi zaio jarrera horri. Beraz, aukeratzeko egokiera errealik ez da izaten, praktikan, gehien-gehienetan.

Jauregik eta Suberbiolak ohartarazten dute, egoera elebidunetan, hizkuntza nagusia edo hegemonikoa izaten dela arauzko aukera. Izan ere, elebidunak hizkuntza hautatzeko duen askatasuna irudikeria da. Gure kasuan, elebakarrak (edo euskaraz gaitasun mugatua duenak) ezintasun praktikoa du euskara erabiltzeko; eta horrek behartzen du elebiduna elebakarraren hizkuntzara (erdarara) egokitzera, komunikazioa oztopoz betea eta deserosoa izango ez bada, behintzat. Metodologian, ordea, proposatzen dute mekanismo horrek berak euskararen alde egingo duela (ikus 3.1.2.4 atala).

-Motibazioaren eta jokaeraren arteko harremanari dagokionez, egileek proposatzen dute, motibazioak jokabidea aldarazteko indarra izan dezan, atalase-maila gainditu beharko duela, eta hiru faktorek ebatziko dutela hori: estimulu edo arrazoiaren kopuruak, izaerak (kilikatzaileak ala inhibitzaileak) eta bizitasunak (ikertzaileak bat datoz hainbat egilek proposatutakoarekin: emozioetan oinarritutako estimuluak bizitasun handiagokoak direla arrazoi hutsean oinarritutakoak baino).

Egileek aipatzen dituzte hiru egoera zeinetan gerta daitekeen hautemate-eremuaren aldaketa, eta, harekin batera, jokaerarena: ***zirrara handien indarra, ezinbestekotasun latza eta ezinbestekotasun biguna*** (Jauregi eta Suberbiola, 2014). Azken horren aldeko hautua egiten dute esku-hartzea diseinatzeke:

- Lehenengoari doakionean, diote jendarte-egoeraren bizitasuna handi-handia denean, pertsonen zirrarak inarrosi eta horiek ahalmena izan dezaketela hautemate-eremuak nahiz jokabideak aldatzeko.
- ***Ezinbestekotasun latza*** litzateke ezohiko eran jokatu beharra, gizarte-egoerak behartzen gaituelako. Ikertzaileek diote, holakoetan, berez sortu ohi zaigula egokitzeko ahalmena eta, gehienetan, beharrak eragiten duela, jokaerarekin batera, harekiko gure hautematea aldatzea ere, disonantzia kognitiboa murrizteko (ikus aurrerago): ezohiko zen jokabidearekiko estimua edo balioespena sortzea, adibidez.
- ***Ezinbestekotasun biguna***: beste batzuetan, talde batek aukera dezake onartu ala ez ezohiko egoera bat; esaterako, talde batek kanpoko eskari bat onartzen duenean (horixe litzateke

aztergai dugun *Aldahitz-en* metodologiaren kasua). Taldekideek askotariko motibazioak izan litzakete proposatutako egoerarekiko; baina eskaria onartuz gero, ezohiko zen jokabidea burutzearen burutzeaz, balioetsi egingo dute (erabilera-balioa sumatuko dute -ikus aurrerago-). Horrek, hautemate-eremu psikologikoaren berregituratzea ekarriko luke; hau da, jokaera horrekiko motibazioa, pentsaera nahiz emozioak egokitzea, jokamoldearekiko kontsonantzian egon daitezen (Jauregi eta Suberbiola, 2014).

-Hautemate-eremua (alderdi psikologikoa) eta jokaeraren (alderdi faktikoa) elkarrekiko egokitze, oreka edo kontsonantziari lotuta dago, halaber, Leon Festinger-ek **disonantzia kognitiboaren** teoria sonatua. Jauregik eta Suberbiolak gogora dakarkigute teoria hori, eta, horrekin batera, aipatzen dituzte hainbat egilek egin dituzten berrinterpretazioak nahiz gaiaren inguruan proposatuko sakontze-bideak eta ñabardurak (Jauregi eta Suberbiola, 2014):

Festinger-en teoriaren arabera, kognizio edo ezagutza ugari osatzen dute gure hautemate-eremua (adibidez, nola hautematen ditugun gure emozioak, ideiak nahiz jokabideak). Alabaina, batzuetan, kontraesana sortzen da horietako batzuen artean, eta, orduan, disonantzia kognitiboa delakoa sumatzen dugu. Esaterako, disonantzia kognitiboa sortzen zaigu pentsatzen duguna eta egiten duguna bat ez datozenean. Egoera horrek sentsazio desatsegina eragiten digu, pertsonok barne-oreka sentitzeko premia dugu-eta (ikertzaileen arabera, egile ugari baieztatzen duten moduan -Csikszentmihalyi, Rogers eta Gendlin...-). Ondorioz, beharra sentitu ohi dugu barne-kontsonantzia berreskuratzeko. Horrela, ideia eta jokaera baten artean disonantzia gertatzen denean, hiru modutan berreskura daiteke barne-adostasuna: ideia aldatuta, jokaerarekin bat egin dezan; jokaera aldatuta, ideiarekin bat egin dezan; beste kognizio bat asmatuta, aurreko bien aurkakotasuna arindu dadin. Festinger-ek iradokitzen du, aipatu ditugun hiru aukeretatik, aldatzen errazena hautatu ohi dutela pertsonok. Beraz, batzuetan, jokabidea aldatuko dugu. Baina, sarritan, nekeza izaten da ideiekiko koherente diren jokaerak edukitzea; holakoetan, ohikoa izaten da ideia aldatzea edo gure jokabidea justifikatzen duen azalpena sortzea.

Esan bezala, Festinger-en kontzeptuen zenbait garapen edota berrinterpretazio ere aurkeztzen dizkigute, baita lotura duten ideiak ere: Aronson-en iritziz, Disonantziaren Teoriak ez du iradokitzen, zehazki, gizakia animalia arrazionala denik, baizik eta arrazionalizatzailea dela; alegia, saiatu egiten dela arrazional agertzen bai besteen aurrean bai norbere buruaren aurrean. Beauvois

eta Joule-k, beren aldetik, proposatu zuten norbere gizarte-zirkunstantziek eta horrek eragindako jokaerak determinatzen dutela ideologia (nagusiki, beraz, jokaeratik sortuko litzateke ideologia; ez alderantziz). Testuinguru horretan, Jauregik eta Suberbiolak ere uste dute (egile askoren bidetik) pertsonen jokaera ez dutela soilik kognizio ohartuek gidatzen; aitzitik, jokaeraren eragile gehienak gure oharmenetik kanpo daudela eta gure ekintzak azaldu nahi ditugunean, ahalegin arrazionalizatzaileetara jotzen dugula, Aronson-ek dioenaren ildotik. Zalantzan ipintzen dute, ordea, azalpenok jokaeraren iturria diren.

Aurrekoari lotuta, bat egiten dute, halaber, Jerome Bruner psikologoarekin. Horrela, azpimarratzen dute pertsonon gogoan jarduera narratiboak funtsezko funtzioa duela; berezko ezaugarri dugula geure buruari etengabe kontakizunak kontatzea, azaltzeko egiten duguna zergatik egiten dugun, zentzua aurkitu nahian, koherentzia bila, gure barne-orekari eusteko. Berdin egiten dugu gainerako pertsonen jokabideen inguruan ere. Antzeko kontzeptuak dira, Jauregi eta Suberbiolaren esanetan, **mekanismo narratzailea** (Bruner) eta **arrazionalizatzailea** (Aronson).

Gauzak horrela, eta aurkeztutako gogoeta guztiak aintzat hartuta, Jauregi eta Suberbiolak ondoko hausnarketa mahaigaineratzen dute: gurea bezalako egoeran (bi hizkuntzen egoera soziolinguistikoa zein botere harremanak zeharo asimetrikoak direnean), hizkuntzari buruzko ideien eta jokaeraren arteko disonantzia sortzen zaigunean, aldatzen errazena ez da izaten hizkuntza-jokabidea, hizkuntza-jarrera edo hautematea-eremua baizik (hizkuntza-jokaerari buruzko uste, azalpen eta ideiak). Esan bezala, arrazoi desberdinak tarteko, pertsona askorendako nekeza da euskaraz jardutea, eta errazago zaie, joera narratzaile-arrazionalizatzaileak lagun, euren hizkuntza-jokaera justifikatzea edo azaltzea. Amaitzeko, diote aztertutako gogoetek erakusten dutela jarraitu beharreko bidea: euskararen erabilera zabaldu nahi bada, hobe litzatekeela hizkuntza-jokaeraren aldaketa bide soziologikotik bilatzea norbanakoen hautemate-eremua eraldatzearen bitartez egin beharrean (esaterako, Eusle metodologian proposatzen dutenaren gisako bidetik, jokabidea aldatzera behartuko duen elementua sartuta). Gainera, azpimarratzen dute disonantzia kognitiboaren teoriak zein Bruner nahiz Aronsonen ekarpenek erakusten digutela jatorrian ezohikoa den jokaera bat behin eta berriro burutzen dugunean, gutxieneko denbora tarte batez (egoera sozial jakin batek horretara bultzatuta), beharra sumatuko dugula hautemate-eremua jokabide berrira egokitze, disonantzia kognitibo deserosoari aurre egiteko (alegia, aldatu/moldatu egingo ditugula hasieran ezohiko jokabidearekiko genituen ideiak, portaera berrira egokitu daitezzen). Hortaz, oso litekeena da

euskarazko jokabide jarraitu batek sorraraztea jokaera hori justifikatuko duen pentsamendu-emozioak kideengan.

-Aurrekoetz gain, egileek azpimarra egiten diote **hizkuntza-harreman simetrikoetarako** dugun **joerari**. Hau da, solaskideek jo ohi dutela hizkuntza berean jardutera, adostasun, eta, ondorioz, erosotasun sentazioa sortzen baitigu horrek. Diote orekarako joeraren beste adibide bat dela. Harreman asimetrikoak (solaskide bakoitzak hizkuntza baten berba egitea), ostera, ezohikoak, deserosoak eta nekagarriak zaizkigu.

-Bestalde, *Aldahitz*-en egileek proposatzen dute **jardutearen atsegina** kontzeptua ere: zerbaitetan jardute hutsa izan daitekeela atsegin-iturri, alegia. Diote holako egoerei *jario-egoera* esaten diela Csikszentmihalyi-k: pertsonak, erronka bati ekinda, hautematen duenean jarduera egingarri eta eramangarri zaiola, zailtasunak ere badiren arren. Csikszentmihalyi-k azpimarratzen du jardun arrakastatsu eta jario-dunak ondorio emozional eta motibatzaileak dituela; halaber, hiru direla jario-egoeraren baldintza nagusiak: jarduerak helburu argia edukitzea; jarduera diharduenaren gaitasunen neurrikoa izatea; eta jarduleek lorpenei buruzko etengabeko feedback-a jasotzea (Jauregi eta Suberbiola, 2014). *Aldahitz*-en egileek, jario-egoerak adierazteko, **jardutearen atsegina** kontzeptua darabilte. Beraz, jardun ahala eta oztopoak gainditu ahala, atsegin sentazio elikagarria sortzen zaigu, eta horrek berak bultzatzen gaitu zereginean aurrera egitera.

-Aipatutakoarekin batera, **erabilera-balioa** kontzeptua ere badarabilte: “jardutearen edukiak –edo gaiak– jardulearen estimua irabazten du erabiliaren erabiliaz, eduki horrek praktikan funtzionaltasuna erakusten duelako” (Jauregi eta Suberbiola, 2014: 28). Gauzak horrela, diote erabilera-balioak indar motibatzaile handia duela, atxikimendu hori bihurtuko baita, azkenean, jokaeraren euskarri. Horrela, hizkuntza bati erabiltzeak ematen dio balioa. Euskaraz jokatzeko hasita, erabilera-balioa hazten joango da eta horrek berak elikatuko du euskarazko portaera.

Ohartarazten dute, azkenik, aldaketa prozesu arrakastatsu batek aipatutako bi indar motibatzaileak pizten dituela (Jauregi eta Suberbiola, 2014).

3.1.2.4. ESKU-HARTZE METODOLOGIAREN DISEINURAKO OINARRIAK

Aurretik azaldu ditugun mekanismoak gogoan hartuta, egileek ondoko oinarriak ezartzen dituzte

hizkuntza-jokabidea eraldatzeko esku-hartze metodologiaren diseinuan:

-Hizkuntza-jokaeran esku hartu (hots, alderdi faktikotik ekin).

Arestian agertu dugunez, esperientziaren helburua denez taldekideen jokabide-elkarrekintza eraldatzea (jendarte-eremu sistemikoa berregituratzea), eraginkorragotzat dute jokabidearen alderdian esku-hartzea (ikus disonantzia kognitiboari buruzko atala). Alderdi psikologikoan (hautemateak, motibazioak, iritziak, emozioak...), ostera, zuzenean ez dute esku hartzen. Edonola ere, zeharka, eragiten diote alderdi horri ere; izan ere, Jauregik eta Suberbiolak azpimarratzen dute, aurrerago ikusi dugunez, alderdi faktikoak (jokabideak) eta psikologikoak elkarri eusten diotela, eta eremu baten aldaketak ekarriko duela bestearen moldaketa, barne adostasuna berreskuratzeko.

Hortaz, egileek ohartarazten duten gisan, esperientzia plano soziologikoan kokatzen da, ez psikologikoan, eta, horretarako, mekanismo sozialak erabiltzen dituzte (Jauregi eta Suberbiola, 2014).

-Talde-mailan kokatua.

Hizkuntza-jokaeran esku-hartzeko bidea hartuta, ezinbestean, taldearen eremu sistemikoan kokatzen dute esperientzia; hain zuzen, talde naturalean (berezkoa) eta egoera errealean (laneko egoera erreala).

-Esperientzia burutzeko eskaria: ezinbestekotasun biguna.

Metodologia ezinbestekotasun bigunaren esparruan kokatzen dute egileek (ikus aurrerago esandakoa). Hau da, taldeari kanpotik eskaria egiten zaio ezohiko hizkuntza-jokabidea izateko jokatzeko, alegia. Horrela, erabakitzeko aukera emanda, taldearen oniritzia eta zilegitasuna lortu nahi dute kide batzuek (“eusleek”) euskara hutsez egin dezaten taldeko harreman guztietan. Hala ere, egileek azpimarratzen dute ez dugula ahaztu behar eskaera ez dela taldearen barrutik sortu (taldeak ez du sentitu beharrik ohiko jokabidea aldatzeko). Hala, ikertzaileen arabera, horixe da taldearen motibazio-mailaren gutxieneko ataria: aldeko motibazio nabarmenik ez izan arren, aurka egiteko arrazoi nahikorik ere ez izatea.

-Eusleen hizkuntza-jokaeraren ezaugarriak:

“Eusle” izendatzen dituzte euskarazko jokabideari beti eta iraunkorki eutsiko dioten taldekideak.

Horien jokaera berriaren ondorioz, gainerako kideek beharra sentituko dute euren jokabidea eusleenera egokitzeko (oreka edo kontsonantzia berreskuratzeko joeraren ondorioz). Ikertzaileen irudiko, eusleek honako hiru ezaugarriak izan beharko lituzkete, jokaeren berregituratzea benetan eragin ahal izateko:

- Euskarazko jardun ausarta edo zuzena. Esperientzia martxan ipintzen denetik aurrera, euskaraz jardungo du. Jauregik eta Suberbiolak nabarmentzen dute euskarazko jokaerak hizkuntzaren erabilera-balioa agerrarazten duela (hizkuntza baten balio nagusia), eta horrek bihurtzaren esanguratsura daramala eremu sistemikoa. Aurrekoarekin batera, hizkuntza-ohituren aldaketan inguruan egindako azterlanetan oinarrituta, diote hizkuntza-ohituren aldaketetan ia beti gertatzen dela inflexio puntu edo bihurtzaren bat (puntu bat, zeinetatik aurrera hizkuntza-jokabidea bat-batean aldatzen den erdaratik euskarara).
- Zalantzarik gabekoa (sendoa): euskaraz egingo du kide guztiekin eta beti; beraz, jokabide berria ez da zalantzakoa izango. Bestela, ez luke izango bilatzen den eraginik. Beti euskaraz jardun behar dutenez, ez dute erdarara egokitzeko aukerarik, praktikan; beraz, besteak egokitu beharko dira euren portaerara, eta elkarerraginean euskaraz erantzuteko beharra eta joera hautemango dute (kontsonantziaren bilaketan). Hala ere, *sendotasun malgua* izan beharko da, hainbat egoeratan beharrezkoa (baimentzen diote eusleari, lantzean behin eta salbuespen gisa, erdarara jotzea, zailtasun komunikatibo handi samarrak gainditzeko).
- Iraunkorra: beste kideen egokitzea eraginda, jokaera berriak gutxienezko iraupena izan beharko du, ohiko sentitzera hel daitezen, eta egonkortu dadin. Bestela esanda, sistema berregokitu eta ia-egonkortasun berria ezar dadin. Gainera, ikertzaileek erakusten dutenez, hizkuntzaren erabilera-balioak goia jotzen du iraunkortasunari esker. Helburua litzateke erabilera-balioa bihurtzea euskarazko jokabidearen sorburu; autoelikatze-dinamika litzateke, orduan, eta sortua legoke euskarazko ohitura, araua eta sistema. Bestalde, diote, egun dugun informazioarekin, ez dutela modurik esateko zein denbora-tarte zehatz behar den erabilera-balioa egonkortu, eta kideek berez euts diezaioten jokabide berriari.

-Prozedura demokratikoaren bitartez, talde-adostasunean oinarritua.

Aurrekoari lotuta, taldearen erabakian oinarritzen da esperientziaren abiatzea zein jarraipena (baita eusleen hautaketa, koordinatzaileena...). %75eko gehiengo kualifikatuaren baiezkoa ezartzen dute esperientzia abiatzeko nahiz jarraitzeko baldintzatzat. Bide horretatik, lortu nahi dute taldearen

zilegitasuna esperientzia burutzeko; baita erantzukizuna taldearena izan dadila ere (ikus aurrerago).

-Taldearen aurrean konpromisoa betetzeko “presioa”.

Gainera, taldeak hartutako erabakia izanik, kideek presioa sentituko dute emandako hitza betetzeko eta, taldearen aurrean, esperientzian engaiatu eta aurrera egiteko (areago, jakinda jarraipenen emaitzak talde osoari jakinarazten zaizkiola -esaterako, eusleen betetze-maila-).

-Zilegitasuna:

Ikertzaileen xedea da, aipatu bezala, taldeak zilegitasuna ematea esperientziari. Hori lortu nahian, prozedura demokratikoak baliatzeaz gain, diote tentuz zaintzekoa dela taldeari aurkezten zaion diskurtsoa. Bide horretan, ondoko elementu motibagarriak erabiltzen dituzte: eskaria egiten duen erakundearen prestigioa (unibertsitatea, ikerlana, Jaurilaritza, Soziolinguistika Klusterra, erakunde ezagunak atzean -Elhuyar, Emun, AEK...-); proiektu handi baten parte sentitzea (hainbat tokitan gauzatzen ari den esperientzia); erakundeko zuzendaritzak eskariari emandako oniritzia; epe laburreko eginkizun eramangarriak eskatzea; eta eusleen hizkuntza-jokaeraren zilegitasuna (taldeak eman dio oniritzia, eta, gainera, taldekide guztien artean aukeratuko dira eusleak). Elementu horiek lagundu egiten dute hala langileen baiezkoa, nola euskarazko jokaerari egokitzeko “presioa” (ez huts egin nahia).

-Eusleen jokabidea babestu; eguneroko errealitateko mekanismoak alderantzizko norabidean:

Eusle metodologiaren diseinuan, Jauregik eta Suberbiolak, nolabait, kokatzen dituzte eusleak gure eguneroko errealitatean erdaldun elebazarrek dutenaren antzeko posizioan. Horrela, espero dute horrek eragingo duela gainerako kideak, eurekin elkarrekintzan, euskarara egokitzea; izan ere, aurreikusten dute egunerokoan erdaldun elebazarren hizkuntzaren alde jokatzeko duten mekanismoek (alegia, egokitzeko aukerarik ez duenaren alde), oraingoan eusleen hizkuntzaren alde jokatu dutela. Ondoko mekanismoek, hain zuzen:

- **Erantzukizuna:** Jauregik eta Suberbiolak, aintzat hartuta Weiner-en egoztearen teoria, hipotesi gisa proposatzen dute pertsonak joera izango duela beste baten jokabidera egokitzeko, baldin eta: sumatzen badu jokabidea berarentzat onuragarria dela; bestearen asmoa ona edo neutroa dela; eta jokaeraren erantzukizuna besteari egotzen ez badio. Ez egokitzeko joera indartuko lukete, aldiz, kontrako pertzepzioek. Horiek horrela, ikertzaileek

berariaz diseinatu dute metodologia ekidin daitezten egokitzea oztopa lezaketen faktoreok: besteak beste, taldeak erabakiak hartzeko prozedura demokratikoak ezarrita, kendu egiten diete eusleei leukaketen erantzukizuna besteei sortuko dizkieten balizko eragozpenetan, erantzukizuna talde osoarena baita (bera hizkuntza-arauak behartzen du euskaraz egitera, ez du beste erremediorik).

Egileek, gainera, erreparatzen diote geure ardura ez onartzeko mekanismo psikologikorik hedatuenetako bati: geure jokaeraren arrazoiak egozteka kanpo-faktoreei edo barne-faktore objektibatuei (esaterako, ohiturari edo izaerari). Maturana aintzat hartuta, eransten dute mekanismo hori erabiltzen dela, sarritan, estaltzeko ez dela, benetan, jokabidea aldatu nahi (besteek errazago onartzen baitute “ezin dut” esatea, “ez dut nahi” baino). Horiek horrela, metodologian euslea kokatu dute “ezin dut” esateko posizioan, kanpoko faktore objektibo ugari ditu-eta eskura, jokabidea aldatu ezina justifikatu ahal izateko: taldeak erabaki izana esperientzia abiatzea, hizkuntza-araua bete beharra... Gainerako kideek, ostera, hizkuntza aukera dezaketenez, eusleen euskarazko jardunera egokitzen ez badira, zailago dute zergatia azaltzea, “ez dut nahi” esan barik. Errealitatean, erdaldun elebakarrak (edo euskaraz trakets moldatzen direnak) egon ohi dira “ezin dut” esateko egoera erosoan; eta elebidunak, erdarara egokitzen ez badira, zergatik ez duten nahi azaldu beharraren ataka zailean. Hortaz, ikertzaileen asmoa izan da mekanismoak alderantzizko norabidean eragin dezala.

- **Harreman simetrikotarako berezko joerak** bultzatuko ditu kideak eusleen hizkuntzara (euskarara) egokitzera, eusleek ezin baitute eurena aldatu.
- Eusleek ezarriko dute **arauzko aukera**, eta ikertzaileek espero dute gainerako kideentzat erosoena aukera horri egokitzea izatea (“eskatu ezean, arauzko aukera” mekanismoaren ondorioz).
- **Egokitzeko beharra** sumatuko dute, **disonantziaren deserosotasuna saihesteko**; eta, oraingoan, “uzleak” (gainerako kideak) dira disonantzia gutxitzeko aukera duten bakarrak.
- Erabilerak balioa emango dio euskarari (**erabilera-balioa**).
- Egileek adierazten dute, neurri txikian bada ere, irauli egiten dutela hizkuntzen arteko ohiko **botere-harremana**: leku hegemonikoan kokatzen dute hizkuntza gutxituaren hiztuna (euslea) eta ohi baino posizio ahulagoan hizkuntza nagusiarena (erdaraz egin ohi duena).

-Euskara-gaitasuna edo ezagutza:

Jauregik eta Suberbiolak agerian jartzen dutenez, beharrezkoa da taldekideek gutxieneko euskara-gaitasuna izatea, euskarazko jokabidera egokitu ahal izan daitezen. Hain zuzen ere, hauexek dira proposatzen dituzten gutxienekoak:

- Ezinbesteko baldintza da **kide guztiek euskara ulertzea**. Izan ere, jokaera-eskariaren muina da taldekide batzuek (“eusleek”) taldean euskara hutsez egitea, laneko egoera errealean. Beraz, horrela behar du izan, kideen arteko komunikazioa bideragarria izan dadin, gehiegizko ahaleginik egin behar izan barik. Ildo horretan, ikertzaileek ulermenerako gutxieneko ataria zehazten dute Rixon-en eskalako bigarren koskan (Jauregi eta Suberbiola, 2014).
- Horrez gain, beharrezkoa da **kide batzuk, gutxienez, gauza izatea erraztasunez berba egiteko**; hain zuzen, gutxienez, “eusle” rola beteko dutenek (ahalegina araua betetzen egin dezaten, ez, gainera, euskarazko adierazpide egokiak bilatzen).

-Diseinuaren sinpletasuna:

Metodologiaren diseinuan, Jauregik eta Suberbiolak izaera sinplearen alde egiten dute, bai esku-hartzean, bai metodologiaren gainerako ataletan (neurketa-sistemak, esperientzia abiatzeko eta jarraipena egiteko moduak, etab.). Aukera arrazoitzen dute esanez diseinu konplexuek arriskua dutela ahaleginak sakabanatzeko (bat datoz De Bonorekin, horretan). Diote, sarritan, ikuspuntu sistemikoa aintzat hartuta eta fenomeno baten osagai guztiei eragin nahian, aldagai nahiz tresna ugari dituzten diseinuak sortzen direla. Joera horren aurrean, hobesten dute diseinu sinpleagoa, zeinak egiturazko aldagai gutxi batzuei eragingo dien. Izan ere, ohartarazten dute, sistema baten aldagai batzuek beste batzuek baino eragin-indar handiagoa dutela eta egiturazko aldagai horietan esku hartuta, eragina beste aldagai batzuetara (edo sistema osora) ere zabalduko dela (Jauregi eta Suberbiola, 2014).

Bide beretik, hobetsi dute parte-hartzaileei nahiz arduradunei **ahalegin txikiena eskatuko dien diseinua** (ahalegin, denbora nahiz diru aldetik), gehienbat, nekea sorrarazteko arriskua txikiagoa duelako.

-Atsedena garrantzia:

Ikertzaileen iritzian, atsedena esperientziaren osagai funtsezkoa da, irizten baitiote esperientziak behar duela, aldi aktibo kontzientearekin batera, aldi pasibo oharkabea. Bere funtzioa litzateke

sistemari tartea ematea aldaketak barnertzeko eta horietara egokitzeko, oharkabeen. Atsedenerako tarterik ez lagatzeak, aldiz, indarrak hustea ekar lezake. Horregatik txertatu dute hiru hileko atsedenaldia.

3.1.3. METODOLOGIA

Aldahitz ikerketa 2014 dokumentuan, ematen zaigu egitasmoaren metodologiaren berri zehatza ere. Alde batetik, hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesua eragiteko xedez, esku-hartzea ezarri dute lan-munduko zenbait gunetan; horretarako, *Eusle* izeneko metodologia diseinatu eta erabili dute. Bestetik, interbentzioa ikerlan baten markoan kokatu denez, ikerketa gauzatzeko metodologia ere zehaztu dute. Metodologiaren atal biak xehe-xehe azalduta daude aipatu lanean. Hona bertan jasotako azalpen laburtua:

3.1.3.1. HELBURUA

Arduradunek xede izan dute langile-talde edo gune jakinetan, euskaraz gehiago egiteko aukera emango duen dinamika berri bat sortzea. Beren-beregi azpimarratzen dute aukerak sortu nahi dituztela; euskara gehiago erabiltzeko, sarri, gakoa datzalako aukera zehatz egokiak sortzean (asmo orokorra edukitzea ez da-eta nahikoa izaten) (Jauregi eta Suberbiola, 2014).

3.1.3.2. ESKU-HARTZE METODOLOGIA: EUSLE METODOLOGIA

Metodologian proposatu da langile-taldeko kide batzuek *eusle* izena eman zaion rol edo jokabidea betetzea hilabetez. Egileek, euslearen rola definitzeko, gogoan izan zituzten 2011ko *Aldahitz ikerketaren* ondorioak (ikus oinarri teorikoak); horrela, euslea litzateke euskarari eusten dion lankidearen hurbilpena, artifizialki sortua.

Hortaz, **eusleei** ondoko **hizkuntza-araua** ezarri zaie: beti egin behar diete euskaraz lan-gune horretako kideei, ahoz zein idatziz, bai zeregin formaletan bai informaletan. Oso argi zehaztu dituzte lan-gunearen mugak: lankideen zerrenda zehatza egin da argi adierazteko norekiko harremanetan dagoen indarrean araua. **Gainerako kideek**, aldiz, nahi duten hizkuntzan egin diezaiekete lankideei (eusleei barne); euren esku utzi da hori. Hala ere, arau bat ezarri zaie: ezin diete eusleei eskatu gaztelaniaz adierazteko euskaraz esan edo idatzitakoa; ondo ulertu ez badute, eska diezaiekete esan-idatzitakoa berriro edo bestela azal diezaietela, baina ez gaztelaniaz.

Eusleen hautaketa eta baldintzak:

Lankide guztien artean aukeratu dira eusle jardungo zuten lagunak, bakoitzak proposatuta egoki irizten zien lankideen izenak. Baldintza bi ezarri dira aukeraketarako: lehenengoa, proposatutako kideek euskaraz erraz samar egiteko gaitasuna izatea (egileen iritzian, gaitasun mugatua dutenei eusle izateko eskatzea gehiegizkoa bailitzateke -ikus 3.1.2.4. atala-). Bigarren baldintza izan da hautatutako lankideak ezin zuela izan esperientziaren kontrako jarrera espliziturik; hori dela eta, bere oniritzia ere eskatu da.

Eusle kopurua guneko langile-kopuruaren **%20 ingurukoa** izan da (betiere, **gutxienez bi**). Eusle jardunaren **iraupenari** dagokionez, hilabeterako izendatu dira; ondoren, eusleen bigarren txanda bat aukeratu da bigarren hilabeterako.

3.1.3.3. IRAUPENA ETA DENBORA-ANTOLAKETA

-Esku-hartzea (eusleen jokabidea indarrean izan den epea): esku-hartzeak **zortzi asteko** iraupena izan du. Epearen erdian, lau asteren buruan, aldatu egin dira eusleak (lehen txandako prozedura eta irizpide berberei jarraituz). **Astero**, esku-hartzeak iraun duen bitartean, **jarraipen-galdetegiak** bete dituzte lankide guztiek, eusleen jokaera ebaluatzeko, eta esperientziarekin jarraitzea berresteko.

-Atsedenaldia: zortzi asteak pasatuta, amaitutzat eman da esperientzia eta hasiera eman zaio **12 asteko** “atsedenaldia” esan diotenari. Atsedeen-sasoi horretan ez da esku-hartzerik izan (ez euslerik -era antolatuan, behintzat-, ez eta galdetegirik edo jarraipenik ere).

3.1.3.4. ESPERIENTZIA BURUTZEKO BALDINTZAK

Ikertzaileek ondoko baldintzak jo dituzte bete beharreko gutxienezkotzat, esperientziok abiatu ahal izateko:

-Gutxieneko euskara-gaitasuna: ulermena denek

Esperientziak abiatzeko baldintzetako bat izan da sail horietako lankide guztiak, gutxienez, euskara “nahiko ongi” ulertzeko gai izatea (gutxienez, ulertzeko gauza izatea ahozko elkarrizketa arrunt bat edo idatzizko testu erraz bat). Egileek ohartarazten dute ezinbesteko baldintza zela metodologia bideragarri izango bazen (ikus 3.1.2.4. atala). Beraz, esperientzia abiatzeko lan-sail egokiak aukeratu aurretik jaso da informazio hori, guneen lokalizazio-prozesuan.

-Borondatezkoa

Langileek borondatez parte hartu dute egitasmoan. Soziolinguistika Klusterrak gonbitea eginda, eta lan-guneotako arduradunek oniritzia eman ondoren, langileek erabaki dute, bilera batean, era kolektiboan, esperientzia abiatzea. Gainera, astero-astero berretsi dute aurrera jarraitzea. Esku-hartzea abiatzeko zein aurrera segitzeko, gutxieneko baldintza izan da guneko langileen %75en baiezkora lortzea. Egileek nabarmentzen dute langileen erabaki kolektiboa oinarri izateak eman dizkiola esperientziari zilegitasuna eta zentzua (ikus 3.1.2.4. atala).

3.1.3.5. TREBAKUNTZA-SAIORIK EZ

Jauregik eta Suberbiolak esplizituki adierazten dute hautu kontzientea izan dela trebakuntza-saio, ikastaro edo antzekorik ez antolatzea. Hain zuzen, esperientziaren sinpletasunaren mesedetan hartu dute erabakia, parte-hartzaileek arreta eta indarra jokabide-aldaketari bakarrik eskaini beharra izan dezaten.

3.1.3.6. JARRAIPEN-BERRESPEN SISTEMA

Esan bezala, diseinatu dute esperientziaren jarraipen eta berrespenerako sistema ere. Horrela, **astero**, esku-hartzeak iraun duen zortzi asteetan, **jarraipen-galdetegiak** bete dituzte lankide guztiek. Bi galdera egin zaizkie galdetegi labur horietan: batetik, eusleek bete ote duten zegokien hizkuntza-araua aste horretan; bestetik, esperientziarekin beste astebetetz jarraitu nahi duten ala ez. Ikertzaileek, erantzun guztiak jasota, emaitza orokorra kalkulatu dute eta lankide guztiei helarazi zaie. Aurrera jarraitu ahal izateko baldintza izan da, astero, %75etik gorakoak izatea aurrera jarraitzearen aldekoak (horixe gertatu da zazpi guneeetan).

Eusleen betetze-mailari dagokionez, ez zuten aurrez baldintzarik ezarri, baina, diotenez, helburuak beharrezko egiten zuen altua izatea (%80 edo 85etik gorakoak); baxuagoak izan direnetan, harremanetan jarri dira koordinatzaileekin, zailtasunen berri izan eta hobetze bideak proposatzeko.

3.1.3.7. GUNEEN HAUTAKETA ETA ESPERIENZIEN ABIATZEA

Metodologia definitu ostean, egokiak izan zitezkeen guneen aurre-lokalizazioa egin zen: partaide izan diren erakundeetako profesionalen laguntzaz, begiz jo ziren hainbat lan-gune, esperientzia garatzeko baldintzak bete eta interesa izan zezaketenak. Besteak beste, bi ezaugarri bete behar

zituzten: 8 eta 30 lankide artekoak izatea eta lankide guztiak gauza izatea euskara ulertzeko. Aurrehautatutakoen artean egokitasun-hurrenkera ezarrita, arduradunak harremanetan jarri ziren zerrendatuekin. Lehenengo, eskatu zen lantegietako arduradunen oniritzia; gero, langileen gehiengo kualifikatuaren (%75en) adostasuna (langileen erantzunak isilpean jaso ziren, bilera baten informazioa eman eta zalantzak argitu ondoren).

3.1.3.8. DATUEN NEURKETA

3.1.3.8.1. Hizkuntza-erabileraren neurketak

-NEURKETA-UNEAK:

3 unetan egin dira lankideen arteko hizkuntza-erabileraren neurketak: lehenengoa, esperientzia hasi aurretik; bigarrena, bi hileko esku-hartzea amaitu bezain laster; hirugarrena, esku-hartzea amaitu eta hiru hilabetera (atsedenaldiaren ostean).

-NEURKETA-MODUA ETA TRESNAK:

Ondoko lerroetara ekarriko ditugu egitasmoan baliatu dituztenak eta hautu horien zioak:

-Erabilera aitortua eta gurutzatua:

Neurketarako erabili da langileek galdetegietan aitortutako erabilera, modu gurutzatuan jaso. Hau da, langile bakoitzari galdetu zaizkio kide bakoitzari buruzko bi datu: “nik berari” (zein hizkuntzatan egin diot) eta “berak niri” (zein hizkuntzatan egin dit). Egileek argitzen dute horrela jasotzeak aukera ematen duela datuak gurutzatzeko (Jauregi eta Suberbiola, 2014); hots, bi lankideren arteko harreman bakoitzerako bi ikuspegi (lankide bakoitzarena) eta lau datu lortzen dira: nola egiten dion Ak Bri, bi datutan (Ak aitortua eta Bk aitortua), eta nola egiten dion Bk Ari, beste bitan (Ak aitortua eta Bk aitortua). Hartara, aukera dago datuok azterketatik kanpo uzteko, baldin eta euren artean desberdintasun handia badago (berdintsuak behar lukete-eta). Egileek diote, nolana ere, koherentzia altua izan dela datuen artean.

Hauek dira, argitzen dutenez, neurketa-modu horren alde egin izanaren arrazoi nagusiak (Jauregi eta Suberbiola, 2014): konfiantza giroaren alde egitea; sinpletasuna (ohartarazten dute galdetegi bidez neurtzea sinpleagoa dela behaketa bidez baino); lehenetasuna ez dela zehatz-mehatz ezagutzea zein den euskararen erabilera erreal, baizik eta bilakaera (emaitzak erabilera errealaren hurbilpena izango dira, baina datuak hiru uneetan berdin neurtu direnez, gogorarazten digute alderaketak esanguratsuak direla).

-Bost mailako eskala: euskara hutsetik gaztelania hutsera:

Aitortutako hizkuntza-erabilerak neurtu dira bost mailako eskala baten: “Beti edo ia beti euskaraz” muturretik “Beti edo ia beti gaztelaniaz” muturrera.

-Ahozko hizkuntza-erabilera neurtu da:

Aldahitz proiektuaren helburua izan da lankideen artean “euskaraz gehiago egitea” harreman mota guztietan (ahozko informal nahiz formalak eta idatzizko informal nahiz formalak). Erabilera neurtzean, aldiz, egoera zehatzei erreparatzea ebatzi dute, eta, bide horretan, lehenetsi dute ahozko harremana neurtzea (formala zein informala).

-Galdetegirako denbora-erreferentzia zehatza: aurreko astea

Langileei galdetu zaie “pasa den astean” izandako erabileraz. Ikertzaileek diote helburua izan dela jasotako datuek momentu zehatz bateko hizkuntza-erabilera islatzea.

-Neurketarako taldekatzea (biko harremanak) eta datuen kalkulua:

Azterlanean gogorarazten zaigunez, taldekatzeari dagokionez ere ugariak izan daitezke pertsonen arteko hizketaldiak: binakakoak, hirunakakoak, lauakoak, talde handian gertatzen direnak... Gainera, taldekatze egoera aldakorra izaten da: biren arteko elkarriketara batu litezke beste bi; gero, bat joanda, hiru gelditu, eta abar. Horiek horrela, egileen hautua izan da azterketarako unitatea izatea lankide “bikote” bakoitzaren harremana (Jauregi eta Suberbiola, 2014).

Horrela, hizkuntza-erabilerari buruzko **bi datu** sortu dituzte: **langile bakoitzaren hizkuntza-erabilera eta langile-bikote bakoitzaren hizkuntza-erabilera**. Lehenengoa kalkulatzeko (adibidez, A langilearena), erabili dira gainerako lankide guztiek aitortutako datuak; lankide bakoitzak “berak niri” atalean A lankideari buruz aitortu duen datua hartu, eta guztien batez bestekoa kalkulatu. Bestalde, A eta B lankideek osaturiko “bikotearen” erabilera kalkulatzeko, lau datu erabili dituzte: bi lankideek harreman horri buruz bi norabideetan aitortutakoak (horien arteko batez bestekoa egin da).

Egileek ohartarazten duten gisan, neurketarako taldekatzea oso aintzat hartzekoa da datuak interpretatzeko orduan. Izan ere, hainbat egilek azpimarratu duten moduan, euskaraz egiteko

probabilitaterik handiena binakako harremanetan gertatzen da (Jauregi eta Suberbiola, 2014).

-Neurketarako galdetegia:

Ondoko galdetegia (“Mintzagrama” izenekoa) bete dute langileek, neurketaren hiru uneetan (Jauregi eta Suberbiola, 2014: 72):

MINTZAGRAMA:

Zure izena:.....

Erantzun ondorengo galderari:

“Azken aste honetan, zenbat denbora eman dut hitz egiten nik lankide honekin? [Nik berari] Eta berak nirekin?” [Berak niri]

Denbora horiek kontuan hartuta idatzi taulan ondorengo eskalan kasu bakoitzari gehien hurbiltzen zaion zenbakia. Nola izan da harremana?

- 1) Beti edo ia beti gaztelaniaz
- 2) Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago
- 3) Bietan berdin
- 4) Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago
- 5) Beti edo ia beti euskaraz

Izenak	Nik berari	Berak niri
Lankidea 1 (izen-abizenak)		
Lankidea 2		
Lankidea 3		
Lankidea 4		
...		
(esperientzian parte hartu duten lankide guztien izenak)		

3.1.3.8.2. Bestelako datuen neurketa

Bigarren neurketako mintzagraman, beste bi atal erantsi dizkiote galdetegiari: batetik, galdetu zaie lankideen arteko harremanaren maiztasunaz; bestetik, esperientziaren balorazio kualitatiboa eskatu zaie. Harremanen maiztasunari buruzko erantzunak erabili dituzte aztertzeko aldagai horrek eraginik izan ote duen hizkuntza-jokabide aldaketan.

3.1.4. EMAITZAK ETA IKERTZAILEEN IRAKURKETA

Ikertzaileek xehe-xehe aletzen dituzte eskuratutako datuak *Aldahitz ikerketa 2014* lanean. Gainera, datuon azterketa sakona egiten dute **aldagai desberdinen arabera**.

Neurketa-une desberdinetan lortutako emaitzei dagokienez, lehenik eta behin, abiapuntuko egoera erakusten dute, eta, ondoren, esperientziaren ondorioz izandako hizkuntza-jokabideen aldaketak. Batetik, bi hileko esku-hartzearen eraginez izandako bilakabidea (epe horren amaieran egindako neurketaren emaitzek erakutsia); bestetik, hiru hileko “atsedenaldiaren” ostean zein hizkuntza-jokabide duten bikoteek, eta eusten ote zaion esku-hartzearen ondorioz lortutakoari.

3.1.4.1. DATUEN AZTERKETARAKO ALDAGAIK

Esan bezala, datuak hainbat aldagairen arabera xehatu dituzte:

-Emaitzak norbanakoen zein bikoteen datuak oinarri hartuta: emaitzak ematen dituzte norbanakoen datuak zein bikoteenak oinarri hartuta (gogoan izan beharra dago hizkuntza-erabilerari buruzko **bi datu** sortu dituztela; ikus 3.1.3.8.1. atala).

-Azter-unibertso osoa eta xede-taldea: 78 lagunek osatutako 417 bikote neurtu dira denera (**bikoteen azter-unibertso osoa**). Horietatik, %42,9k “beti edo ia beti euskaraz” egiten zutela aitortu dute abiapuntuko neurketan. Hortaz, bikote horiek bazuten lehendik ere euskaraz egiteko ohitura. Orduan, egileek ohartarazten duten moduan, esan liteke azter-unibertsoaren **gainerako %57,1 izan dela xede-talde nagusia** (237 bikote); hau da, esperientziaren eraginkortasuna erakutsiko duena bikote horien hizkuntza-bilakaera izango da (eurak dira-eta euskararen erabileran aurrerapausoak emateko tartearekin abiatu direnak). Beraz, aletu dituzte azter-unibertso osoan izandako emaitzak nahiz xede-taldean izandakoak.

-Abiapuntuko hizkuntza-egoeraren (hizkuntza-kategoriaren) arabera: aztertu dute abiapuntuan zuten euskararen erabilera-mailak loturarik izan duen lortutako emaitzekin.

-Bikote-tipologiaren arabera: datuak xehe aztertzeke helburuz, bikoteen tipologiak edo kategoriak sailkatu dituzte, horretarako, faktore bi aintzat hartuz: lehenengoa, kideak eusle izan diren (E) ala ez

(A); bigarrena, kideek lantokian ordurako norbaitekin euskaraz aritzeko ohiturarik zuten ala ez (ikertzaileek pentsatu baitzuten ohitura hori duenak errazago egingo duela bidea beste lankide batekin ohitura erdaratik euskarara aldatzeko). Bigarren faktorea ondoko zenbakiekin adierazi dute: 5 (egiten du “beti edo ia beti euskaraz” baten batekin, abiapuntuan); eta 0 (ez du inorekin “beti edo ia beti euskaraz” egiten, abiapuntuan).

-Lankideen arteko harremanen maiztasunak emaitzetan duen eragina.

-Eusle jardun izanak eraginik izan duen hizkuntza-ohituraren aldaketan.

-Eusleen betetze-maila: begiratu diote eusleei zegokien hizkuntza-arauaren betetze mailari eta emaitzetan izan duen eraginari ere.

-Eusleen tipologia: erreparatu diote eusle hautatutakoen tipologiari ere.

3.1.4.2. EMAITZA NAGUSIAK

Emaitzek erakusten dute Eusle metodologiak baduela gaitasuna hizkuntza-jokabide eta ohiturak neurri esanguratsuan aldatzeko euskararen aldera. Horrekin batera, ematen dute beste hainbat ondorioz iristeko bidea ere. Eta, ondorio guztien kasuan, datu-sorta zehatz eta zabala eskaintzen dute ikertzaileek. Geure aldetik, egitasmoaren deskribapen honetara, emaitzen zertzelada nagusiak eta ondorioak besterik ez ditugu ekarriko (ikuspegi orokorra hartzeko baliagarri izan litezkeenak). Azpimarra dezagun, aurkezpen deskriptibo honetako aurreko ataletan bezala, datuekin batera agertzen ditugun irakurketak Pello Jauregik eta Pablo Suberbiolak proposatutakoak direla.

3.1.4.2.1. Erabileraren bilakaeraren datuak:

Kideen banakako datuetan oinarrituta, **azter-unibertso osoaren datuek** erakusten dute **%18,5 hazi** dela euskararen erabilera binakako harremanetan, bi hileko **esku-hartzearen ondorioz**. Atsedean garaian, %7,2ko jaitsiera izan da. Alabaina, **egitasmo osoko azken balantzea** (lehenengo neurketatik azkenengora -atseden ostekora-) positiboa da: **%11,3ko igoera**.

Xede-taldeari soilik erreparatuta, **nabarmenagoak dira igoerak**. Ikertzaileek kalkulatu dute zenbateko aldea dagoen azpitaldearen hasierako hizkuntza erabileraren eta eskalako mailarik

altuenaren (bikotekideek elkarrekin “beti edo ia beti euskaraz” egitea) artean; alde horri **“hobetzeko tartea”** esan diote (40,6 puntukoa zen, hasieran). Gero, hobetzeko tartearekiko kalkulatu dute zenbat egin duten aurrera erabileran: hobe zezaketenaren ia erdia (**%45,8**) hobetu dute bi hilabeteko esku-hartzearen ondoren; **atsedenaldia pasatu osteko emaitzari** erreparatuta, hobe zezaketenaren **%27,8**.

Bestalde, bikoteen datuek erakusten dute **xede-taldeko bikote guztien %21,5ek lortu eta finkatu** dutela euskarazko ohitura berria (hau da, lortu bi hileko esku-hartzean eta eutsi hiru hileko atsedenaldiaren ostean); **%16,9k lortu eta galdu** egin dute (lortu eta ez eutsi); eta **%61,6k ez** dute lortu. Edonola ere, ohitura lortu ez dutenek zein lortu eta galdu dutenek, aurrerapena izan dute euskararen erabilera-mailan (xede-taldeko bikoteen %78,5ek aurrerapen esanguratsua egin dute esku-hartzearen ondoren, eta %63k egin dute gora erabilera-mailan lehenengo neurketatik hirugarrenera).

3.1.4.2.2. Gainerako aldagaien arabera emaitzak:

Batetik, ikusi dute **lortutako emaitzak desberdinak izan direla abiapuntuko euskara erabilera-mailaren arabera**. Zenbat eta altuagoa abiapuntuan, handiagoa lortutako erabilera-maila. Adibidez, xede-taldearen barruan, euskarazko ohitura lortu eta finkatu dutenetatik, %82,3 “euskaraz gaztelaniaz baino gehiago” erabilera-maila edo kategoriatik zetozen (gertuenekoa). Zenbat eta urrunago abiatu kategorია gorenetik, orduan eta gutxiago heldu dira bertara.

Bestetik, erakutsi dute **lortutako emaitzek lotura zuzena** dutela **bikote-tipologiekin**. Esaterako, euskarazko ohitura lortu eta finkatu (atsedenaldiaren ostean eutsi) duten gehienek aurretik ere bazuten beste lankideren bat(zu)ekin ohitura finkatua. Aurretiko ohitura zutenen presentzia gutxitu ahala, emaitza kaskarragoak lortu dira (berdin gertatzen da eusleen agerpena gutxitu ahala). Gainera, ikusi dute nahikoa izan dela eusle baten presentzia (bikoteetan) ohitura aldaketa eragiteko. Agerian jarri dute, aurrekoek gain, eusle bakarra izan duten bikoteek hizkuntza-aldaketa txikiagoa, baina egonkorragoa burutu dutela, bi eusle izan dituztenen aldean. Azkenik, E5-A0 tipologiako bikoteetatik (hots, euskarazko ohitura duen eusle batek eta ohiturarik ez duen uzle batek osatutakoetatik), %14,3k lortu eta finkatu dutela euskarazko ohitura. Kasu horiek azpimarratu dituzte, hain zuzen ere, 2011ko *Aldahitz ikerketan* aztertu zituzten bikote-motak direlako.

Halaber, ondorioztatu dute **esperientziak ahalmena izan duela bi koskatako hizkuntza aldaketak sorrarazteko** (hizkuntza-kategorian bi koska gora; aldaketa handiak, hortaz); **baina ez** aldaketa handi horiek atsedenaldi epean **iraunarazteko**. **Aldaketa txikiagoak eragin direnean (koska batekoak)**, ordea, oro har, **eutsi egin zaie**.

Harremanaren maiztasunari dagokionez, ikusi dute ez diola bereziki eragin hizkuntza-bilakaerari.

Eusleen emaitzei erreparatuta, erakutsi dute **eusleen eta ez-eusleen** multzoek antzeko hizkuntza ezaugarriak izan dituztela: esku-hartzearen bi hilabeteetan, antzeko aurrerapena izan dute eusleek (%18,6) zein besteek (%17); atsedean garaian, ostera, gehixeago jaitsi da eusle izandakoen erabilera-maila kide arruntena baino, desberdintasuna oso handia izan ez bada ere (5 puntu).

Eusleen betetze-mailari dagokionez, ikusi dute %48,5ek %90-%100 bitarteko betetze-maila izan duela eta %45,5ek %70-%89 bitartekoa. Bi multzo horien hizkuntza bilakaera aztertzean, baina, ez dute desberdintasun esanguratsurik igarri bien artean. Beraz, ondorioztatzen dute %70-%89 bitarteko betetze-mailak ere sortu duela ohitura finkatzeko adinako eragina.

3.1.5. IKERTZAILEEK PROPOSATUTAKO ONDORIOAK

Hona ikerketaren egileek, emaitzak aztertuta, nabarmendu dituzten ondorioak, laburbilduta (Jauregi eta Suberbiola, 2014):

-Bi hileko esku-hartzearen eragina: ondorioztatzen dute Eusle metodologiak badaukala ahalmena hizkuntza-ohiturak aldarazi eta euskararen erabilera areagotzeko. Izan ere, euskararen erabilera hobetzeko aukera zuten bikote gehienek hobetu dute (xede-taldeko bikoteen %78,5ek aurrerapen esanguratsua egin dute). Eraginkortasunari dagokionez, azpimarratzen dute erabilera %18,5 hazi dela bi hilabeteetan, azter-unibertso osoan. Xede-taldean, hobe zitekeenaren %45,8 (ia erdia) egin du aurrera.

Bestalde, ondorioztatzen dute euskarazko ohitura sortzeko bi hilabete nahikoa izan daitezkeela, baldin eta lehendik norbaitekin euskaraz egiteko ohitura bazuten; ez, ordea, ohitura hori ez bazuten.

-Zenbat finkatzen da esperientzia amaitu ondoren: ondorioztatzen dute %11,3ko aurrerapena

dela finkatutakoa, azter-unibertso osoari erreparatuta. Galera handiena izan dute, hain zuzen, esperientzian zehar gehien aurreratutako bikoteek. Diote birpentsatu beharko direla esku-hartzearen iraupena nahiz dosifikazioa holako bikoteen emaitzak hobetu ahal izateko.

-Esku-hartzearen bitartez, posible izan da euskarazko ohituradun bikoteak sorraraztea, era “artifizialean”. Esaterako, 2011ko *Aldahitz* ikerketan aztertu zen bikote-mota: kide bat euskalduna, euskaraz egiteko joera duena, eta bestea ikas-prozesuan diharduena. Horrelako 49 bikote ziren; horietatik, %14,3k lortu eta finkatu dute euskarazko ohitura, eta beste %14,3k lortu eta galdu egin dute. Halaber, bestelako bikote mota batzuk ere bultzatu dira euskara hutsez jardutera: xede-taldean, %21,5ek lortu du euskarazko ohitura finkatzea; %16,9k, aldiz, lortu, eta gero atzera egin dute.

-Eusleen ezaugarriak: ikusi dute eusleen ezaugarriak eta beste kideenak antzekoak izan direla. Batetik, **eusleek ez dute hizkuntza-jokaera aldatu besteek baino gehiago.** Horrela, egileek azpimarratzen dute datuek berretsi egin dutela marko teorikoan aipatutakoa: hizkuntza-jokaera zeregin kolektiboa da eta kide aktibo baten jokaerak zeharo eragiten die pasiboenari. Bestalde, egileen irudiko, kide arrunten rol pasiboa erosoagoa izan da eusleena baino. Egokiera aproposa iruditzen zaie hizkuntza-jokabidea ia oharkabean barneratzeko. Bestetik, **datuek erakutsi dute eusle izateko ez dituztela, bereziki, betiko euskaltzaleak hautatu.**

-Eusle-jokaera neurrikoa izan da eta ez da oztopo izan lanerako: uste dute horixe izan dela irakaspenik handienetakoa protagonistentzat; konturatzea euskara hutsez jarduteak ez diola oztoporik eragiten lanari. Ondorioztatu dute, alde batetik, ez dela gehiegizkoa izan eusleei eskaturiko hizkuntza-araua, betetze-mailak nahiko altuak izan direnez (ikus emaitzak). Halaber, diote egitasmoak ez zuela aurrera egingo ahalegin handiegia eskatu izan balie (aukera baitzuten bertan behera lagatzeko, asteroko berrespenaren bitartez). Eta, bestetik, metodologia ez dela oztopo izan eguneroko lanerako; astero jarraitzea berretsi izanak adieraziko luke (zeharka bada ere) ez diela traba handirik eragin. Bestelako bideetatik ere (langile, lantokietako arduradun zein euskara teknikariek izandako bilera edo harremanak), ez dute kexarik jaso eta iruzkinek lanarekiko bateragarritasuna adierazi dute.

-Onuragarria izan da eusle metodologiaren egitura sinplea izatea. Egileek diote protagonista gehienek aipatu dutela sinpletasuna metodologiaren balio handienetakotzat. Uste dute funtsezkoa

izan dela egitasmoari baiezkoa emateko, gogoia pizteko, egitekoak argi ulertzeko eta hizkuntza-jokaeraren muinari heltzeko, distrakziorik gabe; azken baten, metodologia eguneroko jardun arruntean kokatzeko.

3.2. EGIN SALTO! HIZKUNTZA PORTAERAK ALDATZEKO INTERBENTZIOA (EMUN AHOLKULARITZA)

3.2.1. INFORMAZIO OROKORRA

Egin salto! Emun aholkularitzak diseinatutako esku-hartzea da. Prestaketa lanak 2012an hasi zituzten, oinarri hartuta Soziolinguistika Klusterrak burututako ikerlan bi: *Aldahitz* eta *Bikoteen artean hizkuntza ohituren aldaketa: ikerketa-lana*.

Egitasmoaren inguruko hainbat informazio plazaratu dute arduradunek, bai Emunen webguneko [Lantalan blogean](#), bai Interneten eskuragarri dagoen [aurkezpen bideoan](#) (IMHren 30+10 mintegiaren 10. edizioan egindako aurkezpenaren bideoa). Horiexek izan ditugu lan honetarako informazio-iturri, baita Emuneko kideek, gure galderari erantzunez, emandako beste hainbat datu ere.

Proiektuaren abiapuntua izan zen, batetik, lantokietan euskararen erabilera handitzeko esku-hartze baten beharra. Eta, bestetik, Emuneko kideek uztartu nahi zituztela euskararen ikasketa-prozesua eta eguneroko erabilera, ikusten baitzuten (urtetako esperientziak nahiz aipatutako bi ikerketen ondorioek erakutsita), prozesu biak zeharo lotuta daudela eta eraginkorrena dela erabiliz ikastea (finean, erabilera eta ikasketa batera joatea).

Abiatu zenetik, hainbat erakundetan ezarri da, hala nola, HAZIko Kalitatea Fundazioan, IK4-TEKNIKER-en, Erroak-en, Tolosako Udaltzainetan, Sopolako Udalean, Clece-Zaintzen-en eta abar.

Hurrengo lerroetan azalduko ditugu, bada, egitasmoaren edukiak, atalez atal. Gogoan izan eduki guztiak (datuak zein gogoeta edo interpretazioak...) egitasmoaren arduradunek proposatutakoak direla (Emunen webguneko [Lantalan blogean](#) nahiz [aurkezpen bideoan](#)).

3.2.2. OINARRI TEORIKOA

Esan bezala, egitasmoa diseinatzeko, oinarri hartu zituzten Soziolinguistika Klusterrak burututako

bi ikerketa hauek: *Aldahitz* ikerketa eta *Bikoteen artean hizkuntza ohituren aldaketa: ikerketa-lana*. Horrela, proiektuaren marko teorikoa dira ikerlan horietan proposatzen diren oinarri teorikoak zein ondorioak. *Egin Salto!*-ren arduradunen asmoa izan da, ikerlan horien irakaspenetatik abiatuta, esperientzia zehatzak martxan jartzea eta probatzea.

Ez ditugu hona ekarriko aipatutako proposamen teorikoen xehetasunak. *Aldahitz ikerketa 2014*rena lan honetan bertan dago azalduta, egitasmo horren aurkezpenean. *Bikoteen artean hizkuntza-ohituren aldaketa: ikerketa-lana* zein 2011ko *Aldahitz ikerketa* erabilgarri daude Soziolinguistika Klusterraren webgunean; gehiago ezagutu nahi lukeenak bertara jo dezake.

3.2.3. METODOLOGIA

3.2.3.1 HELBURUAK

Elkarri lotutako helburu nagusi bi ditu egitasmoak. Batetik, euskara-gaitasun mugatua duten pertsonak euskara erabiltzea eguneroko lan-egoeran (saltoa ematea eguneroko erabilera errealerara; hortik egitasmoaren izena). Horretarako, bikoteetan antolatzen dituzte euskaraz jarduteko ohitura duten kideekin, ikasketa-prozesuan dihardutenei euskaraz aritzeko gune “lagundua” eskainita. Aurrekoari lotuta, bigarren xedea litzateke lankide-bikote horiek euskarazko ohiturara ekartzea. Bi horiekin batera, zeharkako helburua litzateke, halaber, bikoteetatik harago zabaltzea esku-hartzearen eragina zein euskararen aldeko giroa.

3.2.3.2. ESKU-HARTZERAKO METODOLOGIA: BIKOTEEN OSAKETA, HIZKUNTZA-ARAU ETA TREBAKUNTZA-SAIOAK

Bikoteen osaketa: “laguntzailea” eta “lagundua”

Esan bezala, bikoteak osatzen dira ondoko lankideekin (gehienetan, bikoteak; hala ere, kasu batzuetan hirukoteak izan dira): “laguntzailea” (euskaraz jarduteko ohitura duen kidea) eta “lagundua” (ulertzeko gauza da; berba egiteko ere bai -mugatuta bada ere-, baina ez du ohiturarik edota jarioasunez jarduteko gaitasunik, arrazoiak arrazoi).

Esku-hartzearen proposamenaren arabera, beharrezkoa da “laguntzaile” eta “lagunduaren” artean konfiantzazko harremana egotea³, hizkuntza-ohituretan salto hori emateko, elkarri lagundu behar

3 2011ko *Aldahitz ikerketan*, Jauregik eta Suberbiolak ondorioztatu zuten, hizkuntza-ohitura aldaketa egin duten euskaldun-“euskaldungai” bikoteetan, funtsezkoa dela kideek elkarrekiko konfiantza-giroa izatea (Soziolinguistika Klusterra, 2011b).

baitiote. Ikusi dute dinamikak hobeto funtzionatzen duela horrela. Ildo horretan, saihestu egiten dituzte harreman hierarkikoa duten pertsonen artean osatzea.

Argitara emandako informazioan, esperientzia jakin baten berri ematen dute (HAZIko Kalitatea Fundaziokoa). Ez dakigu beti antzera jokatzen den, baina kasu horretan, behintzat, sei bikote osatu ziren. Sei “lagunduak” mintza-taldeko kide ziren lehendik, hainbat urtez mintza-saioetan ibilitakoak, baina ez zuten euskaraz egiten euren departamentuan. Denak ziren, ordea, euskara ulertzeko gauza, baita hitz egiteko ere.

Hizkuntza-araua bikotean

Metodologiak hizkuntza-araua ezartzen dio bikoteari: “laguntzaileak” beti egin behar dio euskaraz “lagunduari”, harreman formal zein informaletan; pertsona jakin horrekin (“lagunduarekin”) bakarrik dauka arauari eusteko betebeharra. “Lagunduari” ez zaio holakorik eskatzen; ahal edo nahi duen hizkuntzan egingo dio “laguntzaileari”.

Proposatzen dute esku-hartzearen oinarria bikotea izatea, egingarriago baiteritzote hizkuntza-ohituren aldaketa, lehenengo urrats batean, bikotean burutzeari⁴. Uste dute helburu ipintzen bada, esaterako, “lagunduak” aldaketa egitea, hasieratik, departamentu osoarekin, ezintasuna eta estresa sor liezaiokeela, eta, ondorioz, ahaleginean etsitzea. Beraz, hizkuntza-gaitasun mugatu samarra eta ohiturarik ez duenaren hizkuntza-ohiturak aldatzeko, egingarriena aldakuntza mailakatua delakoan daude: lehenengo pertsona batekin aldatu eta, ondoren, gainerakoekin.

Harremanen maiztasuna

Bikoteak osatzerakoan, arduradunek hobesten dute bikotekideen arteko harremana sarria izatea, maiztasun handikoa, eta ez noizean behingoa⁵.

Hizkuntza-ohiturak aldatzeko trebakuntza psikolinguistikoa

Hizkuntza-ohituraren aldaketa bidean laguntzeko xedez, trebakuntza psikolinguistikoa ematen diete parte-hartzaileei. Hain zuzen, bost saiotan, lantzen dituzte partaideen emozioak, sentipenak eta

4 2011ko *Aldahitz ikerketan* ondorioztatu zuten “euskaldungaiak” (ikasketa prozesuan ari zirenek), kasu gehienetan, kide bakarrarekin aldatu zutela ohitura lehenengo. Gero, hainbatek eman zuten pausoa beste kide batzuekin ere (Soziolinguistika Klusterra, 2011b).

5 2011ko *Aldahitz ikerketan*, Jauregik eta Suberbiolak ondorioztatu zuten harremanaren maiztasunak funtsezkoa dirudiela (betiere, bikotekide bat euskalduntzen ari den kidea denean) (Soziolinguistika Klusterra, 2011b).

motibazioa. Horretarako, hizkuntza-ohituren aldaketei buruzko ezagutza teorikoa lantzeaz gain, esperientziak trukatu eta hausnarketa sustatzen dute. Gainera, identifikatzen dira dauzkaten zailtasunak, eta aholkularitza eskaintzen zaie (oztopoei aurre egiteko aholkuak, bai “laguntzaileei” bai “lagunduei”). Esate baterako, “laguntzaileak” “lagunduari” babesa eta laguntza eman behar dionez, ohikoa izaten da zalantzak izatea (hizkuntza-zuzenketak egin behar ote dizkion, nola jokatu...).

Dirudenez, ohikoena da saioen bat denek batera egitea eta besteak azpitaldeka antolatzea (plazaratutako informazioan ematen duten adibidean -HAZIKo Kalitatea Fundaziokoa- horrela egin zen, behintzat): saio bat denek batera; “laguntzaileek” eta “lagunduek” beste bana, nor bere aldetik; eta erakunde osoko langileek beste bat, esku-hartzearen berri izan eta jokabide-irizpideak jasotzeko.

Emuneko kideek diote, orain arte, ohikoena izan dela euskaraz ondo moldatzen ez zirenei hizkuntza trebakuntza eskaintzea. Hobetsi dute, ordea, trebakuntza psikolinguistikoa ematea, irizten baitiote hizkuntzaren ikas-prozesuan (edo trebatze-prozesuan) eraginkorra dela erabiliz ikastea; eta, horretarako, garrantzitsuagoa dela trebakuntza psikolinguistikoa linguistikoa baino (esplizituki adierazten ez badute ere, pentsatzekoa da hitz egiten ari direla oinarrizko hizkuntza-gaitasuna baduten kideei buruz). Esperientziak zein oinarri teorikotzat darabiltzaten ikerketa biek erakutsi diete, batetik, erabiltzera jauzi egiteko eragozpen handienak psikologikoak izaten direla, eta, bestetik, erabilerak ekartzen duela berarekin hobekuntza linguistikoa.

Formazio saioak baliatzen dira, bide batez, esku-hartzearen jarraipena egiteko ere: esaterako, galdetzen zaie, hala “laguntzaileei” nola “lagunduei”, egoera berriak sortu dizkien sentipenen inguruan, nola bizi izaten ari diren aldaketa, esperientziarekin gustura dauden...

3.2.3.3. IRAUPENA

Esku-hartzeak hiru hilabeteko iraupena du. Hala ere, *Egin Salto!*-ren arduradunek diotenez, aintzat hartuta urtebete inguru behar izaten dela hizkuntza-ohitura finkatzeko⁶, aukera bat da interbentzioa gehiago luzatzea.

6 2011ko *Aldahitz ikerketan* ondorioztatzen dute “euskaldungaiak” urtebete inguru behar izan dutela euskarazko ohitura berriari eroso sentitzeko (dena den, joera argi-argirik ez zuten ikusi; hilabete batzuetatik urtebete ingurura bitarteko tartean kokatu ziren erantzunak) (Soziolinguistika Klusterra, 2011a eta 2011b).

3.2.3.4. ARRAKASTARAKO BALDINTZA BAT: ERAKUNDEAREN BABESA

Helburuak lortu ahal izateko, ezinbestekotzat dute erakundearen babesa (enpresarena, erakunde publikoarena...), baita gainerako langileen sostengua eta konplizitatea ere. Diote beste langileek jakin egin behar dutela esku-hartzea zertan datzan eta bikote-partaideak zein diren. Oztopo izan ez daitezzen, bederen.

Babes hori lortze aldera, trebakuntza-saioteko batean (ikus 3.2.3.2. atala) erakundeko langile guztiek hartzen dute parte; bertan, esku-hartzearen berri ematen zaie eta jasotzen dituzte babes hori bideratzeko irizpideak. Esaten diete nor diren parte hartzen diharduten lankideak, beren-beregi eskatzen diete oztopo ez izateko, eta hainbat aholku ematen dizkiete praktikan zelan jokatu jakin dezaten. Izan ere, helburu dute beste langileak ere, zeharka bada ere, partaide izan daitezen. Arduradunen esanetan, burututako interbentzioetan, langile horietako batzuek gogotsu laguntzen dute parte-hartzaileen jarduna.

3.2.3.5. HIZKUNTZA-ERABILERAREN NEURKETAK

3.2.3.5.1. Bikoteen euskara-erabilera:

-Neurketa-uneak:

Bi unetan neurtu ohi dute bikoteen euskara-erabilera: lehenengoa, **hasieran**; bigarrena, hiru hileko esku-hartzearen **amaieran**. Hasierako interbentzioan neurketa gehiago egin zituzten; gerora, ordea, bitara mugatu dute kopurua.

-Neurketa-modua:

Ahozko erabileraren neurketa **behatuak** egiten dituzte. Darabilten metodologia oinarritzen da [Soziolinguistika Klusterrak ahozko neurketak egiteko proposatu zuen prozeduran](#). Hala ere, arduradunek diote, teknikoki, doitze txiki batzuk egin dituztela; izan ere, ez dute kontuan hartzen Klusterraren proposamenean eskatzen den lagina. Neurtzen dituzte bikote bakoitzak (hirukoteak, kasu batzuetan) egun batean (edo batzuetan, kasuen arabera) izan dituen elkarrizketa guztiak.

3.2.3.5.2. Neurketa orokorrak, lantoki osoan:

Bikoteen euskara erabilera neurtzeaz gain, lantoki osoan ere egin ohi dituzte neurketa orokorrak.

3.2.4. EMAITZAK

Emuneko kideek, plazaratutako informazioan, adierazten dute esku-hartzearen emaitzak onak izan direla ezarri den gune guztietan (bikote askotan izan dela aurrerapen nabarmena erabileran; bikoteetako batzuetan, gainera, euskara bihurtu dela ohiko hizkuntza). Halere, ez dugu aukerarik izan datu zehatzik eskuratzeko; izan ere, jasota dituzte esku-hartze bakoitzeko datuak, baina ez bateratuta.

Aurrekoaz gain, arduradunek diote eragina zabaldu egiten dela gainerako langileen artean ere eta izaten duela ondorioz euskararen erabilera orokorrean.

3.2.5. EGITASMOAREN ARDURADUNEN ONDORIOAK

Arduradunek, esperientzien emaitzak ikusita, zenbait ondorio mahaigaineratzen dituzte. Konklusio horietako batzuk proposatzen ziren, lehenagotik, oinarritzat hartu dituzten ikerlanetan; eurek, eguneroko praktikan, egiaztatu egin ahal izan dituzte. Horiez gain, beste ondorio batzuetara eguneroko praktika behatuta heldu dira.

Aipatzen dituzten ondorioen artean daude, besteak beste, ondokoak: esku-hartzearen bitartez, lortzen dela euskararen erabilera handitzea, bikoteetan zein erakunde osoan⁷; parte-hartzaileek euskaraz egin ahal izateko gune bat irabazten dutela; “lagunduek” ahozkoan euskaraz egiteko erraztasuna nahiz segurtasuna lortzen dituztela. Bestalde, egitasmoak ahalbidetzen duela “lagunduen” hizkuntza-prestakuntza eguneroko jardunean txertatzea: ohiko euskara eskolez edo mintza-saioez aparte, lanean, egunerokoan, euskara praktikatzeko lekua ematen zaie-eta.

Aurrekoaz gain, diote ezinbestekoa dela, emaitza onak bermatzeko, bikoteko kideen arteko harremana konfiantzazkoa izatea. Era berean, komeni dela parte hartzaileei hasieratik argi esatea prozesuan oztupoak egongo direla, geroke etsipenak saiheste aldera. Horri lotuta, formazio saioetan, kontuan hartu behar direla kideen emozioak eta sentipenak; eta ezinbestekoa dela, prozesuan zehar, motibazioa elikatzea. Ildo horretan, garrantzitsua dela prestakuntza psikolinguistikoa ematea. Azkenik, azpimarratzen dute funtsezkoa dela “laguntzailearen” papera, akuilu eta eredu baitira.

7 2011ko *Aldahitz ikerketan* ere ondorioztatu zuten hizkuntza-jokaeraren aldaketa prozesua ez zela mugatu, kasu gehienetan, abiapuntuko bikotera, eta ekarri zuela, inguruan ere, hizkuntza-jokaerak egokitu beharra (Soziolinguistika Klusterra, 2011a).

3.3. EUSLIDERRAK. HIZKUNTZA PORTAERA BERRIAK SORTZEKO TAILERRA (AHIZE-AEK HIZKUNTZA AHOLKULARITZA)

3.3.1. INFORMAZIO OROKORRA

Ahize-AEK hizkuntza-aholkularitzak 2008 urtean ekin zion *eusLiderrak* proiektuari, EHUko Gizarte Psikologia eta Giza Portaera Zientzien Metodologia Sailaren laguntzarekin (Daniel Hermosilla Perez eta Juan Jose Arrospide Eizagirre irakasle eta ikertzaileek lagundu zuten metodologia diseinatzen). Hasierako elkarlan horren ostean, lehenengo saioak *EraLan 2* ikerketa-egitasmoaren barruan garatu ziren, 2010 urtean; eta 2011 urtetik aurrera hartu zuen *eusLiderrak* izena.

Egitasmoaren inguruan hainbat informazio dago publikatuta. Mardulena da, informazio kopuruari nahiz sakontasunari dagokionez, Iratxe Garmendiak eta Mikel Urdangarinek *Hizpide* aldizkariaren 82. alean, 2014an, argitaratu zuten artikulua (“eusLiderrak. Hizkuntza-portaera berriak sortzeko tailerra”). Dokumentu hori izan dugu informazio-iturri nagusi, beste batzuk ere erabili ditugun arren (ikus bibliografia).

Hainbatetan eskaini ditu Ahize-AEK-k *eusLiderrak* saioak, lantegi, udal, ikastetxe zein bestelako taldeetan; besteak beste, Berriz eta Zornotzako institutuetan, Gernikako Mertzede, Irungo San Vicente Paul eta Lemoako Eguzkiza-Meabe ikastetxeetan, Elgoibarko IMHn, Igorreko Batz Kooperatiban, Gipuzkoako Foru Aldundian, Busturia, Sestao, Portugalete nahiz Lemoako Udaletan, eta abar.

Arduradunen hitzetan, egitasmoa kontratatzen dutenen kezka nagusia izaten da, euren inguruan, euskara badakiten askok ez dutela erabiltzen; “bezeroek hizkuntza-portaera hori aldatuko duen zerbait bilatzen dute, laburra eta eraginkorra” (*Aizu!* 406). Horri erantzun nahian, tailerraren xedea da euskararen erabilera informala areagotzea, norbanakoen hizkuntza-jarreran eraginez, gero euren ingurukoengan eragin dezaten.

Hurrengo lerroetan azalduko ditugu, hortaz, egitasmoaren edukiak, atalez atal. Aurkeztuko diren eduki guztiak egitasmoaren arduradunek adierazi edo proposatutakoak dira.

3.3.2. OINARRI TEORIKOA

3.3.2.1. IKUSPEGI OROKORRA

eusLiderrak-en oinarrian daude gizarte-psikologian erabili ohi diren zenbait proposamen teoriko nahiz tekniko. Hain zuzen, hiru erreferentzia teoriko-metodologiko aipatzen dituzte (Garmendia eta Urdangarin, 2014): Terapia Labur Estrategikoa (TLE), PRECEDE metodoa eta Cialdini-ren pertsuasioaren arauak. Lehenengoa da, arduradunen esanetan, *eusLiderrak* saioen oinarri filosofikoa (proposatzen dituen teknikak ere erabiltzen badituzte ere); bigarrena, saioak egituratzeko oinarritzat darabilte; hirugarrenari dagokionez, pertsuasioaren arauetako teknikak baliatzen dituzte saioak eraginkorragoak izan daitezen. Horiez gain, aipatzekoa da *EraLan 2* ikerketa-proiektua ere; bertan, hizkuntza-jokaeran eragina duten aldagaietatik, hainbat proposatu ziren lanketarako, eta horiek ere lantzen dituzte. Garmendiak eta Urdangarinek ez dute *EraLan 2* oinarri teorikoen artean aipatzen (helburuetan baino); egokia iruditu zaigu, ordea, atal honetara ekartzea.

3.3.2.2. TERAPIA LABUR ESTRATEGIKOA (TLE)

TLEren inguruko egileek (Giorgio Nardone da, gaur egun, nagusia) baieztatzen dute portaeretan aldaketa lasterrak eragin daitezkeela, eta horretarako estrategiak nahiz teknikak garatu dituzte.

eusLiderrak-en aintzat hartzen dituzte, bereziki, hiru oinarriok: **bizipenek eragindako emozioen indarra, TLEk proposatzen dituen hainbat estrategia eta pertsuasio-teknikak:**

-Emozioetan eragitea da eraginkorra, bereziki, bizipenen bitartez: Nardonek dio, jokaera-aldaketak sustatzeko, eraginkorragoa dela emozioetan eragitea pentsamendua edo arrazonamendua bakarrik lantzea baino. Izan ere, ohartarazten du sarritan zaila dela aldatu nahi dugun jokabidearen arrazoiak ezagutzea; eta, ezagututa ere, argudio arrazionalen bitartez aldaketa sustatzea (esaterako, askotan egiten ditugu gauzak kaltegarriak direla jakinda ere; edo, batzuetan, bat gatoz aldetaren aldeko arrazoiekin, baina emozioek kontrako norabidean egiten dute). Era berean, eragin daitezkeela emozioetan pentsamenduen bidez ere, baina eragin handiagoa dutela **bizipenek** azalpen arrazionalek baino. Ildo horretan, *eusLiderrak*-en metodologian, proposatzen dute aldeko emozioa sorraraziko duen esperientzia bat baliatzea.

-Estrategiak:

TLEk erabiltzen dituen bitartekoetatik, ondokoak aipatzen dituzte Garmendiak eta Urdangarinek:

- **Itsasoa zeharkatu, zeruak jakin gabe:** bestea jabetu gabe, berarengandik zerbait lortzeko

estrategia. Horretarako, zer edo zer eginarazi (ustez, xede bat erdiesteko); bitartean, ordea, benetan helburu dugun bigarren xede bat ari gara lortzen. eusLiderrak-en, euskaraz hitz egiteko zuzenean eskatu beharrean, galdegiten diete erakargarri zaien zerbait egiteko. Horrela, parte-hartzaileek ez dute arreta bideratuko erabiltzen ari diren hizkuntzara, baina euskaraz egingo dutenez, “ezkutuko” helburu hori lortzen da (euskaraz jardun dezatela).

- **Ageriko strategiaren estrategia:** estrategia agerian uztean datza, estrategiarik ez dagoelako itxura emanez, beteko den iragarpen gisa funtziona dezan. Esaterako, parte-hartzaileei esanda gure proposamenak A edo B eragina izango duela eurengan, oso litekeena da bietako bat betetzea. Tailerretan, esan ohi diete proiektuak ekarriko diela euskaraz gehiago hitz egitea, edo, behintzat, hizkuntzen gaineko kontzientzia piztea; proposamenaren arabera, aukera handitzen da bietako bat, gutxienez, bete dadin.
- **Hutsetik sortu edo egoera idealaren teknika:** parte-hartzaileei proposatzen zaie jokatzea egoera ideal jakin batean baleude bezala (bestela esanda, “bagenu bezala” jokatzea). Adibidez, tailerretan, zenbaitetan, proposatzen diete jardutea “euskaraz hitz egiteko ohitura bagenu bezala”. TLEn jarraitzaileen arabera, bide horretatik, sor daiteke eragin erreala izango duen errealitate birtuala.

-Pertsuasio-teknikak: TLEren arabera, komunikazioak besteengan eragiteko gaitasuna izan dezan, funtsezko bitartekoa da pertsuasioa. Beraz, aldaketa bultzatzeko tresna nagusitzat dituzte komunikazioa, sugestioa zein pertsuasioa; “pertsonek horien bitartez eraikiko baititu pertzepzioa, ekintza eta kognizio-aukera berriak” (Garmendia eta Urdangarin, 2014: 45). Horri lotuta eta arestian esan bezala, egitasmoaren oinarri nagusietakoa dira Cialdini-ren pertsuasioaren arauak (3.3.2.3. atalean azalduko ditugu).

-Saio-kopuru mugatua: TLEren oinarrietako bat da saio-kopurua mugatua izatea. Izan ere, ohartarazten dute ez dela komeni behin eta berriro errepikatzea irtenbide-saiakerak, nahi genuen emaitza ematen ez dutenean; bide beretik jarraitzeak ekar baitezake “arazoei” iraunarazi eta horiek gaiztotzea.

3.3.2.3. PRECEDE METODOA

PRECEDE metodoa erabiltzen dute saioak egituratzeko oinarritzat, baliatzen baitute **erabakitze**ko, portaerak sorrarazten dituzten aldagaietatik, **zeinetan eragin** behar den aldaketa lortzeko. Jose Luis

Bimbelak egindako moldaketa darabilte erreferentzia gisa (Lawrence W. Green-en jatorrizkoaren egokitzapena, hain zuzen).

Metodoaren arabera, bereiz ditzakegu portaerak azaltzen dituzten **hiru aldagai-mota: aldaketa abiatzeko baldintzak sortzen laguntzen duten aldagaiak, aldaketa errazten dutenak eta indartzen dutenak**. Hain zuzen ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, horiexek dira egitasmoaren lehenengo hiru saioren xedeak, hurrenez hurren. Garmendiak eta Urdangarinek banan-banan azaltzen dizkigute hiru aldagai-motak:

-Aldaketa abiatzeko baldintzak sortzen laguntzen duten aldagaiak: lotura dute aldaketarako **motibazio**arekin. Horien artean ditugu: **informazioa** (zer dakiten sustatu nahi den portaeraren inguruan, aurreiritziak...), **jarrerak** (adibidez, nola hautematen duten proposatzen zaiena -arriskutsu, deseroso, eraginkor, zail, erraz...-), eta **balioak zein iritziak** (aldatu nahi den portaerari nahiz proposatzen zaien berriari buruzkoak).

Beraz, aztertzen dute aldagaion egoera xede-taldean: euskaraz egiten ez dutenen kasuan, horiek aldatu ahal izateko; eta egiten dutenenean, indartzeko, eta ahal den neurrian, gainontzeko kideen artean hedatzeko.

-Aldaketa errazten duten aldagaiak: proposatutako portaera burutzeko **gaitasunari dagozkio**. Aztertzen da gaitasunik duten eskatutakoa egiteko, bai eta eskuragarri ote dituzten **baliabideak zein ereduak** (besteak beste, portaera burutzeko gune egokiak, lagunduko duten adituak, ingurukoengan eragiteko gaitasuna, zailtasunei aurre egiteko tresnak...).

-Aldaketa indartzen duten aldagaiak: zerikusia dute proposatutako portaera gauzatzearen **ondorioekin: ingurukoaren erantzuna** (lagunak, familia, irakasleak...); **norbanakoaren edo taldearen erantzuna** (aitortzen diote erdietsitakoa euren buruari?); **onura nahiz kalte fisiko zein emozionalak** (gozamina, erosotasuna, mina, urduritasuna...); **ondorio ukigarriak** (adibidez, onura ekonomikoak).

Esan dugun moduan, horiek aztertuta, erabakitzen dute zein aldagaitan eragin behar den; gero, horren arabera moldatzen dituzte esku-hartzearen nondik norakoak.

3.3.2.4. PERTSUASIOAREN ARAUAK

Pertsuasioa da *eusLiderrak* egitasmoaren hirugarren oinarri nagusia. Erreferentzia nagusi dute Robert Cialdini, psikologia zein marketin irakaslea, eta *Influence: The Psychology of Persuasion* liburuaren egilea. Cialdinik bertan deskribatu zituen pertsuasioaren sei arau nagusiak; pertsonegan eragiteko gaitasuna handitzeko arauak, hain zuzen. Horien oinarrian daude, Cialdiniren esanetan, jokabideak erabakitzeko erabiltzen ditugun mekanismo automatizatuak. Egiten dugun guztia aurretik arrazoitzeko modurik ez dugunez (ez dugu gaitasunik, denborarik edo motibazio nahikorik, eta arrazoitzeak ere ez du bermatzen biderik egokiena hautatzea), arrazoiketaren orde, hainbat mekanismo baliatzen ditugu ebazte-bidea errazteko. Horiexek deskribatzen ditu Cialdinik, eta *eusliderrak* tailerretan erabiltzen dituzte saioak eraginkorragoak izan daitezen (Garmendia eta Urdangarin, 2014).

Hauek dira Cialdinik deskribatutako arauok: elkarrekikotasuna, koherentzia, gizarte-balidazioa, atsegintasuna, autoritatea eta eskasia.

-Elkarrekikotasuna:

Elkarrekikotasuna da, jendarteko harremanetan, jasotakoa itzultzera behartzen gaituen araua; oinarritzen da harremanak orekatzeko dugun joeran. Esaterako, egungo jendartean, txartzat hartzen da esker onez ez jokatzera edo besteak ez hartzea norbera hartu duten bezala. Horiak horrela, hurkoari oparia edo mesedea egiten badiogu, aukera handiagoa izango dugu ondoren egingo diogun eskaerari baiezkota eman diezaion (betiere, eskaria neurrikoa eta egingarria bada). Arau horretan oinarrituta erabiltzen dute **oparia** *eusLiderrak*-en. Gainera, saioetan dinamizatzaileek **konfiantza** adierazten diete parte-hartzaileei (gauza direla eskatutakoa egiteko); horrek ere sor dezake elkarrekikotasuna, ez diote-eta kale egin nahi eurengan konfiantza jarri duenari.

-Koherentzia:

Arauk dio beharra hautematen dugula besteen aurrean koherente izateko. Jendartean koherentziak balio positiboa du, eta ezaugarriokin lotzen da: logika, arrazionaltasuna, egonkortasuna, zintzotasuna... *eusLiderrak* proiektuan, araua baliatzen dute hainbat ikuspegitatik:

- Batetik, Garmendiak eta Urdangarinek azaltzen digute kontuz ibili beharra dagoela aldatu nahi den **jokabideaz berba egitean** (ez da esan behar ordura arteko ohiko jokaera desegokia

izan denik), pertsonak atxikimendua izango baitu harekiko. Esan liteke, adibidez, garai batean hartutako erabakiak zirela orduko egoeraren eta informazio-ezagutzaren ondorio. Errespetuz jokatu behar da, nahiz eta bat ez etorri.

- Parte-hartzaileei adierazten diete, lider izateko, koherentzia egon behar dela eskatzen eta egiten dugunaren artean, horrek indartu egiten baitu gure **eskaera** (eskari bat egin behar diote beste kide bati; ikus 3.3.3.2. atala).
- Adituek erakutsi dute ahalegintzen garela betetzen publikoki, aktiboki eta borondatez hartutako **konpromisoak**. Horri lotuta, tailerretako parte-hartzaileei eskatzen zaie, kasurako, idatziz adieraztea 3. fasean parte hartu nahi duten, eta publiko egiten dute konpromiso hori (ikus 3.3.3.2 atala).
- Horretaz gain, erabiltzen dituzte koherentziaren arauari lotutako **teknikak** ere (Cialdinik zein beste aditu batzuek proposatutakoak):
 - *Oina atean jarri*. Hainbat egilek erakutsi dute errazagoa dela lehendik ere lagundu digunak berriro laguntzea. Ondorioz, saioetan, **eskaera txikia** erabiltzen da, ezezkoa emateko zaila (galdetegia osatzea, adibidez; ikus 3.3.3.2 atala); hori lortuta, garrantzi eta zailtasun handiagoa duen bigarren eskaria egiten zaie.
 - **Eskatutakoa baino gehiago emateko joera** dugu. Hori aintzat hartuta, esaten zaie parte-hartzaileei, esaterako, galdetegi bakarra lortzea ere lagungarria izango litzatekeela, baina nahi beste bete ditzaketela. Praktikak erakutsi du, gehienetan, galdetegi bat baino gehiago betetzen dutela (ikus 3.3.3.2 atala).

Baliatzen dute koherentziari lotutako beste kontzeptu bat ere: **disonantzia kognitiboa**. Azaldu dugu Festinger-ek proposatutako kontzeptua *Aldahitz* ikerketaren oinarri teorikoan (ikus 3.1.2 atala). Printzipio hori aintzat hartuta, proposatzen dute parte-hartzaileek jarduera bat euskaraz egin dezatela (euren jarrerak direnak direla ere). Horrela, jarduera horrekin, jokabidearen alderditik ere eragin nahi dute; eta, ondoren, espero dute parte-hartzaileek garatuko dutela portaera justifikatuko duen jarrera (disonantzia kognitiboa murrizteko joerari jarraiki); finean, ekintzak ekarriko duela pentsaera egokitzea (ondo pasatu dugu euskaraz egindako jarduera hori burutzen, atsegina izan da, ez digu kalterik egin, erraza izan da...).

-Jendarte-balidazioa:

Joera dugu gehiengoak (edo inguratzen gaituztenek) egiten duena egiteko. Era berean, euren

oniritzia lortu nahi izaten dugu. Zalantza dugunean ere, lagungarri izaten zaigu besteek zer egin duten jakitea. Izan ere, taldearen partaide sentitu nahi dugu, eta horrela jokatzek zurtasuna ematen digu.

Araua gogoan izanda, *eusLiderrak*-en, euskararen inguruko diskurtso positiboak erabiltzen dituzte, hizkuntzari jendarte-balidazioa emateko. Erakusten dute euskara ez dela hain hizkuntza txikia munduko gainerakoen artean; munduan, hizkuntza-aniztasuna dela egoera ohikoena eta biztanle gehienak elebidunak direla. Horretarako, hainbat informazio ematen diete (ikus 3.3.3.2. atalean, 1. saioaren edukia). Halaber, parte-hartzaileei egiten dieten eskaera indartzeko, aurkezten dizkiete aurreko tailerretako eskarien emaitzak nahiz arrakasta-testigantzak, ereduak eskaintzeaz gain, jendarte-balidazio edo babes hori senti dezaten. Kontuz ibili ohi dira, portaera desegokien inguruan jardun behar dutenean; holakoetan, ez diote erreparatzen jokabide desegokiari soilik, egoki/desegoki eztabaidari baino; edota, bestela, konponbidearekin batera mahaigaineratzen dute. Osterantzean, jendarte-balidazioaren kontrako indarrak sustatuko lituzkete-eta.

- **Atsegintasuna:**

Cialdinik dio joera dugula jokatzeko gure gustuko jendearen antzera. Hori dela eta, askoz errazago eragingo dute gudan atsegin ditugun pertsonen gustuko ez ditugunek baino. Gauzak horrela, pertsonengan eragiteko, garrantzitsua da atseginak izatea, betiere, faltsukerian jausi barik.

Zenbait egileren arabera, lau dira atsegintasuna lortzeko erreminta nagusiak (Garmendia eta Urdangarin, 2014): **edertasun fisikoa** (berezkoa nahiz janzkera-orrazkera egokiak); **iritzi eta zaletasun berdintsuak** izatea; **laudorioa** (atseginago izan ohi ditugu laudatzen gaituzten pertsonak, modu artifizial edo hanpatuan egiten ez badute, behintzat); **hurbiltasuna** (zenbat eta hurbilagoa -edo gure antzekoagoa- izan gomendioa ematen digun pertsona, orduan eta eragin handiagoa izango du gudan).

eusLiderrak-en kasuan, honela erabiltzen dituzte baliabideok: dinamizatzailerek, laudorioa gogoan, parte-hartzaileenganako konfiantza adierazten dute (esaten diete gauza direla eskatutakoa egiteko). Era berean, garrantzi handia ematen diete hurbiltasunaren ideari lotutako bi kontzepturi: **lidergo eraldatzailea** eta **autosalmenta**.

Lidergo eraldatzailea kideen artean gauzatzen da (hurbiltasuna), eta, ondorioz, oso eraginkortzat dute pertsuasiorako, atsegintasunaren araua betetzen baitu. Gainera, eragina luzatu egin daiteke egitasmoa amaituta ere, parte-hartzaileek elkarrekin jarraituko dute-eta. Lidergo eraldatzailea bultzatzeko, adibidez, sustatzen dute parte-hartzaileek eurek dinamizatzaile-lana egin dezatela (ikus 3.3.3.2. atalean, 3. fasea). Baliatzen dute eskaera egiten ikasteko ere, ikus dezaten nolako ezaugarriak behar dituen besteengan eragin nahi duenak (ikus 3.3.3.2). Bereizgarri hauek aipatzen dizkiete, hain zuzen: besteekiko interesa, begirunea eta enpatia; konfiantza giroa sortzea; jakin-mina agertu eta sustatzea; sormena zein pentsaeraren eraldaketa bultzatzea; baikorra izatea eta konfiantza adieraztea; hurkoa motibatzea; argi adieraztea zer lortu nahi dugun, erakargarri eginda; bideak eskaintzea nahiz jarraipena egitea; eta koherente zein eredugarri izatea.

Autosalmenta da nork bere buruari zerbaiten aldeko argudioak “saltzea”. Adituen arabera, norbait konbentzitu ahal izateko, onena da, lehenengo, nork bere burua konbentzitzea. “Azken batean, norbera da norbere burutik gertuen dagoena” (Garmendia eta Urdangarin, 2014: 22). Ildo horretan, Lewin-ek erakutsi zuen eraginkorragoak direla norberak garatutako ideiak, beste batek emandakoak baino. Gainera, autopertsuasio hori landu egin daiteke: eztabaida-taldeetan, aurkako argudioak landuz... Areago, egile batzuen arabera, pertsuasio-indarra duten mezuak pentsatze hutsak aldaketak eragiten ditu gure portaeran. Horiek horrela, *eusLiderrak*-en proposatzen dituzten jardueren bitartez, espero dute parte-hartzaileengan martxan jar dadila euskararen autosalmenta-prozesua. Horrela, lidergo-jarrera hartzen dutenek besteengan eragingo ez balute ere, oso litekeena da euren buruarengan, behinik behin, eragitea.

- **Autoritatea:**

Joera dugu sinesgarritasuna emateko autoritate eta lidergo postuetan daudenei. Fenomeno horren adibide da pertsona ospetsuen edota iritzi-liderren eragin-gaitasuna. *eusLiderrak*-en, erabiltzen dute nolabaiteko autoritatea izan dezaketen pertsonen eragina; baita erakundeak proiektuari ematen dion babesa ere.

-**Eskasia:**

Lortzen zail diren gauzak erakargarriagoak zaizkigu, eta, horiek lortzeko, prest egon ohi gara ahalegin handiagoa egiteko. *eusLiderrak* saioetan, parte-hartzaileei esaten diete eurentzat berariaz sortutako proiektua dela edota ezin dutela nahi duten guztiek parte hartu, kopurua mugatua dela,

urtean behin baino ez dutela egiten... Bestalde, diote debekuak eta zentsurak ere lotura zuzena dutela eskasiaren arauarekin. Hori gogoan hartuta, parte-hartzaileei eskatu izan diete saioetan egindakoa inori ez kontatzeko, hain zuzen, kontrako eragina lortzeko.

3.3.2.5. ERALAN 2 PROIEKTUKO ALDAGAIAK:

EraLan 2 ikerketa-proiektuan, hizkuntza-jokaeran eragina duten aldagaietatik, hainbat proposatu ziren lanketarako. *eusLiderrak*-en lantzen dituzte horiek ere (Soziolinguistika Klusterra, 2010: 43-44): **norberaren rola zehaztu** (arau argiak finkatu, hizkuntzen erabilera ahalik eta erosoan bizi dezaten); **hautemandako kontrolagarritasuna** (norbanakoak zein taldeak duen pertzepzioa eraldaketa-prozesuan duen eraginari/parte-hartzeari buruz); **(des)erosotasun-sentimenduak hizkuntza-praktikan** (askotarikoak izan daitezke arrazoiak: ezagutza-maila, kontratu sozial argirik eza, errekonozimendu eskasa, lidergo falta, motibazio eskasa...); **eraginkortasun-iguripenak** (hautematea egiten denak ondorioak dituela); **hizkuntza-kontzientzia** (hizkuntza-erabileran eragiteko izan beharreko paperaren gaineko ustea); **talde-babesa** (bilatzen da egituratzea taldeak eskaintzen dion babesa euskaraz jardun nahi duen kideari); **klima psikologikoa** (enpresa edo inguruarekin duen harremanak norbanakoarengan sortzen duen eragina); **erakundearen konpromisoa aldaketarekiko**; eta **norbanakoaren konpromisoa aldaketarekiko**.

3.3.3. METODOLOGIA

3.3.3.1. HELBURUAK

Egitasmoaren xede nagusia da parte-hartzaileen artean euskararen erabilera informala areagotzea. Helburu horren bidean, ordea, hainbat azpigelburu aipatzen dituzte (Garmendia eta Urdangarin, 2014):

1. **Hizkuntza gutxituekiko (eta euskararekiko) jarrera positiboa sustatzea.** Horretarako, hainbat informazio esanguratsu ematen diete, interesa eta begirunea bultzatzeko asmotan.
2. **Hizkuntza-lidergoa eta talde-lana indartzea:** lider naturalei erreparatzeaz gain, berdinen arteko lidergo eraldatzailea sustatzen dute (gainera, hurkoen jarduera aldarazteko ahalegina egitean, nork bere pentsamendua nahiz jokabidea ere aldatzen ditu, koherente izateko).
3. **Eraldaketa sustatu eta jokabide berriak sortzea:** horixe dute azken helburua. Horretarako,

bultzatzen dute parte-hartzaileek euskaraz egin dezatela emozio positiboak sorraraziko dizkien jarduera bat. Horren bitartez, espero dute eraldaketa lortzea; izan ere, jarduera egitea aldaketa txikia izanagatik, emozio positiboak esanguratsuak badira, ordura arteko sistema arrakalatu eta ekarriko du pentsamendua berregituratu beharra. Pentsaera berriak, halaber, portaera aldaketa gehiago eta iraunkorragoak eragingo ditu.

4. EraLan 2 proiektuko aldagaiak lantzea:

Helburu nagusia (hizkuntza-jokabidea aldatu edo ordezte) erdiesteko bidean, aipatzen dute, eragin nahi dutela *EraLan 2* proiektuan aukeratu ziren aldagaietan (ikus 3.3.2.5. atala).

3.3.3.2. ESKU-HARTZE METODOLOGIA: EUSLIDERRAK TAILERRA

Tailerraren egitura aldatu egiten da xede-taldearen arabera. Ikasle-taldeetan, sei saio egin ohi dituzte (ziklo osoa, hau da, hiru faseak -ikus aurrerago-). Langile-taldeetan, aldiz, normalean, 3 saio egin ohi dituzte (ziklo baten lehenengo bi faseak -ikus aurrerago-); eta, zenbaitetan, laugarren saio bat eransten dute, aldaketa esanguratsuagoa lortze aldera. Gainera, diotenez, ziklo bakoitza nahi bestetan errepika daiteke, aldakuntzak eginda, errepikakor gerta ez dadin.

-Lehenengo fasea: girotzeko kanpaina

Saioekin hasi aurretik, kanpaina egiten dute erakundearen atxikimendua eta parte-hartzaileen jakin-mina pizteko asmotan, hainbat euskarri erabilita.

-Bigarren fasea: 3 saio

Hiru saiok osatzen dute, 60-90 minutuko iraupenekoak. Saioetako bakoitzean, hurrengoak egiten dituzte (Garmendia eta Urdangarin, 2014):

1. SAIOA, JOKABIDE-ALDAKETA ABIATZEKO BALDINTZAK SORTU: USTEETAN ZEIN MOTIBAZIOAN ERAGIN, ETA ESKAERA TXIKIA

Lehenengo saioan informazio esanguratsua ematen diete parte-hartzaileei, usteetan, aurreiritzietan nahiz motibazioan eragin nahian. Adibidez: hizkuntzek duten garrantzia norbanakoaren zein jendartearen garapenean, aniztasunean eta elkarbizitzan; hizkuntza-eskubideak; euskarari prestigioa ematen dion informazioa, jendarte-balidazioaren araua gogoan (euskara munduan hiztun gehien dituzten hizkuntzen % 10en artean dagoela, 38. hizkuntza dela Interneten...), etab. Helburua da

berregituratu dezatela hizkuntzei buruz (eta, bereziki, euskarari buruz) duten ikuspegia.

Gainera, dinamizataileekiko eta gaiarekiko sentimendu atsegina sorrarazteko, erabiltzen dituzte hitz egiteko era atsegina, jolasak nahiz opariak. Dinamikari dagokionez, marketinaren egungo joerei jarraituz, informazio-bonbardaketa erabiltzen dute, aldeko sentimendua sortzeko.

Saioa amaitzeko, eskaera txiki bat proposatzen diete, bigarren saiora eginda eraman dezaten. Esaterako, izan daiteke bi galderari erantzutea (edo beste pertsona batzuei egitea): “zein egoeratan egiten zaizu/zaio jendeari zaila euskaraz hitz egitea? Nola egin diezaiekezue/te aurre egoera horiei?”. Beste pertsona batzuei egiteko, gomendioak ematen dizkiete eskaria bideratzeko. Eskaera txiki horren funtzioa da atea zabaltzea etorriko den eskari handiagoari (ikus “oina atean jarri” teknika, oinarri teorikoaren 3.3.2.4. ataleko “Koherentzia” puntuan).

2. SAIOA: ESKARIA EGIN, ALDAKETA SUSTATZEKO

Bigarren saioan, lantzen dute eskaerak nola egin, parte-hartzaileek, hurrengo saiorako, bat egin dezaten. Moldaketak izan ditzake eskari-motak, xede-taldearen arabera: DBHko ikasleen kasuan, proposamen ohikoena izaten da bideoz graba ditzatela eurekin gaztelaniaz aritu ohi diren pertsonak, euskaraz hitz egitearen aldeko atxikimendua adieraziz. Helduen kasuan (langileak, kasurako), hori berori izan daiteke edo beste batzuk (esaterako, norbait gonbidatzea jardueraren bat egitera: Pilates egitera, meriendatzera...). Euskaraz egindako eskaera-jardueraren bidez, sorrarazi nahi dira emozio positibo esanguratsuak, euskarazko hizkuntza-jokabidea bultzatzeko (ikus helburuak -3.3.3.1. atala-eta oinarri teorikoa).

Horrela, saioan, eskaria egiteko baliabideak eskaintzen zaizkie; ikusarazten diete egingarria dela eta lantzen da ingurukoengan eragiteko gaitasuna. Horretarako: proposatzen zaie, lehen lanabes gisa, galdetegi bat egin diezaietela eskaria egingo dietenei (eskaera txikia, ikus 3.3.2.4. ataleko “Koherentzia” puntuan). Galdera-sorta horretan, lehenengo saioan landutakoei buruzko itaunak egoten dira; beraz, esaten zaie ideiak hedatzen lagunduko dutela. Horrez gain, pausoz pauso azaltzen diete nola gauzatu eskaria, pertsuasio-teknikak eskainita: gozokia oparitu lehenengo, eskaera txikia ondoren (galdetegia betetzeko mesedea)... Lantzen dituzte liderraren ezaugarriak ere: lehenengo, argi izan behar dute zer lortu nahi duten; gero, ondo sentitu norbere buruarekin, zintzo ari dira-eta (ez diote inori kalterik eragin nahi-); azkenik, burutu pentsatutakoa (“Pentsatu, sentitu

eta egin” leoa darabilte). Atsegintasunaren eta koherentziaren arauak gogoan, erakusten diete emaitza ona lortzen lagunduko diela atsegina izateak, baita begirunez, baikor eta koherentziaz jokatzek ere. Horietaz gain, beste baliabide batzuk ere aurkezten dizkiete: bere izenez deitzea galdetegia beteko duenari; azaltzea zergatik egin behar dugun (arrazoi batek justifikatu eta eraginkorragoa bihurtzen du)... Gainera, galdetzen diete egingarria iruditzen ote zaien; izan ere, pertsuasioaren arauen arabera, aldeko atxikimendu publikoak ziurtatu ohi du lorpen-maila handiagoa (ezezkoa erantzungo balute, egokitu egin beharko lukete eskaria). Bestalde, animatu egiten dituzte erosotasun-eremutik apur bat harago joatera: esaterako, ea nork ekartzen dituen bideo gehien.

Langile-taldeetan, esan bezala, jarduera batean parte hartzeko eskaria izan ohi da (Pilates, askaria...). Jarduera horiek ez dira hurrengo saiorako epean gauzatzen, baizik eta aurrerago (langileekin egin ohi den laugarren saioan). Holakoetan, lantzen dute atsegintasuna (komenigarria dela kideari laguntza eskaintzea... -ikus oinarri teorikoa-), baita jarraipena egitea ere. Dinamizatzaileek ere berdin jokatzeko dute: saioetatik kanpo ere, jarraipena egiten diete, lorpen-maila handiagoa izan dadin.

Baliabideez gain, ereduak ere ematen dizkiete, aurretik beste batzuek egindako eskaeren emaitzak (bideoak...), ikus dezaten egingarria dela. Era berean, ezinbestekotzat dute ziurtatzea eskaera egingarria izango dela; azken baten, esperientzia arrakastatsua eta positiboa izango dela. Dena dela, lantzen dute huts egitearen aukera ere.

Aurreko guztiaz gain, binaka lan egitera animatzen dituzte, zenbaitentzat errazago izaten da eta hola egitea. Gainera, baditu beste abantaila batzuk ere: elkar anima dezakete; eta garrantzitsuena, koherentziaz jokatuz gero, euskaraz egingo dute euren artean, jarduera egiten duten bitartean.

Saioaren amaieran, trebatzeko ariketa bat egiten dute.

3. SAIOA: EGINDAKOA AZTERTU, LORTUTAKO ALDAKETAK INDARTZEKO

Hirugarren saioan aztertu egiten dituzte lortutakoak eta gogoeta egiten dute egindakoaren inguruan. Helburua da indartzea gauzatutako jokabide-aldaketa. Horretarako, ikusarazten diete gai izan direla egoera kudeatzeko eta eraginkorrak izateko. Hasteko, opari bat banatzen diete, parte-hartze

hutsagatik. Gero, emaitzak ikusi eta egindakoa aipatzeaz gain, aztertzen dute prozesua nola bizi izan duten: sentrazioak eta pertzepzioak, aldaketaren aurrean eragindako erantzuna... Ondorioak atera eta onurak azpimarratzen dizkiete. Gehienetan, bizipen atseginak izaten dira eta pozik egon ohi dira lortutakoarekin. Arduradunek diote talde-giro bikaina sortu ohi dela (Garmendia eta Urdangarin, 2014).

Galdetegiak (eskaera txikia) lortu ohi dituzte, baina eskaera handia (bideoa, jarduera...) zailagoa izan daiteke. Norbaitek lortuko ez balu, hainbat argudio erabiltzen dituzte sentimendu negatiboak uxatzeko (inola ere ez diote ardura berari egotziko; izatekotan, dinamizatzailena da, proposamenarekin asmatu ez dutelako, ez dutelako behar bezala animatu...).

Saioaren amaieran, ikasleen kasuan, eskatzen zaie hirugarren fasean parte har dezatela. Langileekin, ostera, hirugarren saioa izan daiteke amaiera, edota, zenbaitetan, laugarren saio bat eransten dute, lortutako aldaketa finkatze aldera. Laugarren saioa ekintza sozial deritzotena izaten da (ikus hurrengo atala).

-Hirugarren fasea: proiektuak bikoteka-taldeka garatu, eta ekintza soziala burutu (fase hau ikasleen kasuan bakarrik); lan-munduan, ekintza soziala.

Hirugarren fasea beste 3 saiok osatzen dute. Horietan bilatzen dute parte-hartzaileak eragile aktibo izan daitezen, irizten baitiote horrek eragin zuzena duela atxikimenduan, eta, beraz, erabileran. Horretarako, proposatzen diete binaka edo taldeka proiektuak garatzea (norberaren interesekoak, euskararen erabilera sustatzekoak edo erakundearen jarduera hobetzeari begirakoak). Amaieran, ekitaldi batean aurkezten dira emaitzak (ekintza soziala esaten diote ekitaldi horri).

Hala ere, arestian esan bezala, ikasleekin bakarrik egin ohi dute osorik. Langileekin, saio bakarra egiten dute (laugarren saioa litzateke), eta ekintza sozial gisako jarduera izan ohi da: aurreko fasean kide bati eskaria eginda antolatu duten jarduera burutzea, hain zuzen (askaria, ardo-dastaketa, kiroldegian Pilates ariketak egiteko saioa...). Normalean, saio horietara gonbidatu ohi dituzte eurekin gaztelaniaz aritzen diren pertsonak; euskaraz jarduten dute, ordea, ekintza sozialean. Batzuetan gertatzen da, gainera, saioa (Pilates, adibidez) euretako batzuek gidatzea; horrek areagotu egiten du atxikimendua eta lidergoa (Garmendia eta Urdangarin, 2014).

Bestalde, hainbat kasutan, hurrengo urtean berriro burutzen dute tailerra erakunde berean, beste talde batekin. Holakoetan, eskaini izan zaie dinamizatzailerak izateko aukera aurreko urtean parte hartutakoei. Baiezkoa esaten dutenei laguntza eta trebakuntza ematen zaie, eta aukera euren neurriko moldaketak egiteko ere. Ahize-AEK-kideek diote zeregin horrek areagotu egiten duela lidergoa eta gaiarekiko atxikimendua (ikus 3.3.2.4. atalean, autosalmenta).

3.3.3.3. DATUEN NEURKETA

Argitaratutakoaren arabera, hiru motatako datuak jasotzen dituzte:

1. Euskararen erabilerari buruzko datuak.
2. Parte-hartzaileen balorazioak.
3. 3. fasera pasatu direnen kopuruak.

3.3.3.3.1. Hizkuntza-erabileraren neurketa

Datu horiek neurtzeko, **galdetegia** betetzen dute parte-hartzaileek (datu **aitortuak** dira, beraz). Eskatzen zaie **4 baieztapen baloratzeko, 1etik 6rako eskalan (ez dago deskribatuta** puntuazio bakoitzak zer adierazten duen; puntuatzea eskatzen zaie, besterik gabe). Hauek dira baloratu beharreko baieztapenak:

1. Euskara **ikasleen arteko** harreman hizkuntza da.
2. **Zuk** euskara erabiltzen duzu ikaskideekin.
3. Ikaskideek **zurekin** euskara erabiltzen dute.
4. **Ikaskideek** haien artean euskara erabiltzen dute.

Bi unetan betetzen dituzte galdetegiok: **egitasmoa hasi aurretik eta amaitu ostean**. Azpimarratu beharra dago, egun egiten ez duten arren, arduradunek aipatzen dutela interesgarria litzatekeela erabileraren emaitzak berriro neurtzea egitasmoa amaitu eta hilabete batzuetara, eragina mantendu den ikusteko (Garmendia eta Urdangarin, 2014).

Bestalde, baloratu beharreko baieztapenetatik ondoriozta dezakegu **azterketarako unitatea taldea** izan dela; izan ere, esan behar dute ea euskara den taldearen hizkuntza, norberak taldearekin erabiltzen duena, taldeak norberarekin eta taldekideek euren artean.

3.3.3.3.2. Parte-hartzaileen balorazioak

Neurtzen dituzte bai egitasmoaren balorazio orokorra, bai saio bakoitzarenak. Horretarako, saio bakoitzaren zein egitasmoaren bukaeran, **galdetegia betetzen dute** parte-hartzaileek, eta 1etik 10erako eskalan ematen dituzte balorazioak. Iruzkinak egiteko aukera ere izaten dute.

3.3.3.3. Hirugarren fasera pasatu direnen kopuruak: dinamizatzailaiek jasotzen dituzte datuok, eta parte-hartzaileen asebetetzearen erakusgarritzat hartzen dituzte horiek ere.

3.3.3.3.4. Bestelako informazio-iturriak

Bestelako informazio iturri batzuei ere egiten diete aipamen laburra: dinamizatzailaiek behatutakoa eta galdetegietakoetatik kanpo jaso izan dituzten iruzkinak.

3.3.4. EMAITZAK

Emaitzei dagokienez, argitara eman dituzten bakarrak Garmendiak eta Urdangarinek *Hizpide* aldizkariaren 82. alean kaleratutakoak dira (168 lagunen datuak, hain zuzen). **Argitu beharra dago**, hala ere, **aipatu artikuluan argitaratutako datu ia guztiak DBHko ikasleei dagozkiela** (dena den, balorazioen emaitzetan, lan-munduko talde batenak ere ageri dira). **Ez dago argitaratuta** gainerako esparruetako daturik; **lan-mundukorik**, esaterako. Izan ere, langile-taldeetakoak bateratu eta aztertu gabe dituzte.

Ekar ditzagun, bada, argitaratuta daudenak hurrengo lerrootara:

3.3.4.1. ERABILERAREN DATUAK

Esan bezala, euskararen erabilerari buruzko datu guztiak dira DHBko ikasle-taldeetakoak (B eta C izendatu dituzten ikastetxeetakoak). Azpiko taulan ematen dituzte datuok. Bertan jaso dituzte, batetik, aitortutako erabilera-mailen batez bestekoak, hasierako neurketan zein amaierakoan (ikus neurketarako metodologia, 3.3.3.3.1. atalean). Bestetik, kalkulatu dituzte aldeak, bilakaera irudikatzeko. Ikus dezakegunez, kasu guztietan gertatu da igoera hasierako erabilera aitortutik amaierakora. Hala ere, alde handiak daude talde batzuetatik besteetara. Egileek egiten duten irakurketan, ohartarazten dute datuak aitortuak izateak ezinezko egiten duela ziurtatzea zenbat hazi den erabilera orokorra, baina datuok ikusita, ondoriozta daitekeela saioek eragin positiboa izan dutela (Garmendia eta Urdangarin, 2014).

Proiektuak	Galdetegia	ERABILERA (1etik 6rako eskalan baloratuta)			
		1- Euskara ikasleen arteko harreman hizkuntza da	2- Zuk euskara erabiltzen duzu ikaskideekin	3- Ikaskideek zurekin euskara erabiltzen dute	4- Ikaskideek haien artean euskara erabiltzen dute
B DBH 1.	Hasiera	3,00	3,49	3,24	3,31
	Amaiera	3,67	4,29	4,04	3,88
	Aldea	0,67	0,81	0,81	0,56
B DBH 2.	Hasiera	3,95	3,67	3,52	3,24
	Amaiera	4,00	4,13	4,08	3,63
	Aldea	0,05	0,46	0,56	0,39
B DBH 3.	Hasiera	3,74	3,37	3,14	2,89
	Amaiera	5,35	5,70	5,75	5,35
	Aldea	1,61	2,33	2,61	2,46
C DBH 1.	Hasiera	4,40	3,70	4,10	4,50
	Amaiera	5,10	4,60	4,80	5,10
	Aldea	0,70	0,90	0,70	0,60
C DBH 2.	Hasiera	3,80	3,20	3,53	3,46
	Amaiera	4,20	4,40	4,93	4,53
	Aldea	0,40	1,20	1,40	1,07

B eta C ikastetxeetan, euskararen erabilera neurtzeko galdetegiaren emaitzak (Garmendia eta Urdangarin, 2014: 41).

3.3.4.2. PARTE-HARTZAILEEN BALORAZIOAK

Kasu honetan, argitaratutako datu gehienak dira ikasleek; izan ere, udal bateko langileen artean badaude tartean. Ikus dezakegu 8tik gorakoak direla balorazio orokorraren zein saioen puntuazioaren batez bestekoak. Era berean, arduradunek diote idatzizko iruzkinak ere positiboak izaten direla; tailerra atsegina dela adierazteaz gain (dinamikoa, dibertigarria, gustura aritu direla...), sarritan esaten dute euskara gehiago erabiltzen dutela amaieran.

3.3.4.3. HIRUGARREN FASERA PASATUTAKO KIDEAK

Ematen dituzte, esandako moduan, 3. fasera pasatu ziren parte-hartzaileen kopuruak ere (langileen kasuan, ekintza soziala egiteko nahia adierazi zutenak).

3.3.4.4. BESTELAKO INFORMAZIO-ITURRIEK ADIERAZITAKOA

Ahize-AEK-ko kideek diote balorazio positiboak bat datozela bestelako bideetatik jaso duten informazioarekin. Dinamizatzaileek behatutakoaren arabera, parte-hartzaileek euskaraz jarduten

dute saioetan, eta ahoz jaso dituzten iruzkinak ere onak izan dira.

3.3.5. ARDURADUNEN ONDORIOAK

Emaitzetan aipatutakoak ikusita, Garmendia eta Urdangarinek diote baieza daitekeela saioek eragin positiboa dutela: balorazio onak jaso dituzte, gaiarekiko sentimendu positiboak sorrarazten ditu eta lortzen da parte-hartzaileek jarduerak euskaraz egitea.

4. EGITASMOEN AZTERKETA KONPARATIBOA

Azterketa konparatiboari ekin baino lehen, ohar bat: alderaketa egitean, oro har, ordena alfabetikoaren arabera azalduko dira egitasmoak, aurreko ataleko aurkezpen deskriptiboetan egin den moduan.

4.1. EGITASMOEN IZAERA

Hiru proiektuon alderaketari ekin orduko, aipatu beharreko lehenengo gauza da ez direla izaera bereko egitasmoak. Eta aintzat hartu beharrekoa da hori konparaketa egitean.

Aldahitz ikerketa 2014, izenak dioen moduan, ikerketa-lana da, Soziolinguistika Klusterreko eta EHUko ikertzaile banak burutua, beste eragile batzuen laguntzarekin. Ikerlana izanik, zehaztasun, sakontasun eta koherentzia handiz garatuta daude oinarri teorikoa, metodologia zein emaitzen jasotzea eta irakurketa. Proiektuak horixe izan zuen helburu (oinarri teoriko baten gainean, esku-hartzerako metodologia proposatu, eta emaitzak zorrotz aztertzea), eta finantziazioa izan zuen horretarako.

Egin Salto! eta *eusLiderrak* ez dira ikerlanak, baizik eta hizkuntza-aholkularitzek diseinatutako esku-hartze egitasmoak, bezeroei eskaintzeko prestatutakoak. Beraz, beste batzuk izan dira euren helburu nagusiak eta lehentasunak: bezeroei zerbitzu edo produktua eskaintzea; ez zen izango euren lehenengo helburua, hortaz, azterketa zehazta burutzea. Horiek horrela, espero izatekoa denez, ez dute *Aldahitz 2014*k besteko zehaztasun-sakontasun maila hainbat arlotan (gehienbat, emaitzen bilketan eta irakurketan). Horrek ez du esan nahi, hala ere, alor horiek zehaztu eta garatu ez dituztenik. Ikerketa ez da izan, ordea, euren helburu nagusia. Pentsatzekoa da, halaber, *Egin Salto!* eta *eusLiderrak* egitasmoen arduradunek ez dutela beti izango, eguneroko lanaren zurrunbiloan, nahi izanda ere, egokierarik edota denbora nahikorik datuen jasotze sistematizaturako nahiz horien

azterketa sakonerako.

Era berean, gogora ekarri behar da *eusLiderrak* eta *Egin Salto!* egitasmoen ardura duten erakundeak (Ahize-AEK eta Emun, hurrenez hurren) Soziolinguistika Klusterreko bazkide direla, eta, hortaz, *Aldahitz* ikerketaren bultzatzaile edo babesle ere badirela; badute, beraz, interesik arloan ikerketa sakonak bultzatzeko. Ez dezagun ahatz, azkenik, *Egin Salto!*-ren diseinua, neurri handi baten, *Aldahitz* ikerketaren oinarri teoriko zein ondorioetan oinarritzen dela.

4.2. ESKURATUTAKO INFORMAZIOA

Egitasmook argitaratuta duten informazioari dagokionez, bada alderik, bai kopuruan, bai nolakotasunean. Hein handi batean, desberdintasuna lotuta dago proiektuok izaera eta asmo desberdinak izatearekin. Bide batez, esan dezagun horrek izan duela eraginik zenbait atal alderatzeko orduan, gertatu baita egitasmo bat(zu)ek xehetasun ugari ematea eta beste bat(zu)ek nabarmen gutxiago.

Horrela, *Aldahitz ikerketa 2014* azterlanak, ikerlana denez, sakontasun handiz ematen du lanaren atal guztien berri, izen bereko dokumentuan. Soziolinguistika Klusterraren webgunean dago eskuragarri eta bertan argi adierazten dira oinarri teorikoaren, metodologiaren zein emaitzen xehetasun guztiak.

eusLiderrak egitasmoari buruzkoak hainbat gunetan plazaratu dira. Azterlan honetarako, *Hizpide* aldizkariaren 82. alean argitaratutako “*eusLiderrak. Hizkuntza-portaera berriak sortzeko tailerra*” artikulua izan dugu informazio-iturri nagusi (ikus bibliografia), bertan ematen baita informazio ugari zein sakonena. Hain zuzen, oinarri teorikoaren eta metodologiaren berri zehatza ematen da. Emaitzei dagokionez, ostera, gehienbat ikasle-taldeetakoak agertzen dira; apenas, ordea, lan mundukoak. Izan ere, jakin dugunez, langile-taldeetako emaitzak ez dituzte bateratuta eta osotasunean aztertuta (alegia, ez daukate bateratuta tailer guztietakoak edo kopuru esanguratsu batekoak, behinik behin). *Hizpide* aldizkariko artikulua gain, informazioa kaleratu dute, besteak beste, AEKren webgunean (orokorra nahiz Ahize-AEKren katalogokoa) eta *Aizu!* aldizkarian (erreportajea). Azken euskarri horietan argitaratutakoa orokorragoa eta informalagoa da, bestelako helburua duenez gero (dibulgazioa edota informazio orokorra ematea).

Egin Salto!-ren kasuan, egitasmoaren aurkezpen deskriptiboan adierazi dugun moduan, Interneten publikatuta aurkitu dugu, batetik, Emunen webguneko Lantalan blogean eskainitako informazioa, eta, bestetik, IMHren 30+10 mintegiaren 10. edizioan egindako aurkezpenaren bideoa. Horietan, orokorrean azaltzen dituzte egitasmoaren iturri teorikoak, metodologia zein emaitzak (jakina, pentsatzekoa da webgunean argitaratutakoaren helburua dela bisitariari egitasmoaren ikuspegi orokorra eskaintzea, eta Elgoibarko IMHn egindako aurkezpenean ere proiektuaren aurkezpen orokorra egitea izango zuten helburu). Argitara emanda dagoenaz gain, arduradunek helarazi dizkigute zehaztapen gehiago. Alabaina, gehienbat lan honek ezarri digun denbora muga dela eta, ez dugu aukerarik izan nahi genuen informazio guztia eskuratzeko; egitasmoak zehaztasunez aztertu eta konparatzeko beharrezko genukeen informazioa, hain zuzen.

Horiek horrela izanda ere, merezi du berriro azpimarratzea lanaren sarreran aipatu duguna: lan-munduko hizkuntza-aholkularitzen egitasmoen artean, lankideen artean ahozko erabilera handitzea helburu nagusi dutenetatik, aztergai ditugun hauek (*Egin Salto!* eta *eusLiderrak*) dira Interneten informazio gehien eskuragarri dutenetakoak, gure bilaketetan ikusi ahal izan dugunaren arabera, bederen. Horixe izan da, hain zuzen, azterketa honetarako proiektu horiek aukeratzeko arrazoi nagusia. Horrek erakusten du, gure iritzian, bi aholkularitza horien borondatea informazioa partekatzeko eta egiten dihardutenaren berri emateko.

4.3. EGITASMOEN HELBURU NAGUSIAK

Egitasmoen azken xedea antzekoa izan liteke, hain zuzen, lankideen artean euskararen erabilera handitzea (bereziki, ahozko erabilera). Hala ere, badira desberdintasunak begiratzen badiegu helburuez ematen dituzten zehaztasunei. Hona zer aurkituko dugun:

2014ko *Aldahitz*-en helburu nagusia ikerketa-lana burutzea izan da: esku-hartzeko metodologia zehatza proposatzea eta aztertzea laneko harremanetako hizkuntza-jokaera eta ohituretan duen eragina. Hau da, hizkuntza-ohituren aldaketa dute azken xede ikerlanaren sustatzaileek (gogora dezagun azterlanaren izen osoa *Aldahitz ikerketa 2014. Eusle metodologia eta hizkuntza ohituren aldaketa lan munduan* dela, eta ikerlanaren aurrekariak ere ohitura-aldaketen ingurukoak direla. Helburu goren horren bidean, metodologia diseinatzean, ikertzaileen xedea izan da, euren hitzetan, “euskaraz gehiago egiteko aukera emango duen dinamika berri bat sortzea” (Jauregi eta Suberbiola, 2014: 52). Azpimarratu egiten dituzte, gainera, “aukerak sortzea” eta “dinamika” berbak,

nabarmentzeko, batetik, euskara gehiago erabili ahal izateko, sarri, gakoa izaten dela aukera zehatz egokiak sortzea (asmo orokorra edukitzea ez da eta nahikoa izaten); bestetik, euskararen erabilera handitzeko bide zehatz bat proposatzen ari direla.

Egin salto! interbentzioan, ostera, bi dira helburu nagusiak: batetik, euskararen erabilera handitzea (ahal dela, euskarazko ohitura sortzea) “euskaldun”-“euskaldungai”⁸ bikoteetan. Hau da, honako kideek osatutako bikoteetan: euskaraz jardun ohi duen kide batek eta ohiturarik ez duen beste batek (“euskaldungai” horrek gaitasuna badu, mugatua izan arren; eta, sarritan, ikasprozesuan ari da edo aritu da). Aurrekoarekin batera, helburu dute “euskaldungai” horri abagunea eskaintzea egunerokoan euskaraz jarduteko, egoera erreal batean; ez bakarrik hizkuntza praktikatzeko (horretarako sortutako mintza-talde baten bezala, adibidez), benetan erabiltzeko ere bai. Horretan, *Egin Salto!*-ren proposamenak bat egiten du *Aldahitz*-ekin, bien xedea baita aukera eskaintzea euskaraz gehiago egiteko, eta horretarako bide zehatza proposatzen baitute. Hala ere, aurrerago ere esan dugun moduan, *Egin Salto!* euskaldun-“euskaldungai” bikoteetan gauzatzen denez, esan genezake 2011ko *Aldahitz ikerketa* duela erreferentzia nagusi (aztertu zituzten horrelako bikoteetan gertatutako hizkuntza-ohitura aldaketak -gaztelaniatik euskararakoak-). Esandakoez gain, bigarren mailako helburu litzateke egitasmoaren eragina hedatzea parte hartzen ari ez diren langileetara ere.

Azkenik, *eusLiderrak* tailerraren xedea da, arduradunen hitzetan, kideen euskararen erabilera informala areagotzea. Helburu nagusi horren bidean, epe laburragorako helburu gisa, lortu nahi dute (emozio positiboak sorraraziko dizkien ekintzaren bitartez) euskarazko jokabide berria sorraraztea eta ingurukoengan eragin dezatela. Beraz, beste bien aldean, bide desberdina proposatzen du *eusLiderrak*-ek. Ez du helburuaren fokua kokatzen, beraz, ohituren aldaketan (beste biek bai); ezta, bide horretan, euskaraz jarduteko aukerak sortzean. Xede zehatza kokatzen dute hizkuntza-portaera berria sortzean eta lidergo-eraldatzaile (kideengan eragile) portaera lortzean (“eusLiderrak. Hizkuntza-portaera berriak sortzeko tailerra” izena eman ohi diote, sarri, egitasmoari).

Hau da, esango genuke *Aldahitz*-ek eta *Egin Salto!*-k jomuga kokatzen dutela euskarazko ohitura lortzean, jokaera iraunkor eta finkatua lortzean, alegia (nahiz eta erdibideko lorpenak ere badiren helburu). *eusLiderrak*-ek, bere aldetik, portaera berriaren sorrera luke arreta-gune nagusi (ikuspegi puntualagoa, nolabait, ez ohiturak eskatzen duen iraunkortasunetik begiratuta). Jomugan luke, gure

8 2011ko *Aldahitz ikerketan* erabiltzen da “euskaldungai” terminoa (Soziolinguistika Klusterra, 2011).

ikuspegitik, erdaraz egitetik euskaraz egiten hastera dagoen inflexio puntua (ohiturarena geroagoko fasea litzateke).

Beraz, helburuen definizioan antzekotasunak zein desberdintasunak daude; eta horiek azaltzen dituzte, jakina, egindako aukera teoriko/metodologikoetan dauden aldeetako batzuk.

4.4. OINARRI TEORIKO-METODOLOGIKOEN ALDERAKETA

4.4.1. IKUSPEGI SOZIOLOGIKOA/PSIKOLOGIKOA OINARRI

TEORIKOAN ETA METODOLOGIAN

Hiru egitasmoen ikuspegia bat dator hainbat arlotan, baina desberdina da beste batzuetan. Esan dugunez, hirurek dute xede partaideen (lankideen) arteko euskararen erabilera handitzea (bereziki, ahozkoa). Haatik, helburu nagusia lortzeko, bide desberdinak egon litezke, besteak beste, esku-hartze zuzena ezarriko den eremuari eta unitateari dagokionez (Jauregi eta Suberbiola, 2014). Ondoko lerroetan azalduko ditugu hautu horien ingurukoak.

4.4.1.1. ZEIN EREMUTAN ESKU HARTZEN DUTE ZUZENEAN: JOKABIDEA, HAUTEMATEA.

Eremuari dagokionez, lerrootan aztertuko dugu egitasmoek zein alderditan esku hartzen duten zuzenean: norbanakoaren hautematean (eremu psikologikoan -ideiak, emozioak, motibazioak...-), jokabidearen esparruan edo bietan. Jakina, egitasmoen oinarri teorikoetan ikusi dugun moduan, alderdiotako baten esku hartzeak eragina izango du bestean ere, elkarrekiko nolabaiteko kontsonantziarako joera dutenez gero.

Aldahitz ikerketa 2014: jokabidean esku hartu.

Aldahitz egitasmoaren Eusle metodologiak, modu zuzenean, esku hartzen du parte-hartzaileen jokabidean. Zehatzago, zuzen-zuzenean, eusleen jokabidean (hizkuntza-arau zorrotzari eutsi behar diotenez); baina, horren ondorioa da gainerako kideek ere moldatu behar dutela euren portaera egoera berriaren arabera, sistemako kideen elkarrekintza-jokoak oreka bilatzera jotzen baitu (elkarrekiko osagarritasunera, hortaz) (Jauregi eta Suberbiola, 2014). Ikertzaileek eurek behin eta berriro nabarmentzen dute egitasmoaren planteamendua soziologikoa dela (finean, hizkuntza-jokaerari dagokiona):

“Esan daiteke alderdi faktikoak -jokaerazkoak- duela ardaztasuna esperientzia eredu honetan, eta alderdi sinbolikoa, ondorioz, -motiboak, usteak, aldarteak...- inguruan gelditzen dela (...) Ez gara plano psikologiko batean kokatzen, soziologikoan baizik” (Jauregi eta Suberbiola, 2014: 49).

Metodologiak ez du, hortaz, zuzenean esku-hartzen alderdi psikologikoan (ez dute, esaterako, motibazio edo hausnarketa-saiorik egiten); baina bai, zeharka. Hots, metodologiaren ondorioak bi mailetan hedatzen dira: jokabidean (arloan soziologikoan, esan dezagun) zein norbanakoen hautemate edo alderdi psikologikoan. Metodologiaren ondorioetako bat da, esan bezala, kide guztiek berregokitu beharko dutela euren jokaera egoera berrian oreka lortzera jotzeko. Ikerketaren egileek proposatzen dute, ordea, aurrekoarekin batera, espero dugula taldekideek egokituko dutela jokabide berriarekiko hautematea ere (moldatu egingo dituztela hasieran ezohiko jokaerarekiko -euskaraz egitea- zituzten ideiak), harekin bat etorri edo justifika dezan (disonantzia kognitiboa saiheste aldera, Festinger-i jarraiki; edota ahalegin arrazionalizatzaile-narratzaileetan, Aronson eta Bruner-en bidetik) (ikus *Aldahitz*-en oinarri teorikoan, 3.1.2.3. atala). Beraz, ondorioz, ekarriko luke norbanakoen eremu psikologikoaren berregituratzea ere (Jauregi eta Suberbiola, 2014).

Aipatu dugun moduan, ikertzaileek berriaz azpimarratzen dute esku-hartzea jokabidearen alderdira bideratzearen komenigarritasuna. Bide hori eraginkorragotzat dute hautemate-eremutik ekitea baino (hau da, motibazioan, ideietan, pentsaeran, jarreretan esku hartzea baino), euskararen aldeko jarrera izatea ez da-eta nahikoa berme euskarazko jokabidea sorrarazteko. Izan ere, sakon azaltzen dute oinarri teorikoan hizkuntza-jokaera ez dela norbanakoaren hautu hutsa eta jendarte-jokaera gisa ulertu behar dela; alegia, taldearen eremu sistemikoan gertatzen denez, elkarri egokitutako jokaerak gauzatzen dituztela taldekideek, eta jokabideon ondorioz nahiz bitartez sortzen den hizkuntza-arau inplizituaren barruan garatzen direla. Beraz, “euskararen alde” egon arren (baita euskaltzalea izanda ere), taldean araua erdararen aldekoa bada (arrazoi desberdinak medio), oso ohikoa izaten da euskararen aldekoek ere erdaraz jardutea nagusiki. Gainera, jokabidea justifikatzeko arrazoibidea bilatu edo sortu ohi da, arestian aipatu legez, portaera eta ideien kontsonantziarako pertsonon beharra dela eta (Jauregi eta Suberbiola, 2014).

Hala ere, metodologiaren muinak (zuzenean) jokabidearen alderdian esku hartzen badu ere, **mekanismo psikologiko andana ere baliatzen ditu zeharka**, parte-hartzaileak helburura bideratzeko xedez, besteak beste: disonantzia kognitiboa eta joera arrazionalizatzaile-narratzaileak; hizkuntza hautatzeko askatasunaren irudikeria; taldearen erabakiak euslearen jardunari ematen dion

zilegitasuna; “uzleek” egokitzeko sumatzen duten presioa (erantzukizuna euren gainean kokatzen da, hizkuntza aukera dezaketenez); harreman simetrikoetarako joera; ezinbestekotasun biguneko testuinguruan, taldekideek dituzten arazoak (edo sentitzen duten “presioa”) jokaera-eskariari baiezkota emateko (eskatzaileen prestigioa, zuzendaritzaren oniritzia, erabakiak hartzeko sistema demokratikoa...) zein astero-astero aurrera jarraitzeko (emandako hitza, taldearen presioa, erabilera-balioa, jardutearen atsegina, ikertzaileen jarraipena...); eta abar. Ikus dezakegunez, mekanismo horien artean, motibatzaileak dira hainbat (motibazioa eragiten dute; bestela esanda, jardueran aurrera egiteko indarra): esaterako, erabilera-balioaren hautematea, jardutearen atsegina edo disonantzia kognitiboa. Orduan, egileek ere azpimarratzen duten legez, esan daiteke motibazioa ez dutela esplizituki lantzen, baina kontzienteki erabiltzen dituztela zenbait tresna soziologiko, motibazioa (alderdi psikologikoa) suspertzeko.

***Egin Salto!* egitasmoa: jokabidean zein alderdi psikologikoan esku hartu.**

Egin Salto!-ren esku-hartzeak bietan eragiten du zuzenean, jokabidean zein hautematean (hortaz, alderdi soziologikoan zein norbanakoen psikologian).

Jokabidearen eremuari ekiteko, hizkuntza-araua ezartzen diote “laguntzaile” jokatzeko duen bikotekideari: beti egin behar dio euskaraz “lagunduari”. Esan liteke, alde horretatik, eusle metodologiaren aldaera dela (“laguntzaileak” *Aldahitz*-eko eusleen modu berean jokatu behar du “lagunduaekin”). Izan ere, dagoeneko aipatu dugun moduan, egitasmoa diseinatzean, besteak beste, ikerketa bitan oinarritu ziren (*Aldahitz* eta *Bikoteen artean hizkuntza-ohituren aldaketa: ikerketa-lana*). Dena dela, badirudi, gehienbat, jarraitzen diola 2011 urteko *Aldahitz* ikerketari, bikoteen osaketari erreparatuta: euskaraz eroso jarduten duen “laguntzailea” (euskarari eusteko jokaera duena) eta euskararen ikaste edo jabetze-prozesuan diharduen “lagundua”.

Norbanakoaren alderdi psikologikoan esku hartzeko, aldiz, parte-hartzaileei trebakuntza psikolinguistikoa ematen diete. Egitasmoaren deskribapenean azaldu dugu zertan datzan (ikus *Egin Salto!*-ren aurkezpen deskriptiboa). Laburbilduz, bost saiotan, eskaintzen diete hizkuntza-ohituren aldaketari buruzko formazioa: teoria, euren esperientziaren gaineko hausnarketa, sentipenen ingurukoa, oztopoak gainditzeko aholkuak, gomendioak, motibazioaren lanketa...

Esan genezake, betiere, geure ikuspegitik, *Egin Salto!* egitasmoan jokabide-araua litzatekeela muina

eta trebakuntza psikolinguistikoa jokabide hori babesteko eskaintzen den bide osagarria.

eusLiderrak egitasmoa: gehienbat, alderdi psikologikoan; jokabidean ere bai.

eusLiderrak egitasmoan, gehienbat, norbanakoen alderdi psikologikoan esku hartzen dute modu zuzenean. Horretarako, alde batetik, saio-formatua darabilte. Saioetan, hainbat ideia helarazten dizkiete parte-hartzaileei, aurkezpen zuzenaren bitartez edo zeharkako estrategiak/dinamikak baliatuz. Jakina, esku-hartzearekin lortu nahi dute, parte-hartzaileen hautemate psikologikoa berregituratzeaz gain eta horren ondorioz, jokabide berria sorraraztea. Hau da, esku-hartze psikologiko horren helburu nagusia jokabidea aldaraztea da; baina horretarako darabiltzaten bide gehienek, lehenengo urrats gisa, hautematea aldatzea dute helburu, gero hortik jokabidera ailegatzeko.

Asmo horrekin, tailerra osatzen duten saioetan, ondokoak egiten dituzte, besteak beste:

-Informazio soziolinguistikoa eman (ikus 3.3.3.1. eta 3.3.3.2. atalak), aurreiritziak desegiteko, euskararekiko jarrera positiboak nahiz motibazioa sustatzeko eta aldaketarako beharra ikusarazteko.

-Pertsuasioaren arauak erabili (ikus 3.3.2.4. atala; bertan azaltzen da nola erabiltzen dituzten pertsuasio-teknikak esku-hartzean). Besteren artean, hurrengoak erabiltzen dituzte esku-hartze zuzenean: konfiantza adierazten diete, parte-hartzaileak “beharra” senti dezaten eurengan ipinitako konfiantza itzultzeko. Gainera, lortu nahi dute koherentziaz joka dezatela: euskararen aldeko eskaera egin behar badiete beste kide batzuei (eskatu euskararen aldeko adierazpena grabatzeko, galdetegia betetzeko edo jarduera baten euskaraz parte hartzeko -ikus 3.3.3.2. atala-), eurek euskaraz jardutea izango da koherente jokatzea (esplizituki adierazten diete komeni zaiela koherente jokatzea, lidergoari buruzkoak lantzen dituztenean; horrez gain, jakina, disonantzia kognitiboaren eragina ere espero dute, baina hori zeharkako eragina da, ez esku-hartze zuzena). Aurrekoekin batera, lidergo eraldatzailea ere bultzatzen dute (berariaz lantzen dituzte liderren ezaugarriak eta jokaera), lortzeko, esaterako, koherentzia nahiz besteengan eragiteko jokaera.

-EraLan 2 proiektuan lantzeko proposatu ziren aldagaiei eragin (ikus 3.3.2.5. eta 3.3.3.2. atalak). Horietako aldagai batzuetan ere zuzenean esku hartzen dute. Adibidez, “hautemandako kontrolagarritasuna” lortzeko (senti dezatela egoera kontrolpean dutela, kudeatzeko gauza direla), berariaz adierazten diete gai direla eskaera egiteko. Era berean, egindakoaren emaitzak aztertzen

dituztenean, lorpenetan jartzen dute arreta, senti dezaten euren lana eraginkorra dela (*EraLan 2* proiektuko “eraginkortasun iguripenak” aldagaia). “Hizkuntza kontzientzia” ere lantzen dute (aipatu dugu dagoeneko saioetan informazio ugari ematen dietela hori lortu nahian). Halaber, berariaz lantzen dituzte “talde-babesa”, “aldaketarekiko konpromisoa”, etab.

Komeni da, atzera ere, gogoraztea alderdi psikologikoko elementu horietan guztietan zuzenean esku hartzen dutela, beren-beregi aipatuta edota landuta. Horiez gain, jakina, beste hainbat hari psikologiko ere ukitzen dituzte, zeharka (adibidez, disonantzia kognitiboa).

Nahiz eta, batez ere, eremu psikologikoan esku hartu, **jokabide aldakuntza zuzenak ere eskatzen dizkiete parte-hartzaileei**. Zehazki, proposatzen diete norbaiti eskaera bi egitea: txikia (galdetegia betetzea) eta handiagoa (grabazioa edota jarduera batean parte hartzea -askaria, Pilates...-). Aipatutako jarduera hori ere burutzen dute (askaria, ardo-dastaketa...). Dena dela, jokabidezko ekintza horien bitartez lortu nahi dute, berriro, eremu psikologikoan eragitea: nahi dute emozionalki positiboak eta esanguratsuak izan daitezela, hautematearen eraldaketa eragiteko, eta, ondorioz, euskarazko jokabidea izan dezaten (emozioaren indarraz gain, disonantzia kognitiboaren lana ere espero dute -jarduera euskaraz egin badute, hori justifikatzeko pentsamendua berregokitzea). Alabaina, azpimarratu beharra dago parte-hartzaileei ez dietela euskarazko jokabidea, arau gisa, eskatzen (*Aldahitz* eta *Egin Salto!*-n “eusleei” eta “laguntzaileei bezala); koherentziaren ondorioz, baina, espero izaten dute hola jardungo dutela elkarren artean (eta, diotenez, horixe gertatu ohi da).

4.4.1.2. ZUZENAKO ESKU-HARTZERAKO UNITATEA: NORBANAKOA, TALDEA.

Metodologiak ezartzen duen esku-hartzea, era berean, izan daiteke norbanakoari zein taldeari zuzendua. Agerikoa da, dena dela, aukera horiek lotuta daudela aurreko atalean aztertu dugunarekin, *Aldahitz*-en egileek ohartarazten duten moduan (Jauregi eta Suberbiola, 2014). Horrela, esku-hartzen bada (betiere, zuzenean) alderdi psikologikoan, hitz egiten ari gara esku-hartze unitate gisa norbanakoa hartzeaz (hautemate psikologikoa norbanakoarena da eta). Aldiz, esku hartzen bada jokabideetan, talde-mailan esku hartzen ari gara; izan ere, nahiz eta aldarazi norbanako zehatzen jokabidea (arauaren bitartez), jokaerak gertatzen dira taldearen eremuko elkarrekintza-testuinguruan, eta, hortaz, talde osoa berregokituko da (maila soziologikoa). Hauxe da, bada, aztergai ditugun egitasmoetan aurkitutakoa:

Aldahitz ikerketa 2014: unitatea, taldea.

Aldahitz egitasmoaren Eusle metodologiak, modu zuzenean, esku hartzen du talde mailan; beraz, aurreko atalean adierazi dugun moduan, alderdi soziologikoan. Eusleei hizkuntza-arau zorrotza ezarrita (eusleek euskaraz egin behar diete talde jakin bateko kide guztiei), talde mailako jokabideetan eragiten du; hau da, bikote-mailako hizkuntza-harremanetatik hasita, kide ugari taldeen jokabidera. Izan ere, egitasmoaren oinarri teorikoan azpimarratzen denez, hizkuntza-jokabidea ez da bakardadean gertatzen, gutxienez bi lagun behar dira-eta elkarrizketa bat izateko. Eusleen jokabide-arauak ekartzen du, ondorioz, lankideek unean-unean osatzen dituzten talde desberdinetan (bikoteetan, hirukoetan, laukoetan nahiz talde handiagoetan) hizkuntza-araua berregituratzea.

Egin Salto! egitasmoa: unitatea, taldea (bikotea) zein norbanakoa.

Egin Salto!-n biak dira esku-hartze unitate, bikotea zein norbanakoa. Alde batetik, beraz, taldea (zehatzago, bikotea), “laguntzaileek” “lagunduari” euskaraz egiteko araua bete behar baitute. Beraz, *Aldahitz*-en antzeko planteamendua luke, baina eragin gune biziena bikotea litzateke (“lagunduak” egokitu beharko du bere jokabidea “laguntzailearenera”). Bestetik, ostera, trebakuntza-saioak ere antolatzen dituztenez, esan genezake horietan esku-hartze unitatea norbanakoa dela (banakoen alderdi psikologikoan esku hartzen da horien bitartez).

eusLiderrak egitasmoa: unitatea, norbanakoa (gehienbat) zein taldea.

Aurreko atalean azaldu bezala, *eusLiderrak* egitasmoan, gehienbat, norbanakoen alderdi psikologikoan esku hartzen dute modu zuzenean, bai saioetako dinamiken bitartez, bai partaideek burutzen dituzten eskaeren bitartez (kide bati galdetegia betetzeko eskaria, bideoa grabatzekoa, askarira etortzekoa...). Izan ere, jarduera horien guztien bitartez, bilatzen dute norbanako bakoitzaren hautematea berregituratzea.

Dena dela, egitasmoan bada esku-hartzerik talde-mailako jokabidean ere. Batetik, eskaria bikoteka egiten dute zenbaitetan; arduradunak horixe sustatzen ahalegintzen dira, hain zuzen, espero dutelako parte-hartzaile bikoteek koherentziaz jokatu eta euren artean euskaraz jardungo dutela. Bestetik, kide bati eskaria egitean (lagun bati, ezagun bati...) euskaraz arituko dira normalean gaztelaniaz egiten duten lagun horrekin; beraz, bikote edo hirukote mailan bultzatzen dute, kasu horretan, jokabide aldaketa. Bestalde, Ahize-AEK-kideek diote parte-hartzaileek, saioetan, euskaraz

egin ohi dutela elkarrekin (Garmendia eta Urdangarin, 2014). Orduan, testuinguru horretan ere gertatzen da talde-mailako euskarazko jokabidea (zeharka eragindakoa).

4.4.2. OINARRI TEORIKOEN BESTE ZENBAIT ALDERDI

Hiru proiektuek daukate oinarri teorikoa. *Aldahitz 2014 ikerketak* eta *eusLiderrak* egitasmoak idatziz zehaztuta dute (ikus 3.1.2 eta 3.3.2. atalak). *Egin Salto!*-k ez dauzka idatziz adierazita oinarriok; hala ere, komeni da gogora ekartzea oinarrizko delako *Aldahitz* zein *Bikoteen artean hizkuntza ohituren aldaketa: ikerketa-lana* ikerlanetan, eta, beraz, bere oinarri teorikotzat hartzen dituela horien marko teorikoak nahiz ondorioak.

4.4.2.1. ZUTABEAK

Hasteko, aurkezpen atalean esandakoa ekarriko dugu berriro: ***Aldahitz ikerketa 2014***ren marko teorikoaren **muina** da **hizkuntza-jokaera jendarte-jokaera** dela. Hortaz, oso sakon aztertzen dituzte hizkuntza-jokaera, araua eta ohiturak sortzen eta gidatzen dituzten **mekanismo soziologiko nahiz psikosozialak** (ikus 3.1.2. atala). Horrela, oinarri teorikoaren zatirik handiena muineko ideiarene eta bere inguruko mekanismo horien inguruan osatuta dago: taldekideek jokabideak elkarri egokitzeko duten beharra eta joera, hizkuntza-arau nahiz ohituraren sorrera-prozesua, arauzko aukeraren *de factoko* ezarpena, hizkuntzaren erabilera-balioaren hautematea, jardutearen atsegina, eta abar.

Egin Salto!-ri dagokionez, aintzat hartuta bere metodologia eta oinarri hartu dituzten ikerlan biak, esan genezake *Aldahitz*-en **ikuspegi bertsua** darabilela: hizkuntza-jokaera (eta ohitura) jendarte-jokaeran kokatzea (taldearen elkarrekintza-testuinguruan, hortaz), eta gogoan hartzea gidatzen duten mekanismoak. Badirudi, dagoeneko aipatu dugun legez, bereziki erreparatzen diola 2011ko *Aldahitz ikerketaren* oinarri eta ondorioei, esperientzia bikoteetan kokatzen duenez (“euskaldun-euskaldungai” bikoetan). Ikuspegiari dagokionez, *Aldahitz ikerketa 2014*-ren planteamendutik urrunduko lukeen elementua litzateke trebakuntza-saioen erabilera (*Aldahitz 2014n* ez baliatzeko erabakia argudiatzen dute, batetik, sinpletasunaren mesedetan, eta, bestetik, parte-hartzaileen arreta osoa hizkuntza-jokabidearen aldaketara bideratzeko).

Bestalde, *eusLiderrak*-en oinarri teorikoa hiru eskola edo proposamen teoriko-metodologikoren inguruan eratuta dago: Terapia Labur Estrategikoa (TLE), Precede metodoa eta Cialdiniren

pertsuasioaren arauak (eta horietatik abiatuta proposatutako teknikak). Hiru horiei erants dakizkieke *EraLan 2* ikerketa-proiektuan lantzea proposatu ziren aldagaiak (ikus 3.3.2.5. atala). Gero, zutabe horietako bakoitzaren barruan, ideia, aldagai edo kontzeptu ugari hartzen dituzte aintzat. Gogoeta teorikoez gain, teknika ugari aipatzen dituzte oinarri teorikoan (eta erabili, metodologian); izan ere, arduradunen hitzetan, “gizarte-psikologian erabiltzen diren teknika batzuen bilduma da *eusLiderrak*” (Garmendia eta Urdangarin, 2014: 42). Beraz, geure ikuspegitik, esan liteke **lau zutabe nagusiren** inguruan osatutako oinarri teoriko-metodologikoa dela.

4.4.2.2. IKUSPEGIA

Ikuspegiari dagokionez, 4.4.1. atalean esan dugu *Aldahitz*-en metodologiak hizkuntza-jokabidearen eremuan esku hartzen duela (zuzenean), *eusLiderrak*-ek, gehienbat, alderdi psikologikoan, eta *Egin Salto!*-k bietan. Egitasmoon oinarri teorikoak ere, jakina, bat datoz metodologian agertzen duten ikuspegiarekin: *Aldahitz 2014n* eta *Egin Salto!*-k oinarri dituen ikerlanetan, esan bezala, hizkuntza-jokaera gertaera soziologiko gisa aztertzen da (parte hartzen duten mekanismo soziologikoekin batera, psikosozialak eta psikologikoak ere xehatzen badira ere). *EusLiderrak*-en kasuan, esan daiteke psikologiaren alorretik begiratuta osatu dela oinarri teorikoa (arduradunek eurek azpimarratzen dute *eusLiderrak*-en zutabe nagusiak psikologia sozialaren eremuan kokatzen direla): TLEk portaera-aldaketa bizkorak lortzeko proposamena egiten du, eta Cialdiniren pertsuasioaren arauak eta teknikak pertsonak limurtu edo konbentzitzeari begirakoak dira; bada, biek ala biek proposatzen dute alderdi psikologikoan eragitea (esaterako, TLEk aldarrikatzen du emozioetan eragitea eraginkorragoa dela, baita pertsuasioa teknika gisa ere; pertsuasio-teknikak ere psikologian eragiteko tresnak dira). Kontuan izan behar da egitasmoaren iraupena laburragoa dela (edo ez hain jarraitua, behintzat) eta ez duela bilatzen hizkuntza-ohitura berriak sortu eta finkatzea, une batean jokabide berria sorraraztea baino.

4.4.2.3. BESTELAKO ALDERDIAK

Bestalde, aipagarria da *eusLiderrak*-ek leku nabarmen samarra egiten diola **lidergoaren** ideari (proiektuaren izenak berak ere horri egiten dio erreferentzia). Lidergoa berariaz aipatzen eta lantzen dute saioetan, bai eta partaideak horrela jokatzera animatu ere. *Aldahitz 2014k* eta *Egin Salto!*-k, ostera, ez dute esplizituki aipatzen kontzeptua, eta ez dute era horretan erabiltzen. Dena den, egitasmoetan, topa genezake antzeko ideiarik: *eusliderrak*-en arduradunek azpimarratzen dute gutxi batzuek gaitasuna dutela besteengan eragiteko (pentsamenduan, motibazioan zein jokaeretan);

Aldahitz-ek darabilen gogoetan, eusle gutxi batzuek eragin dezakete beste kideen egokitzapena, eta, beraz, sistemaren berregituraketa (ikus 3.1.2.3. atala). *eusLiderrak*-en ez bezala, ordea, *Aldahitz*ek aztertzen du nola egokitzen den kideen gehiengo pasibo/moldagarria gutxiengo aktibo/ausartaren (eusleen, metodologian) jokabidera. Beraz, eusleen planteamendu teorikoan, begiratzen zaie nolabaiteko jokaerazko “lider” gisa (besteen jokaera-egokitzea eragingo dutenak); *eusLiderrak*-en proposamenak, ordea, gehiago begiratzen dio besteen alderdi psikologikoan eragiteko gaitasunari (ideietan, motibazioan...).

Horrez gain, *eusLiderrak*-en **emozioen garrantzia** ardatza da (TL Eren proposamenaren ildotik), bai oinarri teorikoan, bai metodologian. Azpimarratzen dute motibazioa pizteko emozioek indar handiagoa dutela arazoiek baino; eta, bide horretan, metodologian proposatzen zaien ekintzaren bitartez, emozio esanguratsuak eragin nahi dituzte. *Aldahitz 2014*-k jasotzen du aipamena oinarri teorikoan (ikus *Aldahitz ikerketa 2014*, 19. or.), baina ez du horretan sakontzen. *Egin Salto!*-n, metodologian, trebakuntza psikolinguistikoa aipatzen dutenean, espresuki aipatzen dute komeni dela emozioez jardutea.

Oinarri teorikoari dagokion atala amaitzeko, esango dugu badirela **hiru egitasmoetan garrantzitsu diren hainbat kontzeptu** (*eusLiderrak* eta *Aldahitz*-en beren-beregi aipatuak; *Egin Salto!*-n, zeharka) Honako hauek dira nagusiak:

- Disonantzia kognitiboa (kontsonantzia edo koherentziarako joera).
- Egitasmoaren ardura du(t)en erakunde(ar)en prestigioa: *eusLiderrak*-ek “autoritateari” lotuta aipatzen du (pertsuasioaren arauen artean); izan ere, dio autoritate edo prestigio horrek parte-hartzaileengan sinesgarritasuna eragiten duela. *Aldahitz*-ek ere badarabil prestigio hori, parte-hartzaileen baiezkora zein atxikimendua lortzeko.

Beste zenbait kontzeptuk ez dute izen bera, baina lotura izan dezakete, Zehazki, *eusLiderrak* egitasmoak darabiltzan pertsuasioaren arau batzuek (ikus 3.3.2.4. atala) lotura izan lezakete *Aldahitz*-ek erabiltzen dituen hainbat kontzepturekin:

- *eusLiderrak*-ek darabilen “gizarte-balidazioak” (hau da, joera dugula besteek bezala jokatzeko eta euren oniritzia bilatzeko), zerikusia izan lezake *Aldahitz*-ek darabilen talde-presioarekin (taldeak esan dio baietz egitasmoari, beraz, kideek presioa sentituko dute taldeari ez huts egiteko).

- *eusLiderrak*-en “elkarrekikotasunak” (jendarteko harremanetan, jasotakoa nolabait itzultzera behartzen gaituena) lotura du besteen jokabidera egokitzeko zein orekarako joerekin.
- Azkenik, “autosalmenta” lotuta egon liteke Aronson eta Brunerrek, hurrenez hurren, proposatutako joera arrazionalizatzaile eta narratzaileekin (*Aldahitz*-en oinarri teorikoan jasota daude; ikus 3.1.2.).

Dena dela, hainbat kontzeptutan bat etorri arren, esan bezala, egitasmoon planteamendu edo ikuspegi orokorra desberdina da (*Aldahitz* eta *eusLiderrak*-ena, bereziki).

4.4.3. TALDE ETA EGOERA MOTAK

Hiru egitasmoak burutzen dira talde naturaletan. Hau da, ez dira beren-beregi esperientzia horietarako sortutako taldeak; aitzitik, esperientziak eraman dira berez baziren taldeetara (aztergai dugun kasuan, langile-taldeetara). Dena dela, ekar dezagun gogora 4.4.1.2. atalean aztertu duguna: *Aldahitz*-en eta *Egin Salto!*-n esku-hartzea taldeari (talde naturalari) begirakoa da (azkenengoan, interbentzioaren atal nagusia bikoteei begirakoa; saioek, aldiz, norbanakoengan esku hartzen dute). *EusLiderrak*-en, ostera, tailerraren parte handi baten (saioak), esku-hartzea norbanakoen psikologiarengan egiten da (taldeka parte hartzen duten arren). Eskaria egitean edota “ekintza sozialean”, ordea, talde naturalei zuzentzen zaie esku-hartzea: batetik, kideek binaka burutu dezakete eskaria; bestetik, “ekintza sozial” delakoan, talde osoak parte hartzeaz gain, sarritan, euren inguru hurbileko kideak gonbidatzen dituzte jarduera bat egitera (euskaraz): askaria, ardo-dastaketa...

Bestalde, aztertzen badugu esku-hartzea zein egoeratan gauzatzen den, hurrengoa ikusiko dugu: *Aldahitz 2014*ren Eusle metodologiaren esku-hartzea eguneroko lan-egoera errealean kokatzen da. Oinarri teorikoan, ikerketaren egileek nabarmen azpimarratzen dituzte aukera metodologiko horren onurak. Diote, esperientziaren helburua denez talde baten eremu sistemikoa berregituratzea, eraginkorrena dela jokabidean zuzenean eragitea, jokabide hori gertatzen den jendarte-eremuan bertan (talde naturalean) eta egoera errealean (kasu honetan, lan-jardunean) (Jauregi eta Suberbiola, 2014). *Egin Salto!*-k ere bide beretik jotzen du, atal nagusienari dagokionez, behintzat: bikoteen harremana lan-harreman naturala da, eta esku-hartzea laneko egoera errealean kokatzen da. Hala ere, trebakuntza-saioak lan-egoera errealetik kanpo gertatzen dira (berariaz antolatutakoak dira-eta). *eusLiderrak*-en kasuan, taldeak naturalak izanda ere, esku-hartzean burutzen diren eginkizunak

eguneroko jardun errealetik kanpo gertatzen dira (tailerrerako bereziki antolatutako jarduerak dira denak).

4.4.4. ZENBAT ALDAGAITAN ESKU HARTU ZUZENEAN

Aldahitz egitasmoaren arduradunek, esperientziaren diseinuan, sinpletasunaren alde egin dute. Aukeraren alde egiteko oinarritzen dira erreferentzia teoriko zein esperientzien azterketa sakonetan (Jauregi eta Suberbiola, 2014). Argudiatzen dute diseinu konplexuek arriskua dutela ahaleginak sakabanatzeko, eta hobesten dute egiturazko aldagai gutxi batzuei eragingo dien diseinu soilagoa. Izan ere, ohartarazten dute sistema baten aldagai batzuek beste batzuek baino eragin-indar handiagoa dutela, eta egiturazko aldagai horietan esku hartuta, eragina beste aldagai batzuetara (edo sistema osora) zabalduko dela (Jauregi eta Suberbiola, 2014) (ikus 3.1.2.4 atala). Hori dela eta, erabaki zuten esku-hartzea jokabidezko araua ematera mugatzea, eta ez dute antolatu aparteko saio edo ikastarorik. Beraz, parte-hartzaileen eginbeharra izan da hizkuntza-arauari jarraitzea, bilera pare baten parte hartzea eta jarraipen nahiz neurketa galdetegiak betetzea. Azterlanaren ondorioetan, gainera, onuragarri baloratzen dute metodologiaren sinpletasun hori; uste dute balio izan duela hizkuntza-jokaeraren muinari heltzeko eta eguneroko jardun arruntean kokatzeko.

Egin Salto!-ren proposamen metodologikoa antzekoa da jokabidezko esku-hartzearen aldetik (bikoteei hizkuntza-araua ezartzea). Esan dezakegu metodologiaren alderdi horrek, *Aldahitz*-en planteamenduaren bide beretik, egiturazko aldagai gutxi batzuei eragin nahi diela (funtsean, bikoteak osatzea eta hizkuntza-jokaerazko araua ematea). Hala ere, trebakuntza-saioak ere burutzen dituztenez, horrek apur bat konplexuago bihurtzen du esku-hartzea, bere osotasunean, ikuspegi horretatik begiratuta. Hau da, aldagai gehiagotan esku-hartzen da, orotara: saioetan, lantzen dituzte emozioak, motibazioa eta zailtasunei aurre egiteko bideak. Horretarako, hizkuntza-ohituren aldaketei buruzko teoria jaso, esperientziak trukatu eta hausnarketa egiten dute. Hala ere, ez daukagu informazio nahikorik jakiteko, zehatz-mehatz, zein aldagai lantzen dituzten.

eusLiderrak egitasmoan, esan genezake aldagai gehiagotan eragin nahi dutela esku-hartze zuzenaren bitartez, saioetan zein horietatik kanpoko eginkizunetan. Aldagai batzuetan, partaideak zeharo kontziente izan barik (esaterako, ondokoetan: elkarrekikotasuna, jendarte-balidazioa, aurreiritziak...). Baina, horiekin batera, beste hainbat aldagai ohartuki lantzen dituzte, eta bultzatzen dituzte parte-hartzaileak horiei erreparatu eta erabiltzera: lidergoa, atsegintasuna, koherentzia,

informazio soziolinguistikoa (motibazioa sustatzeko), eta abar (ikus 3.3.2. eta 3.3.3.2 atalak).

4.4.5. HIZKUNTZAREN IKASKETA PROZESUAREN IKUSPEGIA

Aldahitz ikerketa 2014n zein *Egin Salto!* egitasmoan, parte-hartzaileen artean, euskara-gaitasun mugatua duten kideak daude. Bereziki, *Egin Salto!*-n, izan ere, horiek dira esperientziaren protagonistetako batzuk (bikotekideetako bat, hain zuzen); gainera, proiektuaren helburu nagusietakoa da horiexei euskara erabiltzeko egoera erreala eskaintzea, 2011ko *Aldahitz ikerketak* aztertutako bikoteen egoera sorrarazi nahian. *Aldahitz 2014*-n, kide horiek ez dira hain zentralak, beharbada, baina esperientziak oso gogoan hartzen ditu; izan ere, egileen berbetan, helburu nagusiarekin batera (lanean euskara gehiago erabiltzeko aukera eskaintzea), besteak beste lortu nahi zuten sorraraztea 2011ko *Aldahitz*-ek aztertutako bikote-mota horiek (ikasketa-prozesuan den “euskaldungaiak” eta euskara erabili ohi duen euskaldunak osatutakoak) (Jauregi eta Suberbiola, 2014).

Proiektu bietan, hortaz, agerian jartzen dute zein ikuspegi duten euskararen ikasketa-prozesuaren nondik norakoez; ikuspegi berbera, izan ere. *Egin Salto!*-k plazaratutako informazioan, beharbada, tarte handiagoa eskaintzen diote ikuspuntu hori azaltzeari (gaitasun mugatuko kideak egitasmoaren ardatz direnez gero); alabaina, *Aldahitz ikerketa 2014n* ere lantzen dute gaia, bai eta 2011ko *Aldahitz*-i erreferentzia egin ere.

Funtsean, adierazten dute hizkuntza ikasteko (gaitasun handiagoa eskuratzeko) gunerik egokiena eguneroko jardun errealean erabiltzea dela. Beraz, proposena ikasketa eta erabilera erreala bateratzea da. Izan ere, erabileraren bitartez lortzen da gaitasuna hobetzea (erabilera ezinbestekoa da gaitasuna lortzeko zein atxikitzeko). Gainera, egoera errealean erabiltzeak ekar dezake harreman erreal horietan hizkuntza-ohitura hori sortzea (euskara bihurtzea ohiko hizkuntza); horrek ziurtatuko luke “euskaldungaiak” erabilerarako gune iraunkorra lortuko lukeela (bere bizitzan txertatuta egongo den gunea, ez propio euskaraz hitz egiteko “artifizialki” sortua), maiztasun handi eta finko samarra izan dezaketen harremanetan (aztertzen gabiltzan kasuan, laneko testuinguruan, maiztasun handikoak izango dira, gehienetan).

Egin Salto!-ren arduradunek berariaz aipatzen dituzte pertsona horiei hizkuntza trebakuntza hutsa eskaintzearen muga handiak. Dioten moduan, oso ohikoa izaten baita ikasten ari direnek “mundu

errealean” erabiltzeko jauzirik ez ematea, arrazoi desberdinak tarteko (lotsak, konplexuak, aukerarik eza, ohiturarik eza -euren burua arraro sentitzea-...). Hutsune hori betetzeko diseinatu zuten, hain zuzen, egitasmoa: jokabidera bideratutako esku-hartzea, trebakuntza psikolinguistikoak (ez linguistikoak) osatuta.

4.5. METODOLOGIA

4.5.1. ESKU-HARTZERAKO DINAMIKAK

Aipatu dugu dagoeneko, esku-hartzerako, izaera desberdineko bide edo dinamikak erabiltzen dituztela egitasmoak (ikus 4.4. atala). Gogoratuko dugu, beraz, 2014ko *Aldahitz*-en Eusle metodologiaren muina jokabide-dinamika da; hau da, hizkuntza-jokabiderako araua ezartzen die eusle jardungo dutenei. *Egin Salto!*-k bi motatako dinamikak erabiltzen ditu: hizkuntza-jokabide araua ezartzea “laguntzaileei” eta trebakuntza psikolinguistikoa emateko saioak. *eusLiderrak* egitasmoak ere bi motatakoak darabiltza: saioak eta jokabide-dinamikak; baina azken hori ez da hizkuntza-jokabide arau bat ezartzea, hizkuntza-jokabideari ez dagokion ekintza-eskaera bat baizik (eskaria egin diezaiotela kide bati, eta, gero, jarduera sozial baten parte hartzea).

4.5.1.1. HIZKUNTZA JOKABIDE ARAUA: ALDAHITZ 2014 ETA EGIN SALTO!

Antzekoa da metodologia biek proposatzen duten jokabide-araua. Bietan, kide batzuek euskaraz bakarrik egin dezakete egitasmoa indarrean den gunean; *Aldahitz*-en, eusleek, eta *Egin Salto!*-n, “laguntzaileek”. Alabaina, bada alderik ere. *Aldahitz*-ek taldean kokatzen du dinamika, kideen %20 inguru eusle direla; eusleek talde horretako kide guztiei egin behar diete euskara hutsean. *Egin Salto!*-n, ordea, bikote-mailan kokatzen da dinamika; “laguntzailek” betebeharra dute euskara hutsean egiteko euren bikoteko “lagunduei” bakarrik (litekeena da, baina, euren borondatez, bestelako kideengana ere zabaltzea euskarazko jokabidea). Gainerako partaideek ez dute euskaraz egiteko derrigortasunik (ez “uzleek” *Aldahitz*-en, ez “lagunduek” *Egin Salto!*-n), kasu bietan egokitzeko joera izango badute ere.

4.5.2. ESKU-HARTZEEN IRAUPENA ETA DENBORA-ANTOLAKETA

Esku-hartze esperientziak zortzi asteko iraupena izan du *Aldahitz*-en Eusle metodologian. Epe horretan, indarrean izan dira eusleen hizkuntza-araua eta asteroko jarraipen-berrespenak. Eusleen txanda bi izan dira, bestalde: hilabetekoa bakoitza. Hilabete bi horiek amaituta, bertan behera geratu da esperientzia (esku-hartzea) bera; hala ere, *Aldahitz* egitasmoan, erabileraren beste neurketa bat

egin da beste hiru hileko tartea (“atsedenaldia” esan diotena) pasatu ostean .

Egin Salto!-n, esku-hartzearen iraupena luzexeagoa da: hiru hilekoa, eta ez da bikoteen erabileraren neurketarik egiten esperientzia amaitu eta denbora-tarte batera (ez dago, beraz, *Aldahitz*-en “atsedenaldiaren” parekorik).

eusLiderrak tailerren planteamendua desberdina da aurreko bienaren aldean. Beste bi egitasmoetan esperientziak, bizpahiru hiletan, modu iraunkorrean dirau indarrean. *eusLiderrak*-en, ostera, saio zehatzak egiten dira, eta parte-hartzaileek prestaketa lanak dituzte saio batetik besterako tarreetan. Saio bakoitzaren iraupena 60-90 minutukoa da. Tailer osoaren iraupenari dagokionez, ez dakigu zein den iraupen zehatza lan-munduko tailerretan (ez dugu aurkitu aztertutako informazioan). DBHko ikasleekin egiten direnei begiratzen badiegu, Gernikako Mertzede ikastetxeko esperientziaren memorietan diotenaren arabera, astebete-hamabost bat egun bitarteko tartea egon zen, kasu horretan, saio batetik bestera (Ahize-AEK, 2012 eta 2013). Beraz, pentsatzekoa da lan-munduan ere antzeko iraupena izango duela saioen faseak (hilabete inguru, hasierako girotzeak eta hiru saioek); ondoren, batzuetan, laugarren saio bat egin ohi dute ekintza sozialaren antzeko formatuan.

4.5.3. JARRAIPEN SISTEMAK

Aldahitz-ek astero pasatu die galdetegi txiki bat parte-hartzaileei, batetik, eusleen arauaren betetze-maila baloratu, eta, bestetik, esperientziarekin aurrera egin nahi duten berrets zezaten. Gero, ikertzaileek, erantzun guztien emaitza orokorra kalkulatu dute eta lankide guztiei helarazi zaie (talde osoaren ikuspegia jaso zezaten). Sistema horrek, datu-iturri izateaz gain, balioko zuen kideek euts ziezaioten arreta-mailari (tentsio-puntuari). Egileek ere aipatzen dute metodologiaren oinarri teorikoetan, garrantzitsua dela, esperientziarekin aurrera egiteko, kideek suma dezaketen presioa taldeari ez huts egiteko (Jauregi eta Suberbiola, 2014). Gainera, egileen hitzetan, sistema horrek konfiantza eman die arduradun nahiz lankideei, aukera ematen zuelako, arazoak sortuz gero, esperientzia bertan behera lagatzeko (Jauregi eta Suberbiola, 2014).

Egin Salto!-k ez du antzeko sistemarik baliatzen (argitaratutakoan ez da aipatzen, behintzat), baina trebakuntza-saioak erabiltzen ditu jarraipena egiteko ere. Horietan, lanketa nahiz gogoeta egiten dute esperientziaren martxaz eta partaideen bizipen zein sentipenez (jarraipena egiteko funtzioa ere

badu, hortaz); hala ere, guk dakigula, ez dute erabiltzen galdetegirik.

EusLiderrak-en, azkenik, saio bakoitzaren ostean pasatzen dituzte balorazio-galdetegiak; galdetegiotan, zenbakizko balorazioaz gain, iruzkinetarako tartea ere ematen dute, beraz, ematen du aukera jarraipena egiteko. *Egin Salto!*-n nahiz *eusLiderrak*-en, jakina, dinamizatzaileek saioetan egin dezaketen behaketa ere izan liteke jarraipenerako informazio-iturri.

4.5.4. DATUEN NEURKETA

4.5.4.1. HIZKUNTZA-ERABILERAREN NEURKETA

4.5.4.1.1. Neurketa-uneak:

Aldahitz ikerketa 2014n, **3 unetan** egin dira lankideen arteko hizkuntza-erabileraren neurketak: esperientzia hasi aurretik, bi hileko esku-hartzea amaitu bezain laster (esku-hartzearen eragin zuzena neurtzeko) eta esku-hartzea amaitu eta hiru hilabetera (erabilera-ohitura berrietatik, zenbat atxiki den ikusteko). *Egin Salto!*-n, **bi unetan** neurtu ohi dute bikoteen euskara-erabilera: **hasieran** eta hiru hileko esku-hartzearen **amaieran**. *EusLiderrak*-en, azkenik, **bi unetan: egitasmoa hasi aurretik eta amaitu ostean**. Beraz, azken biek ez dute neurketarik egiten amaitu eta denbora-epe batera (*Aldahitz*-en gisara), zenbati eutsi zaion ikusteko. Ahize-AEK-kideek esplizituki aipatzen dute, aurrera begira hobetzekoetan, interesgarria litzatekeela hirugarren neurketa hori burutzea: “Parte hartu dutenenekin harremanetan jarraitzeko baimena lortu. Horrela, hilabete batzuk pasata, nolabaiteko jarraipena egin dakieke, eragina mantendu den ikusteko; ...” (Garmendia eta Urdangarin, 2014: 52).

Gure iritzian, garrantzitsua da esperientzia amaitu eta denbora batera berriro neurtzea, berehalako eraginaren zein parteri eusten zaion ikusteko. Are gehiago, geure buruari galdetzen diogu hiru hileko epea nahikoa ote den ohitura berri horiek finkatuta daudela ziurtatzeko. Interesgarria litzateke, beharbada, eraginari denbora luzeagoan eusten zaion ikusteko, epe luzeagoa pasatuta laugarren neurketa bat egitea?

4.5.4.1.2. Neurketa moduak eta tresnak:

-AITORTUAK/BEHATUAK; GURUTZATUAK/EZ GURUTZATUAK:

Hiru egitasmoetan neurtzen da kideen arteko ahozko erabilera; bide desberdinak erabiltzen dituzte, baina. *Aldahitz ikerketa 2014n*, erabilera aitortua (galdetegi bidez jasoa) eta gurutzatua baliatzen

dute, neurketa unitate bikotea hartuta: kide batek gainerakoetako bakoitzarekin, eta haietako bakoitzak berarekin (ikus 3.1.3.8. atala). *eusLiderrak*-en, ostera, datuak aitortuak dira, baina ez gurutzatuak. *Egin Salto!*-ri dagokionez, behatu egiten da bikoteen egun bateko erabilera.

Behaketaren emaitzak “objektiboagoak” izan litezke (hau da, errealitatek hurbilagoak) galdetegi bitartez lortutako datu aitortuak baino. Dena dela, Jauregik eta Suberbiolak azaltzen duten moduan (ikus 3.1.3.8. atala), datu aitortuetan gurutzaketa egitea baliagarria da desbideraketa handiak atzemateko; horrela, aukera dago asko erantzun gurutzatuen artean desberdintasun handi samarrak daudenenean, datu horiek baztertu eta, horrela, emaitza objektiboagoak lortzeko (Jauregi eta Suberbiola, 2014). Beraz, badirudi datuak aitortuak direnean (galdetegi bidez jasotakoak), emaitza zehatzagoak lor daitezkeela datu gurutzatuak erabilia, ez gurutzatuekin baino. Horrexek dirudi aukera egokiena gure helburua bada azterketa zorrotza egitea. Hala ere, baliteke lan handiagoa ere ekartzea (datu gurutzatuak jaso ahal izateko, kide bakoitzari galdetu beharko baitzaio pertsona zehatzekiko harreman-hizkuntzari buruz; gero, gurutzatu ahal izateko pertsona horiek kide horrekiko esan dutenarekin) Hau da, ezin dugu datu gurutzaturik lortu talde osoarekiko harreman-hizkuntzari buruz galdetzen badugu. Beraz, datu gurutzatuak erdietsi nahi izanez gero, galdetegi luzexegoa izango da erantzun beharrekoa (gainera, datuak aztertzean, bana-banan erkatu beharko dira). Azterketa egiten dihardutenek ikusi beharko lukete, kasu bakoitzean, ahalegin gehigarri hori egitea merezi duen.

Bestalde, aipatu beharra dago *Aldahitz*-eko ikertzaileek galdetegiak erabiltzea erabaki dutela, euren hitzetan, metodologiaren sinpletasunaren mesedetan (behaketa egitea baino sinpleagoa delakoan) eta parte-hartzaileekiko konfiantza-giroa sustatu nahian (Jauregi eta Suberbiola, 2014).

-GALDETEGIAK:

- **Galdetegi-motak eta eskalak:**

Aldahitz ikerketa 2014n, eskatu zaie hizkuntza-erabilera kokatzeko bost mailako eskalan, “Beti edo ia beti euskaraz” muturretik “Beti edo ia beti gaztelaniaz” muturrera (ikus 3.1.3.8. atala).

eusLiderrak-en (ikus 3.3.3.3.1. atala) lau baieztapen baloratu behar dituzte, 1etik 6rako eskalan (ez dago hitzez deskribatuta eskalako neurri bakoitzak zer adierazten duen). Hauek dira baloratu beharrekoak: “1. Euskara ikasleen arteko harreman hizkuntza da; 2. Zuk euskara erabiltzen duzu

ikaskideekin; 3. Ikaskideek zurekin euskara erabiltzen dute; 4. Ikaskideek haien artean euskara erabiltzen dute” (jatorrizkoan, azpimarratuak letra lodiz emanda daude).

Eskala motari erreparatuta, ikus dezakegu desberdintasun nagusia dela *eusLiderrak*-en zenbaki-eskala erabiltzen dutela (edo zutela, informazio hori publikatu zen sasoian); *Aldahitz*-en, ostera, hitzez deskribatutakoa. Geure irudiko, baliteke errazagoa izatea erantzunak kokatzea hitzez deskribatutako eskala baten, argiago deskribatuta dagoenez gero. Bestalde, *Aldahitz*-en, eskala deskribatzen duten **esaldietan**, gaztelania nahiz euskara aipatzen dira: “beti edo ia beti gaztelaniaz; gaztelaniaz euskaraz baino gehiago; bietan berdin; euskaraz gaztelaniaz baino gehiago; beti edo ia beti euskaraz”. *EusLiderrak*-en, baloratu beharreko esaldiek (ikus gorago) euskara bakarrik aipatzen dute (nolabait, euskararen ipintzen dute fokua). Ez dakigu ez ote litekeen gerta aukera horrek bultzatzea erantzunak euskararen aldera ematera. Seguruenik, aztertzen dihardugun testuinguruan, kasu bietan, galdetegia betetzen ari denak sentituko du erantzun politikoki zuzenenak euskararen aldekoak direla, eta kasu guztietan egon liteke, beraz, desbideraketa euskararen erabilera puzte aldera. Alabaina, esaldiak euskararen ardaztuta badaude, zalantza dugu ez ote dezakeen desbideraketa areagotu. Alde horretatik, betiere, helburu badugu ikerketa ahalik eta zorrotzena egitea, neutroagoa litzateke, beharbada, hizkuntza biak aipatzea baloratu beharreko esaldietan? Tira, zalantzak dira, finean, mahaigaineratzen ari garenak. Gainera, litekeena da erantzunetan aldea oso txikia izatea, sistema bat zein bestea erabilia. Hala ere, interesgarria litzateke kontua aztertzea.

- **Neurketarako unitatea:**

Esan bezala, *Aldahitz*-en, bikotea da neurketa-unitatea (Jauregi eta Suberbiola, 2014); hau da, kide bakoitzak, galdetegian, esan behar du zer hizkuntza erabili duen gainerako kideetako bakoitzarekin. Horrela, datu-mota bi atera dituzte: norbanako bakoitzarenak eta bikote bakoitzarenak (ikus 3.1.3.8.1. atala). *Egin Salto!*-n ere bikotea da unitatea; esku-hartzearen unitatea ere bikotea izanda, horixe darabilte neurketa behaturako unitate ere. Hala ere, lantoki osoko neurketa orokorrak ere egiten dituzte (ikus 3.2.3.5). *EusLiderrak*-en, aldiz, ondoriozta dezakegu (galdetegian parte-hartzaileek baloratu beharreko baieztapenetatik) azterketarako unitatea taldea dela; hots, galdetegian, kide bakoitzak esan behar du ea euskara den taldearen hizkuntza, norberak taldearekin erabiltzen duena, taldeak norberarekin eta taldekideek euren artean.

Neurketa-unitatearen aukerari dagokionez, gure helburua datuen zorrotztasuna bada, zehatzagoa

dirudi bikotekako harremani buruz galdetzea, talde osoarekin ditugunen inguruan egitea baino. Izan ere, taldearekiko harremanak anitzagoak izan ohi dira, eta zailagoa dirudi horri buruz zehaztasunez erantzutea. Esaterako, baliteke kide batzuekin harremana nagusiki euskaraz izatea eta beste batzuekin nagusiki erdaraz. Beraz, errazagoa dirudi irudikatzea pertsona bakoitzarekin zelan egin dugun berba, talde osoarekin baino. Hala ere, galdera modu berean egiten bada une desberdinetan, baliagarria izan liteke bilakaera aztertzeko.

Dena dela, datuetan zehaztasun handiagoa eman diezagukeen aukera horrek (unitatea bikotea izateak) galdetegi luzeagoa dakar berarekin: unitatetzat bikotea hartzen badugu, erantzun behar dugu zein hizkuntzatan egin dugun taldeko kide bakoitzarekin, eta berak gurekin. Unitatetzat taldea hartuta, ostera, bi erantzunekin nahikoa litzateke, nik taldearekin eta taldeak nirekin (hala ere, *eusLiderrak*-en lau esaldi baloratu dituzte, galdetzen baitute taldekideen arteko harremanen inguruan ere). Horiek horrela, interesgarria litzateke ezagutzea zenbateko aldea egon daitekeen bide batetik zein bestetik jasotako datuen artean. Argi dago ikerketa baterako zehaztasuna funtsezkoa dela. Aholkularitza baten esku-hartze baten kasuan, baloratzekoa litzateke, bide bien arteko zehaztasun-aldea ezagututa, merezi duen galdetegi luzexegoak egitea.

- **Galderaren denbora-erreferentzia:**

Aldahitz-en erabili duten galdetegian, galdetu zaie “azken astean” izandako erabileraz; hau da, eskatu zaie astebeteko harremanean hitz egindakoa irudikatzeko. Ikertzaileen hitzetan, helburua izan da jasotako datuek momentu zehatz bateko hizkuntza-erabilera islatzea. *eusLiderrak*-en galdetegian ez dugu ikusi denbora-erreferentzia zehatzik. Geure iritzian, galdera denbora jakinera mugatzea lagungarria izan daiteke erantzun ahalik eta zehatzena emateko. Dena dela, epe zehatza zehaztu barik ere, seguru asko, gehienok azkenaldiko epea hartuko genuke erreferentzia gisa (azken egunak edo astea); haatik, argitzea beti izan daiteke lagungarri.

4.5.4.2. BALORAZIOEN BILKETA

Egitasmootan, aurkezpenetan azaldu dugunez, batu dituzte parte-hartzaileen balorazioak ere. *Aldahitz ikerketa 2014n*, bigarren neurketan egin dute, galdetegiari atal hori erantsita (harremanaren maiztasunaz ere galdetu diete bigarren horretan). Horrez gain, asteroko berrespena ere har liteke, zeharka, esperientziarekiko balorazio moduan (berrespenak oniritzia adierazten duenez gero) (Jauregi eta Suberbiola, 2014). *Egin Salto!*-n, daukagun informazioaren arabera, formazio-saioak

baliatzen dira esku-hartzearen jarraipena egiteko, baina ez dakigu balorazio formalik betetzen den (mugatua da lortu ahal izan dugun informazioa). *Eusliderrak*-en, azkenik, galdetegi bidez jasotzen dira saio bakoitzaren balorazioak (saioen amaieran) eta egitasmoaren balorazio orokorra (egitasmoaren bukaeran). Hortaz, maiztasun handi samarrez jasotzen dituzte baloraziook (guztira lau, langile-taldeetan), baita aintzat hartu ere, tailerrean, behar balitz, egokitzapenak egiteko (Garmendia eta Urdangarin, 2014).

4.5.4.3. BESTELAKO INFORMAZIO-ITURRIAK

Balorazioen bilketa formalez gain, modu informalean jasotako iruzkin, balorazio nahiz behaketak ere hartu dituzte aintzat egitasmo desberdinetan. Horiez gain, *eusLiderrak* proiektuan, batzen dituzte hirugarren fasera pasatzeko nahia agertzen duten kideen kopuruak ere, eta datu hori ere hartzen dute parte-hartzaileen asebetetzearen erakusgarritzat. Hirugarren faseari dagokionez, gogora ekarri beharra dago langile-taldeetan saio gehigarria izan ohi dela hirugarren fasearen parekoa, “ekintza sozial” gisa planteatzen dutena (hau da, askaria egitea, ardo-dastaketa, etab.) (ikus 3.3.3.2. atala).

4.6. EMAITZAK

*Aldahitz ikerketa 2014*ren egileek aldagai ugariaren arabera aletzen dituzte emaitzak (ikus 3.1.4.1. atala): banakako edo binakako datuetan oinarrituak diren; unibertso osoa ala xede-taldeari dagozkionak diren; bikote-tipologia desberdinen emaitzak; emaitzak abiapuntuko hizkuntza-kategoriaren arabera; eusleen datuak; harremanen maiztasuna... Esan beharra dago, beraz, ikerlanean emaitzen azterketa sakon-sakona egiten dutela eta ondorio ugari ateratzeko aukera eman diela horrek.

eusLiderrak-en kasuan, badute argitaratuta datu-sorta mardul samarra; publikatutako ia guztiak ikasle-taldeetakoak dira, ordea, langile-taldeetakoak ez dauzkate-eta bateratuta. *Egin Salto!*-n ere ez dituzte bateratuta esku-hartze desberdinetako emaitzak, eta datu gutxi batzuk eman dituzte ezagutzera.

4.6.1. HIZKUNTZA-ERABILERAREN EMAITZAK

Hiru egitasmoetako arduradunek aipatzen dute emaitza onak izan dituztela, agertzen dituzten ondorioetan. Dena dela, aurrerago azaldu dugunez, alde handia dago batzuek eta besteek

eskuragarri dituzten datuen kopuruan.

*Aldahitz ikerketa 2014*ren egileek, esan bezala, azterketa sakon-sakona egin dute, makina bat aldagai edo irizpideren arabera (ikus 3.1.4. atala). Esperientziak euskararen erabileran duen eragina laburtzeko, honako datuak aukeratuko genituzke: esku-hartzearen ondorioz, bi hileko epean, %18,5 hazi da euskararen erabilera binakako harremanetan, azter-unibertso osoan. Gero, hiru hileko atsedendian (esku-hartzerik gabeko tartea), %7,2ko jaitsiera izan da. Beraz, egitasmo osoko azken balantzea (lehenengo neurketatik azkenengora -atseden ostekora-) da %11,3 igo dela euskararen erabilera.

Azter-unibertso osoari begiratu beharrean, “xede-taldea” izendatu dutenari (erabileran hobetzeko tartea zuten bikoteak) bakarrik erreparatzen badiogu, are nabarmenagoa da igoera; datuen arabera, hobe zezaketenaren ia erdia (%45,8) hobetu dute bi hilabeteko esperientzia zuzenaren eraginez, eta %27,8 atsedendia pasatuta. Beste datu batzuk dira, esaterako, xede-taldeko bikote guztien %21,5ek “lortu eta finkatu” duela euskarazko ohitura berria (lortu eta eutsi, atsedendia ostean); eta %16,9k lortu eta galdu egin duela (gainerakoek ez dute lortu). Era berean, xede-taldeko bikoteen %78,5ek aurrerapena egin dute bi hilabeteko esku-hartzearen ondorioz.

Egin Salto!-ren arduradunek adierazten dute emaitzak onak izan direla esku-hartzea gauzatu den gune guztietan; hala ere, esandako moduan, ez daukagu datu zehatzik.

eusLiderrak proiektuari dagokionez, erabileraren inguruan argitaratutako datuak ikasle-taldeetakoak bakarrik diren arren, ekarri ditugu emaitza horiek lan honetara (ikus 3.3.4.2. atala). Arduradunek ohartarazten dutenez (eta ikus dezakegunez), kasu guztietan gertatu da igoera hasierako erabilera aitortutik amaierakora, talde batzuetatik besteetara alde nabarmenak badaude ere. Dena den, ez ditugu datuok hemen sakonago aztertuko eta *Aldahitz*-ekoekin alderatuko. Izan ere, neurketa-moduak desberdinak izan direnez (ikus 4.5.4.1.2. atala), ez litzateke alderaketa egokia; gogoan izan behar da, halaber, *eusLiderrak*-en ez dutela, oraingoz, hirugarren neurketarik egiten (esperientzia amaitu eta denbora batera, alegia). Gainera, esan bezala, ez dira langile-taldeetako datuak, ikasleenak baino.

4.6.2. BALORAZIOEN EMAITZAK

*Aldahitz ikerketa 2014*n esaten zaigu parte-hartzaile gehienek, asteroko berrespenetan, esperientziarekin aurrera jarraitzearen alde egin dutela, kasu guztietan (ikertzaileek %75eko gehiengo kualifikatua ezarri zuten aurrera egiteko gutxieneko babestzat). Beraz, zeharka bada ere, datu horrek adierazten digu langileek ontzat eman dutela egitasmoa. Horrez gain, balorazio kualitatiboa ere bete dute bigarren neurketa-unean (ikus 4.5.4.2. atala). Azterlanean ez dugu topatu baloraziootan jasotako iruzkinen berri zehatzik; azaltzen dute, dena den, iruzkinek oniritzia adierazi dutela eta “era zuzenean jaso ditugun iruzkin guztiek adieraziko lukete dinamika berezi hori guztiz bateragarria izan dela eguneroko lan jardunarekin” (Jauregi eta Suberbiola, 2014: 105).

Egin Salto!-n, lehenago esan dugun moduan, ez da balorazio formal zehatzen berririk ematen.

eusLiderrak proiektua izan da, dirudienez, balorazio formalak jasotzen indar handiena egin duena. Aurkezten dituzten emaitzak jaso ditugu 3.3.4.1. atalean (dena dela, berriro ohartarazi beharra dago datu gehienak ikasleei dagozkiela -langile talde bakarrarenak daude tartean-). Ikus dezakegu, parte-hartzaile horiek emandako puntuazioan (10eko eskalan), 8tik gorakoa dela egitasmoaren balorazio orokorraren zein saioen puntuazioaren batez bestekoa. Puntuazioaz gain, jasotako iruzkinen adibideak ere ematen dituzte *Hizpide 82*ko artikuluan.

4.6.3. BESTELAKO EMAITZAK

Bestelako emaitzen berri ere ematen da *Aldahitz*-en zein *eusLiderrak*-en inguruan plazaratutako informazioetan. *Aldahitz*-en, esan bezala, aldagai askoren baitakoak aztertzen dira (ikus 4.6. atalaren sarreran esandakoak nahiz 3.4.1 eta 3.4.2. atalak). Ez ditugu hemen berriro banan-banan aletuko, gainerako egitasmoekin alderaketarik ezin egin daiteke-eta, atal horietan. *EusLiderrak*-en kasuan, egitasmoaren arrakasta neurtzeko irizpidetzat hartzen dute beste datu bat ere: 3. fasera pasatzeko nahia agertu dutenen kopurua. Ematen dituzten datuetan ikus daiteke, batez beste, aztertutako kasuetan, parte-hartzaile guztien % 63,7k adierazi zutela nahi edo asmo hori (egitasmoaren arduradunek emaitza ertain gisa baloratu zuten). Haatik, orainoan ere, datu horietako gehienak ikasleei dagozkie (ikus 3.3.4.1. atala).

4.7. ESKU-HARTZEAK, NORI BEGIRAKOAK

Ikusi dugu, azterketa konparatibo honetan zehar, esku-hartzerako hiru metodologia-proposamenek badituztela antzekotasunak, baina ikuspegi edo planteamendu desberdinak dituztela, hainbat arlotan.

Hartara, galde diezaiokegu geure buruari ba ote dagoen gutxieneko baldintzarik esku-hartzeok burutu ahal izateko; edota gogoeta egin genezake zein talde-motari begira izan litekeen bereziki egokia proposamen bakoitza.

-Gutxieneko ezagutza edo gaitasuna:

Esku-hartze guztietan da beharrezkoa gutxieneko hizkuntza-gaitasun bat. *Aldahitz*-en, gutxienekotzat jo dute taldekide guztiek “nahiko ongi” ulertzeko gaitasuna izatea (ikus 3.1.3.1.4); bestela izanda, komunikaziorako (eta lanerako) oztopo izango baitzen eusleen euskara hutsezko jarduna. Hala ere, jakintzat ematen da euskarazko gaitasun ona (ulermenean zein ahozkoan) izango duten kide ugari ere egongo direla (eusleak, gutxienez, bai; eta, esku-hartzeak erabileran igoera ekarriko badu, baita beste hainbat kide ere).

Egin Salto!-n ere argia da proposamena; izan ere, bikoteek honela osatuta egon behar dute: gaitasun ona eta ohitura duen kidea, batetik, eta gaitasun mugatu samarra eta ohiturarik ez duena, bestetik (hala ere, bigarren kide horrek izan beharra dauka ongi samar ulertzeko gaitasuna, bai eta berba egitekoa ere, zenbaitetan mugatuta eta kostata bada ere).

Azkenik, *eusLiderrak*-en ez da aipatzen gutxieneko gaitasunik; baina, ustez, eskariaren eginkizuna euskaraz egingo dutenez (eta arduradunek diotenez saioetan euskaraz jarduten dutela), pentsa liteke komunikatzeko gaitasuna beharrezkoa dela, bai ulermenean, bai ahozkoan.

-Zein xede-talderi begirako egitasmoak. Hainbat gogoeta:

Hurrengo lerroetan egingo dugu, aipatu galderaren inguruan (zein talde-motari begira izan litekeen bereziki egokia proposamen bakoitza), gogoeta xumea. Hausnarketa horretan ez genuke ausarkerian jausi nahi, eta galderak nahiz gogoetak proposatzen ditugu; ez bitez uler, beraz, baieztapen biribil bezala.

Aldahitz-i dagokionez, Eusle metodologiak oso egokia dirudi, zalantza barik, euskararen erabilera handitu nahi bada lan-gune jakin bateko talde baten. Bereziki, euskarazko jokaera lortzeko apustu ausarta egin nahi badugu. Izan ere, Jauregik eta Suberbiolak azpimarratzen duten moduan, alderdi psikologikoan (motibazioan, emozioetan...) eragiteak ez du ziurtatzen kideek hizkuntza-portaeraren aldaketa gauzatuko dutenik (hitz egin dugu horri buruz, gehienbat, *Aldahitz*-en oinarri teorikoan,

baita *Egin Salto!*-ren aurkezpenean ere). Hortaz, euskarazko jokaera lortzeko bide eraginkorrena izan liteke, esku-hartzea hizkuntza-jokabideari zuzendua egotea, zeharkako bideetatik jo gabe; betiere, partaideen adostasunarekin egiten bada. Era berean, hizkuntza-ohiturak aldatzeko marko egokia eskaintzen du (euskarazko hizkuntza-jokaera berri horiek finkatu ahal izateko). Egitasmoaren helburuak aztertu ditugunean, esan dugu horixe dela, hain zuzen, *Aldahitz*-ek begiz jota duen xedea (ikus 4.3. atala).

Bestalde, ikertzaileen hautua da, bide horretan, ez antolatzea bestelako saio edo ikastarorik. Dena den, gogoan izan behar da, esperientzia burutu dela euskara-planetan bidea (laburragoa edo luzeagoa) eginda zeukaten erakunde eta enpresetan (ikus 3.1.3.4. atala). Izan ere, guneen hautaketa egiteko, aurre-lokalizatu egin ziren baldintzak bete zitzaketen lan-erakundeak, eta horietako euskara-teknikarien iritzia jaso zen, interesa izan zezaketenak identifikatzeko (ikus 3.1.3.2. atala). Beraz, litekeena da parte-hartzaileek, aurreko urteetan, jasota izatea, euskara-planaren barruan, hainbat saio edo ikastaro (motibazio-saioak, etab.). Hau da, seguruenik ez ziren hutsetik abiatzen euskararen normalizazioaren arloan. Holako egoera baten oso egoki deritzogu Eusle metodologiaren hautuari. Baina, lehenago euskara-planik sekula izan ez duen erakunde baten abiatu nahi bagenu esperientzia, ez ote litzateke komenigarria izango, metodologia horrekin batera, edota aurretik, bidea prestatzeko saioen bat egitea? Finean, gunek aukeratu ziren esperientzia burutzeko egokiak zirelako, eta desberdina izan liteke metodologia hori proposatzea inoiz euskara planik edo hizkuntzen inguruko lanketa psiko-sozialik izan ez duen gunen baten.

Ildo horretan, bistan da ikertzaileek azpimarra egiten dietela hala borondatezko izaerari, nola izaera demokratikoari: lan-erakunde bakoitzeko arduradunek oniritzia eman ostean, langileek erabaki ahal izan dute parte hartu nahi zuten, eta, astero, segitu nahi zuten; gutxienez kideen %75en oniritziarekin egin da aurrera, kasu bietan. Izan ere, kideek baiezkoa ematen badiote, seguruenik ez da beharrezkoa saio edo ikastarorik antolatzea, lehenago euskara-plana izan ala ez. Horiek horrela, metodologia beste gunen edo eremu batzuetara zabaldu nahi izango balitz, aztertze kontua litzateke, lan-gune bakoitzaren izaeraren arabera, komenigarri litzatekeen saio edo bestelako jardura gehigarri egitea.

Egin Salto! esku-hartzea oso profil zehatzeko pertsonen begirakoa da: euskaldun-”euskaldungai” bikoteen begirakoa. Hizkuntza-ohitura aldatzeko eragin nahi dira, eta “euskaldungai” erabilera

errealerako egokiera eskaini. Dena dela, ez daukagu informaziorik aztertu ahal izateko nola abiatu ohi diren esperientziak (nola lokalizatzen diren lan-guneak, parte-hartzaileak...). Bestalde, arduradunek komenigarri iritzi diote trebakuntza psikolinguistikorako saioak ere emateari. Ez dugu, zoritxarrez, denbora nahikorik izan arduradunen aldetik ezagutzeko zein diren erabaki horren arrazoiak.

eusLiderrak egitasmoa, lehenago ere aipatu dugun moduan, bideratuago dago alderdi psikologikoan eragitera (iritziak, usteak, emozioak, motibazioak). Alde horretatik, esku-hartzearen hasieran girotze-kanpaina eta saioak egiten direnez, baliteke errazago gauzatu ahal izatea euskara-plan edo antzeko dinamiketan ibilbiderik izan ez duten taldeetan, edo ibilbidea laburra izan denean. Bestalde, ez du planteatzen helburu gisa euskarazko hizkuntza-ohitura lortzea, euskarazko portaera berria sortzea baino. Ohitura lortzeko, pentsatzekoa da egitasmoak sortzen dituenak baino jokabide-aldaketa iraunkorragoak behar izango lirakeela. Hortaz, geure ikuspegitik, tailerra egokia izan liteke euskararekiko motibazio, iritzi eta emozio positiboak garatzeko, eta, ondorioz, portaera-aldaketaren inflexio puntua lortzeko.

Gogoetari amaiera emateko, berriro nabarmendu nahi genuke esandakoak hausnarketak besterik ez direla, eta, jakina, eztabaidagarriak izan daitezkeela. Aztertzeko kontuak lirakeke, azken baten.

-Erakundearen babesa:

Amaitzeko, aipatuko dugu hiru egitasmoetako arduradunek azpimarratzen dutela garrantzi handikoa dela erakundearen babesa, esperientziok arrakastatsuak izan daitezen.

5. ONDORIOAK

Lanaren azken atal honetan, proposatuko ditugu, orain artean aztertutakoetatik, azpimarragarriak izan litezkeen ideiak. Era berean, zenbait puntutan, adieraziko dugu egitasmoek erabiltzen dituzten bideen balorazioa. Azkenik, aipatuko ditugu, geure irudiko, aurrera begira aztergai izan litezkeen zenbait kontu. Ekin diezaiozun, beraz, egitekoari:

ONDORIO NAGUSIAK ETA ZENBAIT BALORAZIO

- Egitasmoen izaera eta asmo desberdina:

Lehenik eta behin, gogoratuko dugu aztertu ditugun egitasmoek izaera eta asmo desberdina dutela:

Aldahitz 2014 ikerlana da; beste bi proiektuak, aholkularitzek bezeroei eskaintzen dizkieten esku-hartze egitasmoak. Horrela, ezberdinak dira batzuen eta besteen lehentasunak: lehenengoarena, ikerketa zorrotza egitea; beste biena, bezeroei zerbitzua eskaintzea. Desberdintasun horrekin dute zerikusia proiektuen arteko aldeetako batzuek; bereziki, emaitzen bilketa eta azterketari dagozkionek.

- Eskuragarri duten informazioa:

Aipatu berri dugunari lotuta dago argitaratuta duten informazioan dagoen aldea: *Aldahitz ikerketa 2014*-k, espero izatekoa denez, publikatu ditu azterlanari buruzko xehetasun guztiak. Aholkularitzen egitasmoek plazaratu duten informazioan, atal batzuei buruzkoak modu orokorragoan ematen dira, zehaztapen guztiak adierazi barik (izan ere, bestelako helburua dute: bezeroei begirako informazioa ematea -edota gaian interesa izan lezaketen bestelakoei zuzendutakoa-).

Alderik nabarmenena **emaitzen atalari** dagokiona da. Aholkularitzen egitasmoetan, ez dituzte bateratuta (eta, beraz, aztertuta) esku-hartze edo talde desberdinetako emaitzak. Horrela da, behintzat, langile-taldeei dagokienez (izan ere, *eusLiderrak*-en kasuan, argitara emanda dute DBHko ikasleen datu-sorta mardul samarra). Aurretik azpimarratu dugun legez, ikerketa egitea ez da aholkularitzen lehentasunezko egitekoa. Gainera, pentsatzekoa da, eguneroko lanaren zurrunbiloan, ez dela erraza izango egokiera aurkitzea datuen bilketa sistematizatu, bateratzea eta azterketa burutzeko. Alabaina, interesgarria izan liteke horretarako aukera izatea, hizkuntza-jokaerak zein ohiturak aldatzeko bideen azterketan, bide eman bailezakete ondorio esanguratsuak ateratzeko.

Horri lotuta, dena den, merezi du berriro aipatzea, lan-munduko hizkuntza-aholkularitzen egitasmoen artean, hizkuntza-jokaerak edo ohiturak aldatzea xede dutenetatik, *Egin Salto!* eta *eusLiderrak* direla Interneten informazio gehien eskuragarri dutenetakoak.

-Egitasmoen helburu nagusiak:

Horretan ere igartzen da alderik: esango genuke *Aldahitz*-ek eta *Egin Salto!*-k jomuga nagusia kokatzen dutela euskarazko ohitura lortzean; jokaera iraunkor eta finkatua, alegia (nahiz eta erdibideko lorpenak ere badituzten helburu). Dena dela, *Aldahitz*-ek talde baten lortu nahi du bere xedea, eta *Egin Salto!*-k euskaldun-“euskadungai” bikoteetan (2011ko *Aldahitz*-en terminologia

erabiliz). *eusLiderrak*-ek, bere aldetik, portaera berriaren sorrera luke arreta-gune nagusi (ikuspegi puntualagoa, nolabait, ez ohiturak eskatzen duen iraunkortasuna); baita lidergo eraldatzailea sustatzea ere.

-Oinarri teorikoa:

Nabarmenduko dugu **hiru proiektuek** dutela **zehaztuta** oinarri teorikoa. *Aldahitz* 2014-k eta *eusLiderrak*-ek, idatziz; *Egin Salto!*-k, ostera, oinarri dituen ikerlanei egiten die erreferentzia. Azken baten, baina, hirurek adierazten dute zein oinarri darabilten.

-Oinarri teoriko-metodologikoen ikuspegia:

Ikusi dugu badirela aldeak egitasmoen artean. *Aldahitz ikerketak* ikuspegi soziologikoaren alde egiten du, bai eta *Egin Salto!*-k ere, bere esku-hartzearen muina litzatekeenari dagokionez (gogora dezagun, izan ere, *Egin Salto!*-k oinarri dituela *Aldahitz* ikerketak nahiz horien aurrekari *Bikoteen artean hizkuntza ohituren aldaketa: ikerketa-lana*). Ikuspegi horri jarraituta, hizkuntza-jokaeraren alderdiari zuzentzen diote, zuzenean, esku-hartzea: euskara hutsezko hizkuntza-araua ezarriz, hala “eusleei” (*Aldahitz*-en Eusle metodologian), nola “laguntzaileei” (*Egin Salto!*-n).

Haatik, azterketa konparatiboan ohartarazi dugunez, espero dute, zeharka, jokabidezko egoera berriaren ondorioz, zenbait mekanismo psikologiko ere aktibatzea, parte-hartzaileak helburura bideratzeko. Era berean, gogorarazi beharra dago *Egin Salto!*-k alderdi psikologikoaren bidetik ere jotzen duela, trebakuntza-saioak eskainita.

eusLiderrak tailerretan, ostera, norbanakoen alderdi psikologikoan (iritzietan, motibazioan, emozioetan...) esku hartzeko bideak dirudi nagusia. Horietan esku hartuta sorrarazi nahi dute euskarazko jokaera berria. Horrez gain, sustatu nahi dute lider eraldatzaile izaera, kide batzuk euskararen alde aktibatzea lortuz gero, besteengan eragin dezaten. Egia da, dena den, interbentzioan badirela hainbat atal jokaerara zuzendutakoak (eskariarekin eta ekintza sozialarekin lotutako jarduerak).

Bide soziologiko edo psikologikoaren hautuari lotuta daude, jakina, esku-hartzeen beste ezaugarri batzuk ere: esaterako, esku-hartzerako unitatea taldea ala norbanakoa den.

Esango genuke, bide soziologiko edo psikologikoaren aferan, alderdi biak direla garrantzi handikoak. Edonola ere, iruditzen zaigu badirela zenbait kontu gogoan hartzekoak: hasteko, hizkuntza-jokaerak, eta, bereziki, hizkuntza-ohiturak aldatzeko biderik zuzenena, segurutik, soziologiko izendatu duguna dela, *Aldahitz*-en oinarri teorikoan argudiatzen eta ondorioetan berresten den bezala. Esan genezake nahitaezko bidea dela, hizkuntza-ohiturak eraldatzeko. Izan ere, aintzat hartu beharra dago hizkuntza-jokabidea gertatzen dela taldeak osatzen duen sistemaren eremuan, gainerako kideen jokaerarekin elkarrekintzan eta elkarri egokituz. Hizkuntza-ohiturak, bide beretik, sortzen dira elkarri egokitutako hizkuntza-jokabide errepikatu eta iraunkorren ondorioz (Jauregi eta Suberbiola, 2014). Beraz, norbanakoen nahi, asmo edo motibazioaz harago, faktore soziologiko ugari hartzen dute parte taldeak izango duen ohiko jokaera ebazteko orduan. Gainera, *Aldahitz*-en egileek oroitarazten diguten moduan, euskararen aldeko jarrera izan arren, euskarazko portaera izatea nekeza denean (arrazoi desberdinak tarteko), erdarazko jokabidea justifikatzeko argudioak topatu edo sortu ohi ditugu disonantzia kognitiboa murrizteko. Horrekin batera, elkarri egokitzeko ariketan, ikusi dugu hainbat mekanismok eraman ohi dutela euskalduna hizkuntza hegemonikoaren aldera egokitzera (gurean, erdararen aldera): “eskatu ezean, arauzko aukera” esan dioten mekanismoa, egokitzeko erraztasun handiena berak izatea (elebiduna denez), erantzukizuna berari egozte, etab. (Jauregi eta Suberbiola, 2014).

Alabaina, ez genuke alde psikologikoaren garrantzia gutxietsi nahi. Hainbat adituk berretsi dute (ikus *eusLiderrak*-en oinarri teorikoa), eta bistakoa da, iritziek, motibazioak nahiz aldeko emozioek badutela indarra lagun askoren jokabidea aldarazteko. Eta kide horiek (*eusLiderrak* tailerrak bultzatu nahi dituen liderrek, esaterako) eragin dezakete besteengan ere. Hala ere, eguneroko egoera errealean, jokoan sartzen dira aipatu berri ditugun mekanismoak, eta erdararen aldera egokitzera eramaten dute, sarritan, euskaltzalea (zer esanik ez argiki euskaltzale ez den euskalduna); hori dela eta proposatzen dute, *Aldahitz*-en Eusle metodologian, eusleen jokabidea babesteko markoa. Beraz, talde-mailako aldaketa badugu xede (taldearen eremu sistemikoaren berregituraketa), ikuspegi soziologikoak ezinbestekoa dirudi.

Nolanahi ere, esan bezala, ez dugu uste alde psikologikoa baztertzekoa denik. Zalantza barik, eraginkorra izan daiteke euskararen aldeko jarrerak nahiz motibazioak lortzea; azken baten, kide kontzientziatu aktiboak suspertzea (finean, “euslider”, “eusle” edo “laguntzaile” naturalen sorrera bultzatzea). Era berean, jokaera aktiboa izango ez dutenen kasuan ere, beti izango da lagungarria

euskararen aldeko jarrera izan dezatela, errazago har bailezakete euskaltzale aktiboen jokaerara egokitzeko bidea (edo ez oztopatzekoa, bederen). Lan-gune bakoitzaren bereizgarrien arabera ere, 4.7. atalean esan dugun moduan, komenigarria izan liteke alderdi psikologikoa lantzea. Areago gurea bezalako hizkuntza gutxitu baten kasuan (besteak beste, komeni da-eta herritarrei ulertaraztea euskararen normalizazio prozesuaren zilegitasunaren arrazoiak –eta, ondorioz, euskara plan zein esku-hartzeenak-; ulertu eta, ahal dela, babes dezaten). Alabaina, betiere, gogoratuta hizkuntza-jokabidea ez dela gauzaten norbanakoen hautu hutsaren arabera.

-Ildo berean, bat gatoz Jauregi eta Suberbiolarekin **talde naturaletan** eta **egoera errealetan** esku hartzearen egokitasunaz (Jauregi eta Suberbiola, 2014). Izan ere, horiek dirudite testuinguru egokienak hizkuntza-jokaeren, eta, bereziki, hizkuntza-ohituren aldaketa burutzeko. Beti ez da posible izango interbentzioa horietara bideratzea; baina, ahal dela, horretara jo beharko litzateke. Izan ere, talde naturaletako harremanak eguneroko bizitza “errealean” gertatzen dira. Euskaraz trebatzeko berariaz antolatzen diren jardueretan, ostera, partaideek hartuko dute ohitura elkarrekin euskaraz egiteko, baina aztura horiek ez dira, automatikoki, euren bizitzako ohiko harremanetara zabalduko; izan ere, Jauregik eta Suberbiolak diotena gogoan, ohiko harreman “natural” horietan beste hizkuntza-ohitura batzuk daude indarrean. Hau da, talde bakoitzak bere hizkuntza-ohiturak ditu, eta horiek aldatzeko lekua talde jakin hori da. Era berean, egoera erreala litzateke testuinguru aproposena, horixe delako eguneroko bizitzan gertatzen dena.

Aztergai izan ditugunei dagokienez, egitasmo guztiak burutzen dira talde naturaletan. Lehenengo biak laneko egoera errealean (*Egin Salto!*-ren trebakuntza-saioak izan ezik); hirugarrena, lankideen artan, baina ez lan-egoeran. Jakina, saioak ez dira sekula egoera erreala izango; izan litezke, alabaina, egoera errealean egindakoaren osagarri.

-Hizkuntzaren ikasketa-prozesuaren ikuspegia:

Ikusi dugu *Aldahitz ikerketa 2014*-n eta *Egin Salto!*-n, parte-hartzaileen artean, euskara-gaitasun mugatua duten kideak daudela. Hartara, proiektu bietan plazaratzen dute gogoeta hizkuntzaren ikasketa-prozesuaren nondik norakoez. Bat datoz ikuspegian, eta oinarritzen dute, besteren artean, 2011ko *Aldahitz ikerketaren* ondorioetan (Soziolinguistika Klusterra, 2011a eta 2011b). Horrela, diote hizkuntza ikasteko (gaitasun handiagoa eskuratzeko) egokiena eguneroko jardun errealean erabiltzea dela; finean, ikasketa eta erabilera erreala bateratzea. Erabileraren bitartez lortzen baita

gaitasuna hobetzea; eta, horrekin batera, talde natural eta egoera errealean erabiltzeak ekarriko du harreman horietan euskarazko hizkuntza-ohitura sortzea. Geure irudiko, ikuspegi egokia da, inondik ere.

-Datuen neurketa:

Hizkuntza-erabileraren neurketari dagokionez, ikusi dugu bide desberdinak erabiltzen dituztela, eta aipatu ditugu, geure ikuspegitik, batzuen eta besteen abantaila zein desabantailak. *Aldahitz*-en kasuan, ikerlan-izaeraren testuinguruan, egileek xehetasunez azaltzen dituzte egindako hautuen arrazoiak. Beste egitasmo bien inguruan askoz ere informazio gutxiago daukagu. Adierazi dugu, halaber, interesgarri irizten diogula esperientzia amaitu osteko hirugarren neurketa egiteari (*Aldahitz*-ek egiten du, hiru hiler); bai eta galdetu, geure buruari, ez ote litzatekeen jakingarria denbora-tarte luzeagoaren ondoren beste neurketa bat egitea (ikusteko esku-hartzearen eraginari denbora luzeagoan eusten zaion).

Aztertu ditugu, aurrekoekin batera, balorazioak jasotzeko nahiz jarraipenerako darabiltzaten sistemak ere.

-Emaitzak:

Hiru egitasmoetako arduradunek adierazten dute onak izan direla hizkuntza-erabileraren emaitzak. Hala ere, alde handia dago batzuek eta besteek ematen dituzten datuen kopuruan zein nolakoan. *Aldahitz ikerketa 2014*ren egileek emaitzen azterketa sakona egiten dute, aldagai ugariaren arabera. Beste bien kasuan, arestian ere esan dugunez, ez dituzte bateratuta (eta, beraz, aztertuta) esku-hartze desberdinetako datuak. *eusLiderrak*-en kasuan, langile-taldeetako daturik ez dute bateratuta; eman dituzte argitara, ordea, ikasleen datuak. Gauzak horrela, ez dugu modurik ikusten datuak sakonago aztertzeko (dauden aldeez gain, sistema desberdinak erabili baitira neurketetarako); ez da, gainera, lan honen asmoa egitasmo zehatzak maila horretan alderatzea.

Parte-hartzaileen balorazioen emaitzei begiratuta, ditugun datuen arabera, onak izan dira hiru proiektuetan. Badirudi, dena den, *eusLiderrak*-ek egiten duela ahalegin handiena balorazio formalak jasotzeko bidean.

AURRERA BEGIRAKOAK

Lan honen amaierako lerroetan, aipatu nahi genuke, aurrera begira, oso garrantzitsu irizten diogula hizkuntza-jokaera nahiz ohituren aldaketaren ikerketa-bidean sakontzeari. Euskararen erabilera kezka nagusietakoa dugun honetan, lehentasunezko kontua da, ezbairik gabe. Interesgarria litzateke, alde horretatik, aztergai izan ditugun lan-munduko egitasmoen datu gehiago eskuratu eta aztertu ahal izatea, bai eta han-hemen abian diren bestelako proiektuak ezagutu eta aztertzea ere.

Halaber, oso bide emankorra izan liteke aztertzea nola egokitu lan-munduko egitasmo horiek beste eremu batzuetara (eskola, aisialdia...). Oinarri teorikoak irakaspen handia dira beste alorretarako ere, zalantzarik ez dago, hizkuntza-jokabide eta ohituren funtzionamenduari buruzko ezagutza eskaintzen digutenez gero. Metodologiei dagokienez, aztertu egin beharko litzateke nola moldatu beste esparru edota testuinguruetan erabilgarri izateko.

Bistan da, hortaz, badela zer aztertu hizkuntza-ohituren aldaketen inguruan.

6. BIBLIOGRAFIA

AHIZE-AEK AHOLKULARITZA eta GERNIKA-LUMOKO EUSKARA-ZERBITZUA (2012). *Gernika-Lumoko Udala eta Mertzede Ikastetxea. Memoria txostena. Mertzede ikastetxean DBHko ikasleen artean euskararen erabilera informala sustatzeko proiektua*. Gernika-lumo-euskaraz.eus (<http://www.gernika-lumo-euskaraz.eus/fitxategiak/fckeditor/file/memoria-eusliderrak2011-2012.pdf>)

AHIZE-AEK AHOLKULARITZA eta GERNIKA-LUMOKO EUSKARA-ZERBITZUA (2013). *Gernika-Lumoko Udala eta Mertzede Ikastetxea. Memoria txostena. Mertzede ikastetxean DBHko ikasleen artean euskararen erabilera informala sustatzeko proiektua, 2. zikloa*. www.gernika-lumo-euskaraz.eus (<http://www.gernika-lumo-euskaraz.eus/fitxategiak/fckeditor/file/eusliderrak-memoria2013.pdf>)

AHIZE-AEK HIZKUNTZA AHOLKULARITZA (2014). *Katalogoa. Euskararen erabilera areagotzeko zerbitzuak eta jarduerak*. www.aek.eus (http://www.aek.eus/images/Ahize%20hizkuntza%20Aholkularitza_katalogoa14-01.pdf)

AIZU ALDIZKARIA (2016). “eusLiderrak. Ahize-AEKren egitasmo arrakastatsua”. Aizu aldizkaria, 406. aizu.eus (http://aizu.eus/index.php?option=com_content&view=article&id=1032:eusliderrak-ahize-aeckren-egitasmo-arrakastatsua&catid=29:testigantzak)

GARMENDIA, Iratxe eta URDANGARIN, Mikel (2014). “eusLiderrak. Hizkuntza portaera berriak sortzeko tailerra”. *Hizpide*, 82, 30-54.

JAUREGI, Pello eta SUBERBIOLA, Pablo (2014). *Aldahitz ikerketa 2014. Eusle metodologia eta hizkuntza ohituren aldaketa lan munduan*. Soziolingustika Klusterra (<http://www.soziolinguistika.eus/files/ALDAHITZ%20ikerketa%202014.pdf>)

OLASO, Olatz. *Ikuspegi soziologikoa eta gizarte psikologiarena*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista Graduondokoa. Donostia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2009). *Bikoteen artean hizkuntza-ohituren aldaketa. Ikerketa-lana. Ikerketaren emaitza eta ondorioen laburpena*. Soziolinguistika Klusterra (<http://www.soziolinguistika.eus/files/Bikoteen%20ohituren%20Tx%20Lab.pdf>)

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2010). *EraLan 2 ikerketa-proiektua. Hizkuntza-lidergoa aztergai*. Soziolinguistika Klusterra (<http://www.soziolinguistika.eus/files/ERALAN2.pdf>)

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2011a). *Aldahitz Ikerketa. Euskara ikasi dutenen hizkuntza-ohituren aldaketak lan munduan. Ondorio nagusien txostena*. Soziolinguistika Klusterra (http://www.soziolinguistika.eus/files/Aldahitz_2011-Ondorio_nagusien_txostena.pdf)

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2011b). *Aldahitz Ikerketa. Euskara ikasi dutenen hizkuntza-ohituren aldaketak lan munduan. Ondorioen sintesia*. Soziolinguistika Klusterra (http://www.soziolinguistika.eus/files/Aldahitz_2011-Ondorioen_sintesia.pdf)

WEBGUNEAK:

EMUN AHOLKULARITZA. *Egin salto!* interbentzioa:

<http://www.lantalan.eus/tag/egin-salto>

<http://www.lantalan.eus/emun/egin-salto-hizkuntza-portaerak-aldatzeko-interbentzioa>

<https://www.youtube.com/watch?v=CzXP45cE2Cc&feature=youtu.be>

Wikipedia: https://en.wikipedia.org/wiki/Robert_Cialdini